Salgaien itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	16	0,2	17	0,2	406	1,0	319	0,8
Bidaiarien aireko garraioa	12	0,1	15	0,2	346	0,9	285	0,7
Salgaien aireko garraioa	2	0	2	0	(***)	(***)	(***)	(***)
Lurreko garraioari atxikitako jarduerak	241	2,5	239	2,5	2.388	6,1	2.439	6,3
Itsas garraioari eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoari atxikitako jarduerak	93	1,0	86	0,9	1.065	2,7	1.074	2,8
Aireko garraioari atxikitako jarduerak	26	0,3	26	0,3	751	1,9	868	2,2
Lurreko garraioari atxikitako gainerako jarduerak**	726	7,5	745	7,8	8.256	21,0	8.201	21,0
GUZTIRA	9.720	100	9.589	100	39.284	100	39.015	100

(*) Barnean hartzen ditu hiriko eta hirien arteko garraioa errepidez eta beste lurreko garraio-mota batzuk (trena, funikularrak eta abar), betiere hirikoak eta hirialdekoak badira.

(**) Barnean hartzen ditu garraiatzeko hainbat modurekin uztartutako jarduerak, bidaiariak nahiz salgaiak (EJSN 2009ko talde hauek: 5210, 5224 eta 5229).

(***) Informazio hori ez da eman, estatistika-sekretua gordetzeko. EAEko datuetan gehituta dago.

Iturria: Eusko Jaurlaritza.

Laburpen Exekutiboa 0

Esparru Orokorra 1

Bilakaera Orokorra 2

Errepide Bidezko Garraioa 3

Tren Bidezko Garraioa 4

Aire Bidezko Garraioa 5

Itxaso Bidezko Garraioa 6

Beste Garraio bide Batzuk 7

Ondorio eta Joera Nagusiak 8


Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria 9

Funtsezko Adierazleak 10

Eranskinak 11

BEGa azpisektoreen arabera banakatuta, ikus daiteke garraioari lotutako jarduerak jarraitzen dutela sektoreko BEGaren pisu handiena (% 39,5) izaten. Merkantzien lurreko garraioak³ jarraitzen du bigarren postuan, eta % 33,1eko pisua du sektoreko BEGean. Hirugarren lekuan bidaiariaren lurreko joan-etorriak daude⁴; BEGaren % 17,9 sortzen dute horiek. Eta laugarren postuan tren bidezko garraioa dago, % 4,6rekin. Gainerako sektoreek ekarpen txikiagoa egiten diote sektoreko BEGari: aireko garraioa (% 3) eta itsasoko garraioa (% 1,9) dira.

1.5. grafikoa EAEko garraio-sektorearen BEGd-aren¹ banaketa azpisektoreen arabera. 2022² (%)




¹ Europako Kontu Sisteman (EKS-10) ezarritako metodologiaren arabera eskuratutako datuak: I+G alorreko eta kontsumo propioarako gastuak, besteak beste. 2010-2013 bitarteko urteetan, gastu horiek %1,3ko urteko gehikuntza ekarri zuten garraio- eta biltegitratze-azpisektorean.

² 2022ko BEGd-aren datua aurrerapen bat da.

* Lurreko bidaiariak: bidaiariaren hiriko eta hiri inguruko lurreko garraioa, taxi bidezko garraioa eta nonbait sailkatu gabeko bidaiariaren lurreko beste garraio mota bat.

** Salgaien lurreko garraioa: salgaien garraioa errepide bidez, mudantza-zerbitzua eta hoditeria bidezko garraioa.

Iturria: Eustat (Kontu Ekonomikoak, EJSN-2009 eta EKS -10).



³ Merkantzien lurreko garraioa: errepide bidezko merkantzien garraioa, etxe-aldaketetarako zerbitzuak eta hodi bidezko garraioa.

⁴ Bidaiariaren lurreko garraioa: bidaiariaren hiriko eta hiri inguruko lurreko garraioa, taxi bidezko garraioa eta beste toki batean sailkatuta ez dagoen bidaiariaren lurreko beste garraio bideren bat.

b) Lurralde mailako presentzia

1.2. taula Garraio-sektoreko establezimenduak eta enplegua, azpisektoreen eta lurralde historikoen arabera. EAE. 2022

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
	Kopuru a	%	Kopuru a	%	Kopuru a	%	Kopuru a	%
Establezimenduak								
Bidaiarien lurreko garraioa*	299	12,8	1.353	57,9	685	29,3	2.337	100
Salgaien errepideko garraioa	845	14,1	3.306	55,1	1.848	30,8	5.999	100
Bidaiarien hirien arteko garraioa trenez	2	2,7	49	67,1	22	30,1	73	100
Salgaien garraioa trenez	1	6,7	6	40,0	8	53,3	15	100
Hodi-sare bidezko garraioa	2	40,0	2	40,0	1	20,0	5	100
Bidaiarien itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	-	-	19	63,3	11	36,7	30	100
Salgaien itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	-	-	16	94,1	1	5,9	17	100
Bidaiarien aireko garraioa	3	20,0	10	66,7	2	13,3	15	100
Salgaien aireko garraioa		0,0	2	100,0		0,0	2	100
Lurreko garraioari atxikitako jarduerak	39	16,3	126	52,7	74	31,0	239	100
Itsas garraioari eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoari atxikitako jarduerak		0,0	65	75,6	21	24,4	86	100
Aireko garraioari atxikitako jarduerak	7	26,9	13	50,0	6	23,1	26	100
Lurreko garraioari atxikitako gainerako jarduerak**	123	16,5	391	52,5	231	31,0	745	100
GUZTIRA	1.321	13,8	5.358	55,9	2.910	30,3	9.589	100
Enplegua								
Bidaiarien lurreko garraioa*	1.265	15,0	4.684	55,4	2.503	29,6	8.452	100
Salgaien errepideko garraioa	2.646	16,6	7.100	44,4	6.239	39,0	15.985	100
Bidaiarien hirien arteko garraioa trenez	(**)	(**)	857	72,5	(**)	(**)	1.182	100
Salgaien garraioa trenez	(**)	(**)	(**)	(**)	74	63,8	116	100
Hodi-sare bidezko garraioa	(**)	(**)	(**)	(**)	(**)	(**)	28	100
Bidaiarien itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	0	0	36	54,5	30	45,5	66	100
Salgaien itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	0	0	(**)	(**)	(**)	(**)	319	100
Bidaiarien aireko garraioa	(**)	(**)	248	87,0	(**)	(**)	285	100
Salgaien aireko garraioa	0	0	(**)	(**)	0	0	(**)	(**)
Lurreko garraioari atxikitako jarduerak	226	9,3	1.265	51,9	948	38,9	2.439	100
Itsas garraioari eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoari atxikitako jarduerak	-	-	900	83,8	174	16,2	1.074	100
Aireko garraioari atxikitako jarduerak	392	45,2	413	47,6	63	7,3	868	100
Lurreko garraioari atxikitako gainerako jarduerak**	2.523	30,8	3.863	47,1	1.815	22,1	8.201	100
GUZTIRA	7.052	18,1	19.366	49,6	11.846	30,3	39.015	100

(*) Barnean hartzen ditu hiriko eta hirien arteko garraioa errepidez eta beste lurreko garraio-mota batzuk (trena, funikularrak eta abar), betiere hirikoak eta hirialdekoak badira.

(**) Barnean hartzen ditu garraiatzeko hainbat modurekin uztartutako jarduerak, bidaiariak nahiz salgaiak (EJSN 2009ko talde hauek: 5210, 5224 eta 5229).

(***) Informazio hori ez da eman, estatistika-sekretua gordetzeko. EAEko datuetan gehituta dago.

Iturria: Eusko Jaurlaritza.

Lurralde historikoen arabera, Bizkaian daude establezimenduen erdiak baino gehiago eta sektoreko bi langiletik ia bat: 5.358 zentro eta 19.366 langile baino gehiago. Gipuzkoan dago jarduera-zentroen eta langileen herena: 2.910 lokal eta 11.846 langile. Hirugarren postuan Araba dago, eta bertan daude 1.321 establezimendu eta 7.052 langile.

Laburpen
Exekutiboa

0

Esparru
Orokorra

1

Bilakaera
Orokorra

2

Errepide
Bidezko
Garraioa

3

Tren
Bidezko
Garraioa

4

Aire
Bidezko
Garraioa

5

Itxaso
Bidezko
Garraioa

6

Beste
Garraio-bide
Batzuk

7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

9


Funtsezko
Adierazleak

10

Eranskinak

11

Informazio ekonomikoa osatzeko, garraiorako enpresei eta baimenei buruzko zifrak aztertu ditugu. Hala, agerian geratu dira garraiolarien lanak egiten dituzten enpresen jarduera ekonomikoaren bilakaera eta koiuntura. Garraio-sektorearen zati esanguratsua osatzen dute horiek. Baimenak garraio-jarduerarako lizentziarekin erregistratutako ibilgailu kopuruari dagozkionak dira eta baimen-txartel motaren eta ibilgailu motaren arabera banakatuta azaltzen dira.



1.3. taula Bidaiarien garraiorako enpresak eta baimenak nola dauden banatuta Lurralde Historikoetan. EAE. 2022

		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
		Kopuru a	%	Kopuru a	%	Kopuru a	%	Kopuru a	%
ID: Autobus Diskrezionala	Enpresak	17	12,4	80	58,4	40	29,2	137	100
	Baimenak	411	17,2	1.314	55,0	663	27,8	2.388	100
TI: Taxiak, A edo B motako baimenak	Enpresak	233	11,9	1.140	58,0	591	30,1	1.964	100
	Baimenak	234	11,5	1.185	58,2	617	30,3	2.036	100
OI: Anbulantzia	Enpresak	2	40,0	0	--	3	60,0	5	100
	Baimenak	8	2,5	0	--	310	97,5	318	100
GGA: Gidaririk gabeko alokairua	Enpresak	0	--	0	--	0	--	0	--
	Baimenak	0	--	0	--	0	--	0	--
TIC: Taxiak, C motako baimena	Enpresak	8	26,7	14	46,6	8	26,7	30	100
	Baimenak	43	26,9	85	53,1	32	20,0	160	100
Guztira EAEn	Enpresak	260	12,2	1.234	57,8	642	30,0	2.136	100
	Baimenak	696	14,2	2.584	52,7	1.622	33,1	4.902	100

Iturria: Sustapen ministerioa.

Enpresen egoera eta bidaiariak garraiatzeko ibilgailuak lurralde historikoaren arabera aztertuta, nabarmentzekoa da sozietateen eta baimenen erdiak baino gehiago Bizkaian daudela: 1.234 enpresa eta 2.584 lizentzia, hau da, Euskadiko guztizkoaren % 57,8 eta % 52,7, hurrenez hurren. Gipuzkoan daude pertsonak garraiatzen dituzten enpresen % 30 (642 enpresa) eta baimenen herena, hau da, erregistratutako 1.622 ibilgailu (% 33,1). Araban 260 enpresa daude (% 12,2) eta horiek 696 lizentzia dituzte esleituta (EAEn pertsonak garraiatzeko esleitutako baimenen % 14,2).

1.4. taula Salgaien garraiorako enpresak eta baimenak nola dauden banatuta Lurralde Historikoetan. EAE. 2022

		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
SDA: salgai diskrezional arinak	Enpresak	325	15,9	1.165	56,9	556	27,2	2.046	100
	Baimenak	504	16,3	1.782	57,7	804	26,0	3.090	100
SDA: salgai diskrezional astunak	Enpresak	537	14,5	1.879	50,5	1.303	35,0	3.719	100
	Baimenak	1.679	13,9	5.395	44,7	4.993	41,4	12.067	100
GO: Garraio-operadorea (garraio-kudeatzaileak eta biltegiak)	Enpresak	100	20,4	228	46,4	163	33,2	491	100
	Baimenak	100	20,4	228	46,4	163	33,2	491	100
Guztira EAEn	Enpresak	962	15,4	3.272	52,3	2.022	32,3	6.256	100
	Baimenak	2.283	14,6	7.405	47,3	5.960	38,1	15.648	100

Iturria: Sustapen ministerioa.

Garraio komertzialarekin lotuta, Bizkaian daude enpresen erdiak baino gehiago eta EAEn merkantziak garraiatzeko 2 baimenetik ia 1. Hau da, 3.272 sozietate (% 52,3) eta 7.405 lizentzia (% 47,3) daude. Zama garraiatzen duten Gipuzkoako enpresek eta horien baimenek euskal ekonomiako enpresen eta baimenen herena gainditzen dute. Izan ere, 2.022 enpresa (% 32,3) eta 5.960 baimen (% 38,1) daude Gipuzkoan. Araban, merkantzien garraiora bideratutako 962 enpresa

daude erregistratuta (% 15,4), eta horiek 2.283 lizentzia dituzte lotuta, hau da, Euskadin izakinak garraiatzeko emandako baimenen % 14,6.

1.5. taula Bidaiarien eta salgaien garraiorako enpresen eta baimenen bilakaera EAEn. 2016-2022

		EAE								
		2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	Δ 22/16	Δ 22/21
Bidaiarien garraioa	Enpresak	2.405	2.307	2.355	2.347	2.383	2.356	2.136	-11,2	-9,3
	Baimenak	5.107	5.306	5.339	4.816	4.911	5.015	4.902	-4,0	-2,3
Salgaien garraioa	Enpresak	6.559	6.643	6.170	6.340	7.631	6.159	6.256	-4,6	1,6
	Baimenak	14.782	15.492	14.772	15.699	17.540	15.709	15.648	5,9	-0,4
Guztira EAEn	Enpresak	8.964	8.950	8.525	8.687	10.014	8.515	8.392	-6,4	-1,4
	Baimenak	19.889	20.798	20.111	20.515	22.451	20.724	20.550	3,3	-0,8

Iturria: Sustapen ministerioa


Urte arteko bilakaerak erakusten duenez, bidaiariak garraiatzen dituzten enpresen kopurua murriztu egin zen 2022an, eta 2021ean baino 220 sozietate gutxiago zeuden (-% 9,3). Gainera, 113 baimen gutxiago eman zituzten (2021arekiko -% 2,3). Merkantzien garraioari dagokionez, aurreko urtean baino 97 enpresa gehiago zeuden erregistratuta (+% 1,6), eta 61 lizentzia gutxiago esleitu ziren (-% 0,4). 2016-2022 aldiko aldakuntza aztertuz gero, pertsonak garraiatzen dituzten enpresen kopurua murriztu egin zen: 269 unitate gutxiago (-% 11,2). Bestetik, 205 ibilgailu gutxiagok zuten lizentzia (2016arekiko -% 4). Zamaren garraioari dagokionez, 303 enpresa desagertu ziren (-% 4,6). Aldiz, 866 baimen gehiago erregistratu ziren (2016arekiko +% 5,9).

c) Laneko kostua

Hurrengo atalean, garraio-jardueraren baitako azpisektoreetako langile bakoitzeko hileko laneko kostua eta ekonomia osoko (lehen sektorea izan ezik) langile bakoitzeko hileko batez besteko laneko kostua alderatuko ditugu. Hala, garraio-sektorearen eta ekonomia osoaren arteko ezberdintasunak hartuko ditugu aintzat.

EINen laneko kostuaren hiruhilekoko inkestatik (LKH) ateratako informazioa hartu dugu oinarritzat kalkuluak egiteko. Urteko batez besteko datuak eurotan adierazita daude, eta aipatutako erakunde estatistikoak argitaratutako hiruhilekoko balioen batezbestekoak dira. Azterketa Estatu mailan egin dugu; izan ere, kasu horretan bakarrik lor dezakegu EJNS-09ko dibisioekin lotutako informazioa eta, horri esker, garraioaren azpisektoreekin lotutako informazioa lor dezakegu.

2022an, garraio-jarduerarekin lotutako azpisektore guztietan hobetu zen langileen batez besteko laneko kostua, aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Hortaz, askotariko jarduera-adarretako langileen batez besteko hileko soldata handiagoa izan zen ekonomia osoan ordaindutako batez besteko kostua baino. Laneko kostuan hazkunde handiena izan zuten sektoreko jardueraren dibisioak honako hauek izan ziren: aireko garraioa (2021arekiko +% 28,4) eta itsaso eta barneko bide nabigagarrien bidezko garraioa (+% 7,3). Horiek izandako hazkunde handiagoa izan zen ekonomia osoko batez besteko kostuarena baino. Soldata-igoera baxuagoak izan zituzten biltegitratzea eta garraioari atxikitako jarduerak (+% 3,9) eta lurreko eta hodi bidezko garraioak (+% 3,8).



1.6. taula Lan-kostua langileko eta hilabeteko. Egoera. 2021-2022

	Laneko kostu osoa		Urtetik urterako aldaketa (%)
	2021	2022	
Ekonomia guztira (lehen sektorea kenduta)	2.724	2.838	+4,2
Lurreko garraioa eta hodi-sare bidezko garraioa	2.760	2.865	+3,8
Itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	2.936	3.150	+7,3
Aireko garraioa	3.379	4.340	+28,4
Biltegiatzea, eta garraioarekin uztartutako jarduerak	3.182	3.306	+3,9

Iturria: Kostuaren hiruhileko inkesta (LKHI), Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).

d) Prezioen bilakaera

2022an, kontsumo-prezioen indizeak % 3ko igoera izan zuen garraio-sektorean, 2021arekin alderatuta. Hortaz, hazkundera baxuagoa izan zen ekonomia orokorrean prezioek izandakoa baino (+% 5,4). Talde gehienek prezioen hazkundera handiagoa izan zuten garraio-sektoreak baino. Elikagaien eta alkoholik gabeko edarien kategorian (+% 15,1), etxeko tresneriaren kategorian (+% 8,6) eta alkoholdun edarien eta tabakoaren kategorian (+% 6,9) igo ziren gehien prezioak. Bi taldetan baino ez zuten egin behera prezioek: etxebizitza (-% 5,3) eta komunikazioak (-% 1,8).

1.7. taula EAEko KPI, taldeka. 2019-2022

Abenduko urte arteko aldakuntza

	2019	2020	2021	2022
Janaria eta edari ez-alkoholdunak	2,1	1,8	4,7	15,1
Edari alkoholdunak eta tabakoa	-0,2	-0,1	1,7	6,9
Jantziak eta oinetakoak	0,9	0,7	1,1	1,9
Etxebizitza	-5,2	0,2	24,1	-5,3
Etxeko tresneria	1,1	0,5	3,2	8,6
Medikuntza	1,3	0,1	1,3	0,8
Garraioak	5,7	-4,1	10,2	3,0
Komunikazioak	0,7	-4,0	-0,3	-1,8
Aisialdia eta kultura	0,6	-2,2	1,5	4,3
Irakaskuntza	1,4	0,4	1,6	1,9
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,8	1,0	3,0	6,3
Beste batzuk	1,5	0,8	2,3	4,6
Orokorra	1,2	-0,3	6,4	5,4

Iturria: EIN.

Laburpen
Exekutiboa 0

**Esparru
Orokorra 1**

Bilakaera
Orokorra 2

Errepide
Bidezko
Garraioa 3

Tren
Bidezko
Garraioa 4

Aire
Bidezko
Garraioa 5

Itxaso
Bidezko
Garraioa 6

Beste
Garraiobide
Batzuk 7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak 8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria 9

Funtsezko
Adierazleak 10

Eranskinak 11



Bilakaera Orokorra



2.

2. Bilakaera Orokorra

2.1. Euskadiko Garraio Sistemaren Deskribapen orokorra

Euskadiko garraio-sistema osatzen dute bide-sareko azpiegiturek, trenbide-sistemak, portu-sistemak, aireportu-sistemak, kable-sistemak eta garraio intermodalak. Hurrengo taulan, EAEko garraio-sarearen egituraren berezitasunak daude, azpiegituraren organo titularri eta zerbitzua emateko jarduten duen erakundeari dagokienez.


2.1. taula Garraio-sistema Euskadin

Sistema	Azpiegitura	Organo titularra	Erakundea / Operadorea
Bide-sistema	Errepideen sare orokorra	Foru-aldundiak	Garraio-zerbitzu publikoaren emakidaduna / mailegatzailerak Erabiltzaile partikularra.
	Hiriko sarea	Udalak	
	Autobidea *	Foru-aldundiak	
Trenbide-sistema	Europa barneko sarea Penintsulako sarea	Estatua	Adif eta Renfe
	Sare metrikoa	Euskal Autonomia Erkidegoa Estatua	ETS eta EuskoTren Adif eta Renfe Metrikoa
	Metroa/Tranbia	Euskal Autonomia Erkidegoa	ETS, Bilboko Metroa eta EuskoTren
	Zubi esekia	Bilboko Portu Agintaritza	Pribatua da
Portu-sistema	Interes orokorreko portuak	Estatua	Portu-agintaritza
	Autonomia-erkidegoetako portuak	Euskal Autonomia Erkidegoa	Euskal Autonomia Erkidegoa
Aireko sistema	Interes orokorreko portuak	Estatua	Aena
Kable-sistema	Igogailuak eta funikularrak	Euskal Autonomia Erkidegoa Foru-aldundiak Udalak	Pribatuak Publikoak
Garraio intermodaleko sistema	Garraio eta logistika zentroak	Partzuergoak / Erakunde publikoak, pribatuak, mistoak	Operadore logistikoak


* 2019an burutu da errepide-gaietako eskumenak Estatuko Administrazioetik EAera transferitzeko prozesua. AP-1 autobidearen eskualdatzea, hegoaldeko tartea Armiñon arte, 2018ko abenduan izan zen eta AP-68rena 2019ko apirilean. Ondoren, Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiei egin zitzaizkien eskualdatzea.

Iturria: Garraio Jasangarriaren 2030 Gidaplana

Hurrengo taulan ikus ditzakegu Euskadiko Garraio Sistemari buruzko ezaugarri esanguratsuenak.



Euskadiko Garraio Sistemaren deskribapena



- EAEko bide-sistemak 4.133 km-ko hedadura zuen 2021ean; horixe da eskuragarri dagoen azken datua. Edukiera handiko errepideen luzera (autobideak, autobiak eta erreie anitzeko errepideak) 628 km-koa da, Euskadiko errepide-sarearekiko % 15,2ko kuotarekin.
- 2019tik aurrera, bide-azpiegituren titulartasuna lurralde bakoitzeko foru-aldundiena da, Artxandako tunelena izan ezik (Bizkaiko Foru Aldundiaren sozietate emakidaduna). Urte horretan, Estatuko Administrazioetik EAERA errepideen arloan transferentziak egiteko prozesua amaitu zen. AP-1 autobidea, hegoaldeko Armiñonera doan zatia, 2018ko abenduan eskualdatu zen, eta AP-68 autobidearen transferentzia 2019ko apirilean egin zen. Ondoren, Bizkaiko eta Arabako foru-aldundiei eskualdatu zitzaizkien. A-8 autobidearen kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Bidegi eta Interbiak-en esku uzten dute, hurrenez hurren, haren ustiapenerako kudeaketa, eta Arabako Foru Aldundiak AP-1 autobidearen Arabako zatia Arabat sozietate publikoaren esku uzten du.
- Trenbide-sistemari dagokionez, azpiegituren administratzaileak Adif eta ETS dira. Bestalde, EAEn pertsonak eta salgaiak garraiatzeko zerbitzuak ematen dituzten agenteak Renfe (Adifen sare konbentzionaleko zein metrikoko operadorea) dira. Sare konbentzionaleko operadoreak probintzietako hainbat herri eta euskal hiriburuak lotzen ditu, eta Estatuko gainerako lurraldeekin lotzeko balio du. Sare metrikokoan, Bizkaiko mendebaldeko udalerriak lotzen ditu haien artean, eta Gaztela eta Leongo udalerriak eta Estatuko udalerriak lotzen ditu. Azken hauek dira: Euskotren, Gipuzkoako eta Bizkaiko hainbat udalerririk zeharkatzen dituzten hiriarteko zerbitzuaren eskaintza; Metro Bilbao, Bizkaiko hiriburuko hiri- eta metropoli-eremuko bidaiarien garraioaren zentratzen dena; eta EuskoTreneko tranbiak, Bizkaiko eta Arabako hiriburuaren hiri-eremua barne hartzen dutenak, Bilboko tranbiaren eta Gasteizko tranbiaren zerbitzuen bitartez.
- Beste alde batetik, Puente Vizcaya-Bizkaiko Zubia (Puente Vizcaya-Bizkaiko Zubia) ren jardueraren kudeaketa «Transbordador de Vizcaya SL» sozietatearen ardura da.
- Azkenik, prestazio handiko euskal trenbide-sare berria eraikitzeak – Euskal Y izenez ezagunagoa – EAEko egungo trenbide-azpiegituren mapa osatuko du etorkizun hurbilean.
- Estatuaren titulartasuna duten bi portuak osatzen dute EAEko portuen sistema, Bilboko Portuak eta Pasaiako Portuak; EAEko bi merkataritza-portu nagusiak dira, eta interes orokorrekoak diren bakarrak. Horrez gain, erkidegoko portuek ere osatzen dute portuen sistema (guztira 15: Bizkaian 8 eta Gipuzkoan 7). Azken horiek EAEko Administrazioari helarazi zitzaizkion Estatuko Administrazioak, maiatzaren 14ko 2.380/1982 Errege Dekretuaren bidez, eta Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak dira.
- EAEko aire-sistema Bilbo, Donostia eta Gasteizko aireportuetako aire-azpiegiturek osatzen dute, guztiak ere Estatuaren titulartasunekoak eta Aenak kudeatutakoak.
- Honako funikularrek osatzen dute pertsonak bakarrik erabil dezaketen Euskadiko kable bidezko garraio-sistema: Artxanda, Larreinetak, Mamarigak eta Igeldo. Azpiegitura guztiak Bizkaiko lurralde historikoan daude, Igeldoko funikularra izan ezik; Donostian dago hori.
- Azkenik, garraio-sistemaren egitura hainbat operadore logistikorekin osatzen da Euskadin, eta horien helburua salgaien garraioaren eraginkortasuna bultzatzea da: Aparkabisa Bizkaian, Zaisa Gipuzkoan eta CTVi eta Arasur Araban.

2.2. Euskadiko mugikortasun orokorraren azkenaldiko bilakaera


2.1.1. Pertsonen garraioaren magnitude nagusiak Euskadin

a) EAE

“2021eko EAEko Mugikortasunaren Azterlana” lanean argitaratutako informazioaren arabera, EAEko biztanleek, batez beste, 6.500.277 joan-etorri egiten dituzte lanegun batean. Horrek esan nahi du 7 urteko edo gehiagoko biztanle bakoitzak, batez beste, 3,1 bidaiak egiten dituela egunean (biztanle bakoitzeko 3,33 bidaiak 2016an).

2.1. grafikoa Pertsonen mugikortasuna EAEn, eremuaren arabera: Laburpen-mapa¹. 2021.

(joan-etorriak/eguneko)



1 EAEn bizi direnei dagokie.

Iturria: EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2021.

2021ean Euskadiko biztanleek izandako mugikortasunaren eremuari dagokionez, nabarmentzekoa da eguneroko joan-etorrien % 98,8k EAEn zutela jatorria eta helmuga. Zehazki, joan-etorrien % 90,2 lurralde historiko beraren baitakoak izan ziren, % 8,6 lurraldeen artekoak eta, gainerako % 1,2a, EAEtik kanpo hasi edo amaitzen ziren bidaiak.

“2016ko EAEko Mugikortasunaren Azterlana” lanean argitaratutako datuekin alderatuta, EAEko mugimenduen guztizkoa % 3,1 murriztu da (6.705.864 joan-etorri egin ziren 2016an). Euskadiren


Euskadiko Garraioaren Panoramika

barruan egindako joan-etorriek guztizkoak adinako jaitsiera izan zuten (-% 3,1). Zehazki, lurralde barneko mugimenduak % 8,9 jaitsi ziren. Aitzitik, lurraldeen arteko joan-etorriak hirukoiztu egin ziren. Azkenik, EAETik kanpo hasten edo amaitzen diren bidaiak % 3,5 murriztu ziren.

Intermodalitateari dagokionez, EAEn egindako joan-etorri ia guztiak etapa bakarrekoak izan ziren (% 98,1). Hala ere, etapa bakarreko bidaiak ehuneko 1 puntu murriztu ziren 2016arekiko.

Joan-etorrien arrazoen artean, EAEko biztanleen bidaien % 43,7 mugikortasun okupazionalaren baitan kokatu ziren, lan- eta ikasketa-arrazoiengatik bidaiak barne. Ehuneko hori 2016koaren ia berdina izan zen (% 43,8). Mugikortasuna eragin zuen bigarren arrazoa aisialdia izan zen: bidaien % 21,4 (ehuneko -4,9 puntu 2016arekiko). Aisialdiaren azken urteetako joera gorakorra eten egin zen hala, Covid-19aren pandemiaren eraginez mugikortasunak izandako aldaketan ondorioz. Hirugarren arrazoa erosketak izan ziren: joan-etorrien % 11,1 izan ziren arrazoi horrek eragindakoak (ehuneko +1,6 puntu 2016arekiko).

2.2. grafikoa EAEko pertsonen mugikortasunaren banaketa 2011-2016 aldira, arrazoiaren arabera (%).



¹ Lanak barne hartzen ditu laneko kontuak eta ohiko lana.

² Erosketek barne hartzen dituzte etxeko erosketak eta erosketak pertsonalak.

³ Kudeaketa pertsonalek barne hartzen dituzte kudeaketa pertsonalak, familia eta mediku arlokoak.


Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016 eta EAEko Mugikortasunaren azterlana 2021.

EAEko biztanleek mugitzeko erabilitako garraiobideak aztertuta, joan-etorrien % 42,4 oinez egin zirela ikus daiteke; hori izan zen EAEko biztanleek erabilitako modu nagusia (2016an % 47,1). Ibilgailu pribatuaren (autoa eta motorra) erabilera igo egin zen, % 40,6ra (2016an % 36,4). Autoak jarraitu zuen bigarren garraiobide nagusia izaten, eta joan-etorri guztien % 39,8koa izan zen haren kuota.

Garraiobide motorizatu kolektiboari dagokienez (autobusa, trena, hegazkina eta itsasontzia), joan-etorrien % 12,9 egokitu zitzaizkien 2021ean; 2016an % 13,3. Ibilgailu pribatuaren areagotzeak eragin du garraio publikoaren ehuneko pisua jaitsi izana.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra**
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak


2.3. grafikoa EAEko pertsonen mugikortasunaren banaketa 2016-2021 aldian, garraiobidearen arabera (%).



Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016 eta EAEko Mugikortasunaren azterlana 2021.


2022an, autobus eta tren bidezko garraio kolektiboaren zerbitzu publikoetako bidaiari kopurua % 20,4 igo zen 2021ean erregistratutako zifrarekiko. Hala, 242,2 milioi bidaiari baino gehiago izan ziren. Hiri barruko joan-etorrietan, bidaiariak 60 milioitik gorakoak izan ziren; % 15,5eko hazkundera izan zuten 2021eko datuekin alderatuta. Trenbide-sarean, hiriguneen barruko mugikortasuna 89,6 milioi pertsonakoa izan zen, hau da, aurreko urtean baino % 20,2 gehiagokoa. Hiriarteko eremuan, autobus-zerbitzu erregularrak 50 milioi bidaiari baino gehiago lekualdatu zituen, 2021ean baino % 19,8 gehiago, eta treneko mugikortasuna 42,5 milioi pertsonara hurbildu zen, 2021ean baino % 29,4 gehiago.

Garraio kolektiboaren bilakaera aztertzen badugu, aztertutako eremu geografikoko eskaintzaren ikuspegi orokorra hartu behar dugu kontuan; izan ere, azpiegitura berriak abian jartzeak bi ondorio ditu: alde batetik, garraio kolektiboko eskari berriak asebetetzea eta, bestetik, egindako joan-etorrietan aldaketa modala egitea. Horrek guztiak ez dakar berekin garraio publikoaren eskaintza gutxitzea.



2.4. grafikoa Errepide eta tren bidezko garraibide publikoetako zerbitzu publikoetan, guztira, bidaiariak izandako bilakaera. 2000-2022.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra**
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraibide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



¹ Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba buruzko “hiriarteko BUS”-aren datuek hiru aldundietako bakoitzaren emakidek autobus bidez egindako mugimenduak jasotzen dituzte (lurralde barrukoak zein beste bi lurraldeetako udalerrietara egindakoak).


¹ Bizkaiko “hiriarteko BUS”-aren datuek A-3700 Bilbo/Gasteiz emakidako lineak jasotzen dituzte 2009tik. Gaur egun, ez dago aurreko urteetako daturik eskuragarri.

² Bizkaiko hiriarteko trenari buruzko datuetan, ez dira kontuan hartu Larreinetako funikularreko bidaiariak. Iturria: GIS-Garraioari buruzko Informazio Sistema (OTEUS).

Joan-etorrien banaketa generoaren arabera aztertuta, hainbat garraibideren erabilera aldeak daude gizonen eta emakumeen artean. “2021eko EAEko Mugikortasunaren Azterlana” lanean argitaratutako emaitzen arabera, emakumeek motorizatu gabeko garraibideetan egiten dituzte bidaia gehienak (emakumeen % 50,2k eta gizonen % 38,6k). Gizonak, berriz, ibilgailu pribatuz mugitzen dira, batez ere (gizonen % 48 eta emakumeen % 31,4). Denboran zeharreko konparaketa eginda, autoaren erabilera igo egin dela ikus daiteke. Izan ere, joan-etorrien % 39,8 autoz egin ziren 2021ean, eta % 35,2 2016an. Jasangarritasun gutxien duen mugikortasuna hazi egin dela esan nahi du horrek. Hazkunde hori emakumeen (2021ean % 31,4 eta 2016an % 28,2) zein gizonen (2021ean % 48 eta 2016an % 42,2) kasuan gertatu da.

2.5. grafikoa Joan-etorriak, garraibidearen eta sexuaren arabera. 2016-2021.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra**
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraibide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak




(*) Motorra barne

Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016 eta EAEko Mugikortasunaren azterlana 2021.

a) Lurralde mailako banaketa

Euskadiko biztanleriaren mugikortasunaren ezaugarriak antzekoak dira hiru lurralde historikoetan, baina badira berezitasunak, ez direlako berdinak orografia, biztanleriaren lurraldekako banaketa, mugikortasun-beharrak eta garraio kolektiboaren eskaintza. Hori dela eta, azterketa xeheago bat egin behar da.

2.6. grafikoa EAEko pertsonen mugikortasuna eguneko bizileku duten lurraldearen arabera. 2016-2021.




Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016 eta EAEko Mugikortasunaren azterlana 2021, EUSTAT.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra**
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

EAEko biztanleen mugimenduak lurraldeen arabera aztertuta, 2021ean Bizkaiko biztanleek egin zituzten joan-etorri gehien (% 55,7); gipuzkoarrek egin zuten joan-etorrien ia heren bat (% 30) eta gainerako joan-etorriak (% 14,3) arabarrek egin zituzten.

2.7. grafikoa 7 urtetik¹ gorako biztanleko joan-etorriak. 2016-2021.



¹ 2016ko ekitaldiko datuak 6 urtetik gorako biztanleriarentzat dira.

Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016 eta EAEko Mugikortasunaren azterlana 2021, EUSTAT.

2016-2021 aldian joan-etorrien kopurua % 8,8 igo zen Bizkaian 2016arekiko. Aitzitik, joan-etorriak murriztu egin ziren Araban (-% 21,4) eta Gipuzkoan (-% 11,2), 2016arekiko. Biztanle bakoitzeko joan-etorrien kopurua jaitsi egin zen hiru lurralde historikoetan. Jaitsiera orokortu horrek zerikusia du Covid-19aren pandemiaren ondorioz ezarritako mugikortasun-murrizketekin.

2.8. grafikoa EAEko pertsonen mugikortasunaren banaketa lurraldeka 2016-2021 aldian, garraio bidearen arabera.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra**
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraio bide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



Grafikoa, motorra barne dago ibilgailu pribatuan.

Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016 eta EAEko Mugikortasunaren azterlana 2021.


Lurralde bakoitzaren barneko mugikortasunarekin lotutako alderdirik esanguratsuenen artean, nabarmentzekoa oinezko joan-etorriak gailentzen direla hiru lurraldeetan (% 41,6 Gipuzkoan, % 44,1 Araban eta % 50,3 Bizkaian). Lurralde bakoitzaren berezitasunei dagokienez, Gipuzkoan erabiltzen da gehien motor bidezko ibilgailu pribatua (bidaia guztien % 42,1) eta autobusa (% 9,5). Bizkaian pisu esanguratsua dute tren bidezko joan-etorriek (% 8,8), Bilboko Metroko bidaiarien trafiko handia dela eta. Araban, bizikleta bidezko joan-etorrien kuota adierazgarria da (Arabako biztanleek egindako bidaia guztien % 6,7).

2016ko datuekin alderatuta, motorizatu gabeko bitartekoek behera egin dutela ikus daiteke (oinez eta bizikletaz) Araban (ehuneko -11 puntu) eta Gipuzkoan (ehuneko -4,1 puntu); Bizkaian, berriz, gora egin dute (ehuneko +2 puntu).

2016 eta 2021 artean, EAEko hiriburuetan jatorria eta/edo helmuga zuten bidaiak, banakako ibilgailu motorizatuan eginak, jaitsi egin ziren Bilbon (ehuneko -3,8 puntu); Arabako eta Gipuzkoako hiriburuetan, berriz, igo egin ziren (ehuneko +14,6 eta +6,5 puntu, hurrenez hurren). Garraio kolektiboaren pisua murriztu egin zen Bilbon eta Donostian (ehuneko -1,4 eta -1,6 puntu, hurrenez hurren). Gasteizen, aldiz, handitu egin zen (ehuneko +1,4 puntu). Gipuzkoako eta Arabako hiriburuetan behera egin zuten motorizatu gabeko bidaiak, oinezkoek zein bizikleta bidezkoek.

2.9. grafikoa Joan-etorrien bilakaera, guztira (abiapuntua eta/edo xedea hiriburuetan). 2016-2021.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra**
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak





Iturria: "EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016" azterketarako egindako Mugikortasun Inkesta eta "EAEko Mugikortasunaren azterlana 2021" azterketarako egindako Mugikortasun Inkesta.

¹Etapabaino gehiagoko moduan garraio motaz aldatzea dakarten joan-etorriak (adibidez, autobusa-trena) edo garraio motaz aldatzea ez dakartenak (autobusa-autobusa) hartzen dira aintzat. 2011n baino lehen egindako inkestetan, etapa baino gehiagoko lekualdatzea bada (garraio-mota aldatu ala ez), lekualdatzea lehen garraio-motan zenbatzen zen.

EAEko hiriburu bakoitzeko barne-mugimenduei dagokienez, Gasteizen behera egin zuten oinezko joan-etorriek (ehuneko -11,6 puntu 2016arekiko), eta gora egin zuten motor bidezko ibilgailu pribatuen bidezko joan-etorriek (ehuneko +9,8 puntu). Gipuzkoako hiriburuan murriztu egin ziren oinezko bidaiak (ehuneko -0,6 puntu) eta autoaren erabilera (ehuneko -1,6 puntu); garraio publikoa, berriz, areagotu egin zen (ehuneko +1,1 puntu). Azkenik, Bilboko biztanleen artean hazi egin ziren oinezko joan-etorriak, eta behera egin zuten garraio publikoan egindako bidaiak.

2.10. grafikoa Hiriburuen barneko joan-etorrien bilakaera (abiapuntua eta xedea hiriburu berean). 2016-2021.



Iturria: “EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016” azterketarako egindako Mugikortasun Inkesta eta “EAEko Mugikortasunaren azterlana 2021” azterketarako egindako Mugikortasun Inkesta.

¹Etapa bat baino gehiagoko moduan garraio motaz aldatzea dakarten joan-etorriak (adibidez, autobusa-trena) edo garraio motaz aldatzea ez dakartenak (autobusa-autobusa) hartzen dira aintzat. 2011n baino lehen egindako inkestetan, etapa bat baino gehiagoko lekualdatzea bada (garraio-mota aldatu ala ez), lekualdatzea lehen garraio motan zenbatzen zen.

2.1.2. Euskadiko merkantzien garraioko magnitude nagusiak

EAEko merkantzien bolumenak barne hartzen ditu garraiobideen operadoreek emandako zifrak, Sustapen Ministerioak egindako “Merkantzien Garraioari buruzko Inkesta Iraunkorraren” informazioa eta “EAEko garraio-eskariaren irudia. 2021”⁵ azterlanaren informazioa; azken horren arabera, errepidez garraiatzen diren tonen % 30⁶ dagokio iragaitzazko lurreko garraioari.

2022an, EAEko salgaien trafikoa 188,6 mila tonara hurbildu zen, hau da, % 0,8 hazi zen 2021arekin alderatuta. Trafiko motaren arabera banaketari dagokionez, zamaren % 79,5 errepidez garraiatu zen; produktuen % 19,4, itsasoz, eta % 1,1, berriz, trenez.

⁵ Merkantzien trafikoari buruzko datuak 2021ari dagozkio. “EAEko Garraio Eskariaren Irudia. 2021. urtea” (<https://www.euskadi.eus/dokumentazioa/2023/eaeko-garraio-eskariaren-irudia-2021-urtea/web01-s2ing/eu/>)

⁶ 2021ean % 30ekoa zen errepideko iragaitzazko trafikoaren pisua, inkesta lokarriaren informazioaren arabera eta “EAEko garraio-eskariaren irudia. 2021. urtea” azterlanean jasotzen den informazioaren arabera.

2.2. taula Salgaien banaketa garraio motaren arabera. 2020-2022.

	2020 ¹		2021 ²		2022 ²	
	Errepidea	%	Errepidea	%	Errepidea	%
Errepidea	111.126,6	76,1%	150.034,5	80,2%	150.010,0	79,5%
▪ Barnekoa	42.995,0	29,4%	47.544,3	25,4%	47.829,0	25,4%
▪ Abiapuntua /Xedea	50.907,0	34,8%	57.634,7	30,8%	57.178,0	30,3%
▪ Zirkulazioan ¹	17.224,6	11,8%	44.855,5	24,0%	44.789,0	23,8%
Trenbidea	1.950,2	1,3%	2.011,6	1,1%	1.996,4	1,1%
Airekoa	64,7	0,0%	73,0	0,0%	74,3	0,0%
Itsasokoa ³	32.973,0	22,6%	35.023,3	18,7%	36.503,5	19,4%
GUZTIRA	146.114,5	100,0%	187.142,5	100,0%	188.584,2	100,0%

¹ Iragaitzako garraioa, "EAEko garraio-eskariaren irudia. 2016. urtea" azterlaneko datuetan oinarrituta kalkulatua.

² Iragaitzako garraioa, inkesta lokarritik ateratako informazioan oinarrituta kalkulatua, "EAEko garraio-eskariaren irudia. 2021. urtea" azterlanean jasotzen den moduan.


³ Bilboko, Pasaiako eta Bermeoko portuetako datuak sartuta daude.

Iturria: Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkesta, Sustapen Ministerioa, Renfe, EuskoTren, Aena, Bilboko Portuko Agintaritza, Pasaiako Portuko Agintaritza, Eusko Jaurlaritza.

Garraibideek mugitutako kargaren aldakuntzari erreparatuta, 2022an, salgaien itsas eta aireko trafikoak gora egin zuen (+% 4,2 eta +% 1,8, 2021aren aldean, hurrenez hurren), tren bidezko garraioaren fluxua murriztu egin zen (-% 0,8) eta errepideko garraioa, berriz, mantendu. Errepidez garraiatutako zamari dagokionez, produktuen barne-mugimenduak % 0,6 hazi ziren aurreko ekitaldiarekin alderatuta; aitzitik, jatorria edo helmuga EAEn duten salgaien bolumena % 0,8 murriztu zen eta iragaitzako trafikoa % 0,1 jaitsi zen.

Salgaien garraioaren banaketa modalari dagokionez, EB-27ko herrialde guztien eta EAEn artean desberdintasun nabarmenak daude. Hala, argitaratutako azken datuen arabera, 2021eko ekitaldiari dagokionez⁷, errepidez garraiatutako produktuen bolumenak pisu handiagoa zuen Euskadin Europan baino (% 80,2 eta % 55,7, hurrenez hurren). Garraio-sistema jasagarriek, itsaso eta tren bidezkoek, kuota handiagoa izan zuten EB-27n (% 32 eta % 12,3, hurrenez hurren), EAEn baino (% 18,7 eta % 1,1, hurrenez hurren).

⁷ Eskuragarri dagoen azken datua 2021koa da, eta Statistical Pocketbook 2023an argitaratu zen.



2.11. grafikoa Salgaien garraioaren banaketa modala. 2021 (%).



¹ Errepideko iragaitzak garraioa, inkesta lokarritik ateratako eta " EAEko garraio-eskariaren irudia 2021" azterlanean jasotako informazioaren arabera kalkulatuta.

² 2021ko azken datu erabilgarria. Itsas garraioan kontuan hartzen dira barruko bide nabigagarriak.

Iturria:Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkesta, Sustapen Ministerioa, Feve (2013tik aurrera Renfek zabalera metrikoko sarean jarduten du), EuskoTren, Aena, Bilboko Portuko Agintaritz, Pasaiaiko Portuko Agintaritz, Eusko Jaurlaritz eta EU Energy and Transport in Figures, Statistical Pocketbook 2023.

Datu horiekin lotuta, azpimarratu beharrekoa da errepidez garraiatzen diren merkantziak ingurumenean aztarna txikiagoa uzten duten garraiobideetara (esaterako, itsaso edo tren bidezkoa) igarotzea ahalbidetzen duten ekintzen garapenaren alde egiten dutela EAEko administrazio publikoek. Neurri horiek, beste elementu batzuekin batera (esaterako, ezarritako murrizketak), 2006⁸ eta 2022 aldian itsas garraioa 0,5 puntu handitzea sustatu dute, baita errepidez garraiatutako tonen bolumena murriztea ere. Hala ere, errepide bidezko garraioak salgaien guztizko trafikoan duen kuota 1,3 puntu igo da 2006tik.

⁸ EAEko garraio eskaeraren irudia. 2006. urtea

[https://www.euskadi.eus/web01-](https://www.euskadi.eus/web01-a2oteus/eu/contenidos/documentacion/imagen_demanda_transportes/eu_def/imagen_demanda_transportes.html)

[a2oteus/eu/contenidos/documentacion/imagen_demanda_transportes/eu_def/imagen_demanda_transportes.html](https://www.euskadi.eus/web01-a2oteus/eu/contenidos/documentacion/imagen_demanda_transportes/eu_def/imagen_demanda_transportes.html)



Errepide bidezko Garraioa



3.

3. Errepide bidezko Garraioa

3.1. Errepide bidezko garraioaren eskaintza Euskadin

Sustapen Ministerioaren 2021eko Estatistika Urtekariaren arabera (argitaratutako azken datua), EAEko errepide-sareak 4.133 km-ko luzera du. Hortaz, luzera % 0,1 jaitsi da 2020tik (-4 kilometro). 2019az geroztik, lurralde historikoen Foru Errepide Sarearen Katalogoan sartuta dago EAEko errepide-sistema osoa.

2021ean, edukiera handiko bideek (barne hartzen ditu autobideak, autobiak eta errei anitzeko errepideak) guztizkoaren gainean zuten kuota % 15,2an mantendu zen. Estatu mailan, galtzada bat baino gehiago dituzten errepideek % 10,6ko pisua dute errepide nazionalen guztizkoaren gainean, EAEn baino txikiagoa. Europan, EB-27ko bideen guztizko luzeraren % 20,1 dira autobideak, autobiak eta errei anitzeko errepideak.

EAEko bide-egituren dentsitatea 571,4 m/km²-koa da, Europako sisteman (440,1 m/km²) eta estatuan (327,9 m/km²) erregistratutakoa baino handiagoa.


3.1. taula Errepide-sarearen luzera eta dentsitatea. EAE, Estatu eta EB-28. 2019-2021.

Errepide mota	2019		2020		2021	
	Luzera (km)	Dentsitatea (m/km ²) ¹	Luzera (km)	Dentsitatea (m/km ²) ¹	Luzera (km)	Dentsitatea (m/km ²) ¹
EAE						
Ordainpeko autobideak	249	34,4	249	34,4	249	34,4
Doako autobideak, autobiak, bide anitzeko errepideak	379	52,4	379	52,4	379	52,4
Errei bakarreko errepideak	3.514	485,7	3.509	485,0	3.505	484,6
Guztira	4.142	572,5	4.137	571,8	4.133	571,4
ESTATUA						
Ordainpeko autobideak	2.997	5,9	2.530	5,0	2.039	4,0
Doako autobideak, autobiak, bide anitzeko errepideak	14.391	28,5	14.912	29,5	15.526	30,7
Errei bakarreko errepideak	148.082	293,0	148.331	293,2	148.370	293,2
Guztira	165.470	327,4	165.773	327,6	165.935	327,9
EB-28						
Autobideak	77.866	17,4	74.502	17,6	74.862	17,7
Errepide nagusiak edo nazionalak	320.059	71,6	270.908	64,1	298.942	70,8
Bigarren mailako edo eskualde mailako errepideak	1.502.215	336,1	1.466.504	347,1	1.485.757	351,6
Guztira	1.900.140	425,1	1.811.913	428,8	1.859.561	440,1

¹ Errepide-sarearen luzeran (m) eta EAEren, Espainiako estatuaren edo EB-28ren azalera (km²) oinarrituz kalkulatu da.


Iturria: Sustapen Ministerioa, EIN, EU Energy and Transport in Figures. Statistical Pocketbook 2023, International Road Federation.

EAEko hiriburuetan eskuragarri dagoen hiri-garraio publikoaren eskaintzaren ezaugarriak dagokienez, 2022an Bizkaiko hiriburuan 141 autobuseko flota zuen Bilbobusek, eta horiek 720,7 km egiten zituzten (2021ean baino -% 0,4 gutxiago), 45 lineatan banatuta. Donostian, 141 autobuseko parkea zuen Dbusek (2021arekiko -% 1,4), eta 41 linea, 279 km-ko luzerarekin. Gasteizen, Tuvisak



Euskadiko Garraioaren Panoramika

(Transportes Urbanos de Vitoria, S.A.) 15 linea ditu, 271,8 km-ko luzerarekin (+%15,2 2021arekin alderatuta), eta 90 autobus igarotzen dira bertatik (aurreko urtean baino 5 ibilgailu gehiago).



3.2. taula EAEko hiriburuetakako hiri-garraioaren eskaintza publikoaren ezaugarriak. 2020-2022.


	2020	2021	2022	Δ % 21/22
BILBO				
Sareko lineak ¹	45	45	45	0,0
Luzera (km) ¹	685,3	723,7	720,7	-0,4
Autobusen parkea	141	141	141	0,0
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN				
Sareko lineak ¹	41	41	41	0,0
Luzera (km) ¹	270	279	279	0,0
Autobusen parkea	139	142	140	-1,4
VITORIA-GASTEIZ				
Sareko lineak ¹	15	15	15	0,0
Luzera (km) ¹	203,5	236	271,8	15,2
Autobusen parkea	85	85	90	5,9
GUZTIRA				
Sareko lineak ¹	101	101	101	0,0
Luzera (km) ¹	1.159,8	1.238,7	1.271,5	2,6
Autobusen parkea	365	368	371	0,8

¹ Sartuta daude eguneko eta gaueko zerbitzu erregularrak.

Iturria: Tuvisa, Bilbobus eta DBus.

Garraio pribatuaren kasuan, Trafiko Zuzendaritza Nagusiak argitaratutako datuen arabera, 2022an 1.410.822 ibilgailuk osatzen zuten EAEko parke mugikorra: aurreko ekitaldian baino % 0,5 gehiago.

3.1. grafikoa EAEko ibilgailuen parkea. 2022.




Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.

Ibilgailuen banaketa kategorien arabera aztertuta, EAEko ibilgailuen parkea osatzen duten auto gehienak bi taldetan sailkatzen dira, eta horiek EAEko guztizkoaren % 84,7 hartzen dute. Lehenik, turismoak dira EAEko ibilgailu-parkearen % 72,4 eta, bigarrenik, kamioiak eta furgonetak dira % 12,3. 2022an aldakuntza positiboa izan zuten ibilgailu mota guztiak, kamioiek eta furgonetek izan

ezik. Horiek % 0,4 murriztu ziren aurreko urtearekin alderatuta. Motozikletek eta autobusek izan zuten hazkunderik handiena (+% 4 eta +% 2,9, hurrenez hurren).

3.2. grafikoa Ibilgailuen parkearen banaketa EAEn. 2022.





Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.

Jarraian, Europako herrialde bakoitzaren motorizazio-indizea erakusten da, modu grafikoan; hau da, mila biztanleko turismo-ratioa, EB-27n, Europako Merkataritza Askearen Elkarteko beste herrialde batzuetan eta EBko kideak izateko hautagaiak diren herrialdeetan. 2021ean (Eurostaten azken argitalpena), EFTAko bi herrialde kokatu ziren ratio handiena zuten herrialdeen rankingaren buruan: Liechtenstein eta Islandia (777 eta 768 turismo mila biztanleko, hurrenez hurren). Zerrendako azkena, berriz, Turkia izan zen: 162 turismo, mila biztanleko. Herrialde hauetan igo zen gehien motorizazio maila: Mazedonia (+% 25,6), Albania (+% 11,5), Kroazia (+% 7,4) eta Moldavia (2020arekiko +% 6,6). Horiek guztiak EBn sartzeko hautagaiak dira, Kroazia salbu. Biztanle kopuruarekiko autoen dentsitateak behera egin zuen Bosnia-Herzegovinan (-% 0,3), Irlandan eta Herbehereetan (-% 0,2) eta Luxenburgon (-% 0,1).

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 **Errepide Bidezko Garraioa**
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

Euskadiko Garraioaren Panoramika

3.3. grafikoa Motorizazio-indizea Europar. 2021-2020.



¹ Statistical Pocketbook 2023etik datozen Europako herrialdeen azken datuak 2021koak dira.

²Europako Merkataritza Askearen Elkarteko (EFTA - European Free Trade Association) herrialdeak.

³ EBko herrialde hautagaiak

Iturria: eu Energy and Transport in Figures, Statistical Pocketbook 2022, Trafiko Zuzendaritza Nagusia eta EIN.

EAEEn, mila biztanleko 460 turismokoa zen motorizazio maila (2020arekiko -% 0,1), eta hogeita zazpigarren postuan kokatu zen Europan (22. postuan, EB-27ko herrialdeen artean). Lurralde historikoei dagokienez, Arabak erregistratu zuen ibilgailuen kontzentrazioirik handiena: 481 turismo, mila biztanleko. Gipuzkoa izan zen hurrengoa, mila biztanleko 460 autorekin (EAEko maila bera), eta hurrengoa Bizkaia, non 455 auto dauden 1.000 bizkaitarreko. Estatuan, mila pertsonako 525 autokoa da ibilgailu motorizatuen tasa, hau da, EAEko hiru lurralde historikoetan erregistratutakoa baino handiagoa.

2022an, mila biztanleko 460,4 auto zeuden EAEEn, 2021ean baino % 0,13 gutxiago. Lurraldeen arabera, Arabako motorizazio maila murriztu egin zen, mila biztanleko 476,9 turismora (-% 0,9). Gipuzkoan, ibilgailuen dentsitatea apur bat jaitsi zen, eta mila biztanleko 459,5 unitatetan geratu zen (-% 0,09). Bizkaian, berriz, apur bat igo zen, mila biztanleko 456 turismora (+% 0,08).

3.2. Pertsonen errepideko mugikortasuna Euskadin


a) Ibilgailu pribatu bidezko mugikortasuna

Autoa joan-etorri pribatuetarako erabiltzeari dagokionez, nabarmentzekoa da turismoen joan-etorriek 2000. urteaz geroztik izandako igoera. Izan ere, 2000. urtean mila biztanleko 391 turismokoa zen motorizazio-indizea, eta 2022an 460koa.

2016-2021 aldian, ehuneko 1,5 puntu hazi zen EAEko auto kopurua. Lurralde historikoaren arabera, Araban eta Gipuzkoan gora egin zuen autoaren erabilera (ehuneko +8,7 eta +3,4 puntu, hurrenez hurren); Bizkaian, berriz, behera egin zuen (ehuneko -1,3 puntu). Gipuzkoan erregistratu zen autoaren erabilerarik handiena (% 40,1); Araba izan zen hurrengoa, bigarren postura igo baitzen (% 38,7), eta, azkenik, Bizkaia kokatu zen (% 30,9).


Azken hamarkadan (2011-2021), ibilgailu pribatuaren erabilera ehuneko 1,6 igo da, Araban eta Gipuzkoan autoz egindako bidaiek izandako gorakadaren ondorioz (ehuneko +7,1 eta +2,9 puntu, hurrenez hurren), Bizkaian behera egin baitzuen apur bat (ehuneko -0,2 puntu). Azterketa 2007-2021 aldira zabaldua, autoen erabilera ehuneko 1,8 murriztu da Euskadi osoan. Lurraldeka, bilakaera ez da berdina izan. Gipuzkoan eta Araban igo egin da autoaren erabilera maila (ehuneko +0,4 eta +3,1 puntu), baina Bizkaian ehuneko 4,1 puntu egin du behera.

3.4. grafikoa Pertsonen mugikortasuna autoz. Autoaren erabilera. 2007-2021¹.



¹ Guztirakoa probintzia barneko lekualdatzeen batukaria da.


Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2007, EAEko Mugikortasunaren azterlana 2011, EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016, eta EAEko Mugikortasunaren azterlana 2021.



- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa**
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraio Bide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

Autoz egindako joan-etorrien lurralde eremuari begiratuta, EAEko zirkulazio osoko joan-etorrien % 35,8 udalerrri barrukoak izan ziren, eta % 25,5 eskualde barrukoak. Gainerakoak horrela banatu ziren: lurraldearteko bidaiak (% 18,5), lurralde barnekoak (% 17,4) eta kanpora egindakoak (% 2,7). “2016ko EAEko mugikortasunaren azterketa” lanean jasotako datuei behatuta ikus daitekeenez, behera egin zuten udalerriko joan-etorriek eta eskualde barnekoek (ehuneko -2,9 eta -9,2 puntu, hurrenez hurren); lurraldearteko joan-etorriek, berriz, gora egin zuten (ehuneko +12,4 puntu). Lurralde historiko bakoitzaren barneko mugikortasuna mantendu egin zen; kanpora bideratutako zirkulazioa, berriz, ehuneko 0,4 puntu jaitsi zen 2016arekiko.

3.5. grafikoa Autoan egindako lekualdaketen banaketa lurralde-esparruaren arabera. 2016-2021.




Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016 eta EAEko Mugikortasunaren azterlana 2021.

“2021eko EAEko Mugikortasunaren Azterlana” lanean jasotako emaitzen arabera, EAEko hiriburuetara sartzeari buruzko datuei dagokienez, EAEko biztanleek egindako joan-etorri guztien % 48,7 honakoek osatzen dute: hiru nukleoetara egindako joan-etorriak, gehi hiri eremuko barne-mugimenduak. Autoaren erabilerari dagokionez, euskal hiriburuetara egindako bidaien edo hiri horien barruan egindako bidaien % 37,3 banakako ibilgailu motorizatuetan egiten dira. Hiriaren barneko joan-etorriak bakarrik kontuan hartzen baditugu, autoaren erabilera %23,2koa da; Euskadiko hiriburuetara egindako joan-etorrietan, berriz, %64,4koa.

Euskal hiriburu bakoitzaren barruko auto bidezko joan-etorriak aztertuz gero, banakako ibilgailu motorizatuetan egin ziren Gasteiz barruko bidaien % 35,5, Donostia barneko mugimenduen % 29,8 eta Bilbo barruko joan-etorrien % 10,9.

Euskal hiriburuetara kanpotik autoz sartzeari dagokionez, Bilbo da kanpotik ibilgailu pribatu motorizatu gehien sartzen zaizkion nukleoa: egunean 135.560 ibilgailu; Donostiara 125.517 ibilgailu iristen dira egunean eta, Gasteizera, alde apur batekin, 90.590 ibilgailu sartzen dira egunean.

3.6. grafikoa Kanpotik euskal hiriburuetara autoz egindako sarrerak. 2007-2021.



Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2007, EAEko Mugikortasunaren azterlana 2011, EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016, eta EAEko Mugikortasunaren azterlana 2021.

a) *Garraio kolektibo bidezko mugikortasuna*


Pertsonek garraio kolektiboan egiten dituzten joan-etorriei dagokienez, banaka aztertu behar dira operadore bakoitzaren erregistroak, garraio publikoko zerbitzua ematen duen eremu geografikoan. 2020an operadore guztien jardura jaitsi zen, COVID-19aren pandemiaren ondorioz ezarritako mugikortasun-mugak eta itxialdia zirela eta. 2022an, ordea, hazkunde handia izan zuen garraio kolektiboko erabiltzaile kopuruak. Dena den, ekitaldi horretan oraindik ere ez zen berreskuratu pandemiaren aurretik erregistratutako maila.

Garraio publikoaren kasuan, EAEko hiriburuetan bidaiariak garraiatzeko baimena duten hiru enpresa daude: Transportes Urbanos de Vitoria-Tuvisa (Gasteizen), DBus (Donostian) eta Bilbobus (Bilbon).

Arabako hiriburuan, Tuvisak 13 milioi joan-etorri erregistratu ditu, 2021ean bidaiatu zuten erabiltzaileek baino % 25,6 gehiago. Gasteizko bidaiariak EAEko hiri-autobusetako bidaiari guztien % 21,7 dira.


2022an, Dbusek pertsonen garraiorako ematen duen zerbitzu publikoak 25,5 milioi bidaiari garraiatu zituen Donostiako metropoli eremuan, hau da, 2021ean baino % 14,5 gehiago.

Bizkaiko hiriburuan, Bilbobusek 21,5 milioi hiritar garraiatu zituen 2022an, aurreko urtean baino % 11,1 gehiago.



3.7. grafikoa Hiriko garraio publikoa: EAEko hiriburuetakoko autobus-zerbitzu erregularren erabiltzaile kopuruaren bilakaera⁹. 1990-2022.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa**
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



Iturria: Tuvisa, Bilbobus eta DBus.

Hiriguneeen arteko garraioari dagokionez, hiru enpresak egiten dituzte pertsonen errepideko garraioak EAEn: Bizkaibus (Bizkaiko lurralde historikoan), Autobuses Interurbanos de Álava-AIA (Arabako lurralde historikoan) eta Lurraldebusek barne hartzen dituen eragileak (Gipuzkoan).

Gipuzkoako lurralde historikoan ia 22,8 milioi bidaiarik erabili zituzten Lurraldebusek zerbitzuak, 2021ean baino % 18,2 gehiagok. Hala, bezeroak berreskuratzen jarraitzen du, 2020ko jardueraren etenaren ondoren. Orduan, 9,8 milioi erabiltzaile galdu zituen, COVID-19aren pandemiaren ondorioz.

Bizkaian, Bizkaibusek bidaiarien garraio publikorako ematen duen zerbitzuak, A-3700 Bilbo/Gasteiz autobus-linearen kontzesioarekin batera, 26,7 milioi pertsona garraiatu zituen 2022an, aurreko ekitaldian baino % 20,9 gehiago. Datu hauek aztertzeke orduan, kontuan izan behar da Bilbo Handiko metropolian dagoen garraio publikoko zerbitzuen eskaintza osoa. Eremu horretan, azken urteetan asko hazi da garraio kolektiboaren eskaria.

Arabako lurralde historikoan, Autobuses Interurbanos de Álava – AIA operadoreak 617,1 mila bidaia erregistratu zituen, 2021ean baino % 34,9 gehiago. Hala, inoizko bezeroen erregistrorik handiena eskuratu zuen 2022an. Zifra horiek erakusten dutenez, Arabako hiriarteko autobusetako erabiltzaile kopurua askoz ere txikiagoa da gainerako bi lurraldeetako baino. Biztanleek lurraldean duten banaketa-eredua desberdina da, eta hori da aipatutako aldearen arrazoia. Izan ere, Araban, biztanleria hiriburuan kontzentratuta dago, eta, ondorioz, herrien arteko garraioaren eskaria txikiagoa da.

⁹ Datuak eranskinetako taulan kontsulta daitezke: “Hiriko garraio publikoa: EAEko hiriburuetakoko autobus-zerbitzu erregularren erabiltzaileak. 1990-2022.”

3.3. taula Hiriarteko garraio publikoa: hiriarteko autobus-zerbitzu erregularren erabiltzaileak. 2000-2022¹.

Urteak	Gipuzkoako gainerako probintzia		Bizkaiko gainerako probintzia ²		Arabako gainerako probintzia ³	
	bidaiariak, milakotan	Per. urteko Δ (%)	bidaiariak, milakotan		bidaiariak, milakotan	Per. urteko Δ (%)
2000	18.461,2	--	36.062,0	--	n.d.	--
2001	17.748,7	-3,9	38.535,9	6,9	145,5	--
2002	17.022,3	-4,1	35.115,4	-8,9	267,0	83,5
2003	16.712,0	-1,8	37.030,6	5,5	315,3	18,1
2004	16.626,6	-0,5	36.875,8	-0,4	439,2	39,3
2005	15.382,3	-7,5	34.134,2	-7,4	324,3	-26,2
2006	16.109,1	4,7	32.810,0	-3,9	374,0	15,3
2007	16.120,2	0,1	30.875,7	-5,9	349,3	-6,6
2008	17.199,1	6,7	30.195,5	-2,2	348,2	-0,3
2009	18.140,6	5,5	29.779,4	-1,4	421,0	20,9
2010	18.907,5	4,2	28.736,6	-3,5	516,4	22,7
2011	19.772,4	4,6	29.473,7	2,6	500,1	-3,1
2012	20.517,0	3,8	29.414,2	-0,2	495,0	-1,0
2013	21.121,0	2,9	29.252,8	-0,5	490,0	-1,0
2014	22.159,5	4,9	28.478,6	-2,6	446,7	-8,8
2015	22.920,6	3,4	27.286,7	-4,2	392,2	-12,3
2016	23.962,7	4,5	27.748,8	1,7	467,5	19,2
2017	24.436,0	2,0	28.515,4	2,8	544,3	16,4
2018	24.845,1	1,7	29.228,2	2,5	579,7	6,5
2019	25.295,0	1,8	30.468,3	4,2	590,0	1,8
2020	15.482,9	-38,8	18.383,7	-39,7	380,0	-35,6
2021	19.264,2	24,4	22.055,1	20,0	457,4	20,4
2022	22.763,1	18,2	26.667,4	20,9	617,1	34,9


¹ "Hiriarteko autobusari" buruzko datuek, Bizkaiari, Gipuzkoari eta Arabari buruzkoek, hiru aldundietako bakoitzaren emakiden autobus-mugimenduak jasotzen dituzte, lurraldearen barruan egindakoak nahiz beste bi lurraldeetako herrietara egindakoak.

² "Bizkaiako hiriarteko autobusaren" datuek, 2009. urtetik, Bizkaiko hiriarteko autobus datuek A-3700 Bilbao/Vitoria-Gasteiz emakida-lineak barne hartzen dituzte, eta gaur egun ez dago aurreko urteetako daturik.

BizkaiBus (TCSA, Enkartaciones, EAE, Pesa, EuskoTren, ADNOR eta Autobuses de Lujua) lineetan garraiatutako bidaiariak sartzen dira. Euskotren Bizkaibus sarean sartu zen 2002/12/1ean, ADNOR 2005/12/1ean eta Lujua 2006/11/1ean.

³ 2003tik 2006ra bitartean erabiltzaile kopuruan egondako gorabeherak linea batean izandako aldaketen ondorio dira nagusiki; Gasteiz eta Gorbeia merkataritza-gunea lotzen zituen linea horrek.

Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Arabako Foru Aldundia.



3.3. Merkantzien errepideko mugikortasuna Euskadin

0
Laburpen
Exekutiboa

1
Esparru
Orokorra

2
Bilakaera
Orokorra

3
Errepide
Bidezko
Garraioa

4
Tren
Bidezko
Garraioa

5
Aire
Bidezko
Garraioa

6
Itxaso
Bidezko
Garraioa

7
Beste
Garraibide
Batzuk

8
Ondorio
eta Joera
Nagusiak

9
Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

10
Funtsezko
Adierazleak

11
Eranskinak

Merkantzien Errepide Bidezko Garraioari buruzko Inkesta Iraunkorrek 2022ari buruz argitaratutako emaitzen arabera, EAEko errepideetan zehar garraiatutako merkantzia kantitatea aurreko ekitaldikoaren oso antzekoa izan zen: 105 miloi tona, 2021ean baino % 0,2 gutxiago.

EAEko barne-trafikoari dagokionez, 47,8 miloi tona merkantzia garraiatu ziren, 2021ean baino apur bat gehiago (% 0,6). Herriarteko trukeen igoerak (+% 6,4) eragin zuen aldakuntza positiboa. Izan ere, udalerrri bakoitzaren barruan mugitutako kargak aurkako bilakaera izan zuen, eta % 20,1 murriztu zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Eskualde arteko (jatorria edo helmuga EAE) produktuen garraioa egonkor mantendu zen (2021arekiko -% 0,2). Izan ere, beste autonomia-erkidego batzuetara bidalitako merkantzia kantitatea hazi egin zen (+% 3,2), baina beste eskualde batzuetatik jasotakoa murriztu egin zen (-% 3,2). Nazioartean, trukeen bolumena % 5 murriztu zen 2021arekiko, batez ere, inportazioen jaitsieraren eraginez (-% 10,1). Esportazioak apur bat baino ez ziren murriztu (-% 0,2).

3.4. taula Salgaien garraioa errepide bidez EAEn. Bilakaera. 2018-2022.

Joan-etorri mota	2018		2019		2020		2021		2022	
	Tonak milakotan	Urteko Δ %	Tonak milakotan	Urteko Δ %	Tonak milakotan		Tonak milakotan	Urteko Δ %	Tonak milakotan	Urteko Δ %
Eskualde arteko garraioa¹	44.490	1,4	45.954	3,3	42.995	-6,4	47.544	10,6	47.829	0,6
Udalerrri barnekoa	7.953	1,6	5.305	-33,3	7.623	43,7	10.402	36,5	8.309	-20,1
Udalerrri artekoa	36.537	1,4	40.649	11,3	35.372	-13,0	37.142	5,0	39.520	6,4
Eskualde arteko garraioa²	45.157	-3,7	49.248	9,1	44.806	-9,0	50.569	12,9	50.468	-0,2
Beste autonomia-erkidego batzuetatik jasoa	23.717	-1,7	24.828	4,7	21.589	-13,0	27.182	25,9	26.325	-3,2
Beste autonomia-erkidego batzuetara bidalia	21.440	-5,9	24.420	13,9	23.218	-4,9	23.387	0,7	24.143	3,2
Nazioarteko garraioa	6.092	-4,7	6.849	12,4	6.101	-10,9	7.065	15,8	6.710	-5,0
Jasoa	3.070	-2,8	3.072	0,1	2.983	-2,9	3.447	15,6	3.098	-10,1
Bidalia	3.022	-6,5	3.777	25,0	3.118	-17,4	3.618	16,0	3.612	-0,2
EAE, guztira	95.739	-1,5	102.051	6,6	93.902	-8,0	105.178	12,0	105.007	-0,2


¹ EAE abiapuntu eta helmuga duena (udalerrri arteko garraioa eta udalerrri barneko garraioa sartzen dira).

² EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuen artekoa.

Iturria: Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkesta. Sustapen Ministerioa.

Errepide bidezko garraiorako baimendutako ibilgailuetan garraiatutako merkantzia desplazamendu motaren arabera sailkatuz gero, eskualde arteko trukeek pisu handiagoa izan zuten: guztizko trafikoaren % 48,1. Eskualde barruko merkataritza-jarduerari dagokio % 45,5, eta gainerako ehunekoa (% 6,4) nazioarteko trukeei dagokie, jatorria edo helmuga nazioartean dutenei, alegia.

3.8. grafikoa Eskualde arteko salgaien garraioa EAEren eta gainerako autonomia-erkidegoen artean. 2022.



Iturria: Salgaien Errepedeko Garraioari buruzko Etengabeko Inkesta. Sustapen Ministerioa.

Autonomia-erkidegoen arteko merkataritza-garraioa aztertuta, 2022an Nafarroa izan zen EAEtik edo EAERA merkantzia gehien garraiatu zuen lurraldea: 9,6 milioi tona, eskualde arteko trafikoaren % 19. Bigarren postuan Gaztela eta Leon kokatu zen, 9,1 milioi tona trukaturik eta beste eskualdeekiko trukeen % 18,1eko kuotarekin. Kantabria hirugarren postuan mantendu zen, 5,8 milioi tonarekin eta erkidegoen arteko fluxuaren % 11,3ko partaidetzarekin.


Honako hauek izan ziren garraiatutako karga gehien handitu zuten hiru erkidegoak: Nafarroa 3,1 milioi tona gehiagorekin (2021arekiko +% 48), Madril 5,6 mila tona gehiagorekin (+% 18,1) eta Valentiako Erkidegoa 3,2 mila tona gehiagorekin (+% 10,9).

Aitzitik, merkantzien trukearen jaitsierarik handiena Gaztela eta Leonek izan zuen, eta aurreko urtean baino 2,9 milioi tona gutxiago mobilizatu zituen (-% 24). Atzetik, Aragoik 8,6 mila tona gutxiago garraiatu zituen (-% 19,3) eta Kantabriak 8,1 mila tona gutxiago (2021arekiko -% 12,5).

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepede Bidezko Garraioa**
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

3.9. grafikoa Eskualde barneko eta eskualde arteko salgaien errepede-garraioaren tipologia. 2022 (%).

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa**
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



Iturria: Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkesta. Sustapen Ministerioa.

Jatorria edo helmuga EAEn zuten eskualde barruko eta eskualde arteko errepide bidezko joan-etorrietan garraiatutako merkantziaren sailkapenari dagokionez, bi talde nagusi daude; makinak, ibilgailuak eta objektu manufakturatua, % 25,6ko partaidetzarekin; eta mineralak eta eraikuntzarako materialak, % 21,1eko kuotarekin. Hirugarren eta laugarren postuetan metalurgiako produktuak (guztizkoaren % 13) eta elikadura-produktuak eta bazkak (% 12,6) mantendu ziren. Zifratan, honako kategorien komertzializazioa handitu zen: birgaldatzeko hondakinak eta mineralak, ia 1,8 milioi tona gehiagorekin (2021eko kopuruarekiko +% 31,2); eta elikadura-produktuak eta bazkak, ia 1,5 milioi tona gehiagorekin (+% 13,4). Bestalde, behera egin zuten mineralen eta eraikuntzarako materialen garraioak, 1,7 milioi tonako jaitsierarekin (-% 7,6), eta makina, ibilgailu eta objektu manufakturatuen garraioak, 1,5 milioi tona gutxiagorekin (-% 5,6 aurreko ekitaldiarekin alderatuta).



Tren Bidezko garraioa



4.

4. Tren Bidezko garraioa

4.1. Trenbideko garraioaren eskaintza Euskadin

EAEko tren-azpiegiturak bi administratzailek kudeatzen dituzte 2013ko urtarrilaren 1az geroztik:

- ▶ Adif-Trenbide Azpiegituren Administratzailea¹⁰: trenbide horietatik, Renfe operadore nagusiak Estatuko hiriburu nagusiekin lotzen du EAE.
- ▶ ETS-RFV (Euskal Trenbide Sarea): Euskotren operadoreak ematen ditu hiriarteko zerbitzuak, Bilboko Metroak metropoli horretan jarduten du, eta EuskoTrenen tranbiak Bizkaiko eta Arabako hiriburu-tako hiri-eremuetan ematen ditu zerbitzuak.

2022an, EAEko trenbideen dentsitatea handiagoa zen Europakoa eta Estatukoa baino. Zehazki, EAEko trenbideen luzera 563 km-koa zen, eta dentsitatea 77,8 m/km²-koa. Maila hori askoz ere altuagoa da EB-27koa (48 m/km²; eskuragarri dagoen azken datua, 2021ekoa) eta Estatukoa (31 m/km²) baino. Bide elektrifikatuen proportzioa % 94,3koa da EAEn. Estatuan (% 64,7) eta EB-27n (% 56,1), berriz, sare elektrifikatuaren partaidetza txikiagoa da.

4.1. taula EAEko, Estatuko eta EB-28ko trenbide-lineen dentsitatea. 2022.


	Guztira	Elektrifikatu gabeak		Elektrifikatuak		Bide-mota	
		Guztira	Guztizkoa ren %	Guztira	Guztizkoa ren %	Bide bakarra	Bi bide
Luzera (km)							
EAE	563	32	5,7	531	94,3	256	307
Estatua	15.820	5.586	35,3	10.234	64,7	9.698	6122
UE 27 ¹	202.596	88.874	43,9	113.722	56,1	--	--
Dentsitatea (m/km²)							
EAE	77,8	4,4	--	73,4	--	35,4	42
Estatua	31,0	11,0	--	20	--	19	12
UE 27 ¹	48,0	21,0	--	26,9	--	--	--

¹ EB-27ri buruz eskuragarri dauden azken datuak 2021koak dira.

Iturria: Euskal Trenbide Sarea (ETS), Espainiako Garraio eta Logistikaren Behatokia (OTLE).

Jarraian, Euskadiko trenbide-azpiegituren bi administratzaileen ezaugarri nagusiak azalduko ditugu, hau da, Adif (trenbide-sare konbentzionala eta zabalera metrikoko sare bereizita) eta ETS-RFVrenak. Ondoren, EAEko trenbide-egiturako operadoreen zerbitzu-eskaintza aztertuko dugu.

¹⁰ 2013ko urtarrilaren 1az geroztik, Ferrocarriles de Vía Estrecha (FEVE, Bide Estuko Trenbideak) enpresa-erakunde publikoa Adifen integratuta dago, trenbide-azpiegiturak egiteko eta mantentzeko lanei dagokienez, uztailaren 20ko Legegintzako 2012/22 Errege Dekretuak xedatutakoa betez. Egun horretatik aurrera, Renfe Operadorak eskaintzen ditu Kantauriko itsasertzeko trenbide-zerbitzuak.



4.1.1. Adif-Trenbide Azpiegituren Administrazioa

2022an, Adifen trenbide-sare konbentzionalan, lineen luzera 360,9 km-koa zen (2021arekiko +% 0,5). Horietatik % 63,6 bide bikoitzekoak ziren, eta % 92,8 trenbide elektrifikatuak (2021ean % 93,3). Renfek jarraitu zuen trenbide-sistema konbentzionalerik operadoreerik garrantzitsuena izaten. Honako linea hauetan lan egin zuen:

- ▶ Bilboko aldiriak (C-1 linea, Bilbo Abando-Santurtzi; C-2 linea, Bilbo Abando-Muskiz; eta C3 linea, Bilbo Abando-Urduña).
- ▶ Donostiako aldiriak (Irun-Brinkola linea).
- ▶ Distantzia luzeko zerbitzua: Irun-Donostia-Madril ibilbidea, Gasteiz-Madril ibilbidea eta Bilbo-Madril ibilbidea egiten ditu; baita Bilbo-Bartzelona eta Irun-Donostia-Bartzelona ibilideak ere.

4.2. taula Adifen eskaintzaren oinarriko datuak, Trenbide Sare Konbentzionala. 2022.

ADIF ETA ADIF AV TITULARTASUNA						
		Lineen luzera km-tan	2019	2020	2021	2022
Bi bide						
SARE KONBENTZIONALA	Irun-Donostia-Gasteiz-Miranda Ebro	178,80	178,80	178,80	178,80	178,80
	Bilbao-Urduña	40,30	40,30	40,30	40,30	40,30
	Bilbao-Barakaldo-Santurtzi	13,60	13,60	13,60	13,60	13,60
	Bi bide, guztira	232,70	232,70	232,70	232,70	232,70
	Bide bakarra					
	Urduña-Miranda	62,90	62,90	62,90	62,90	62,90
	Barakaldo-Muskiz	13,10	13,10	13,10	13,10	13,10
	Lotura orratza-Gatzelako bidegurutzea	2,00	2,00	2,00	2,00	2,00
	Santurtzi-Bilbo Salgaiak	3,35	3,35	3,35	3,35	3,35
	Irun-PK 641,181	1,78	1,78	1,78	1,78	1,78
Bide bakarra, guztira	83,13	83,13	83,13	83,13	83,13	
Bi bide						
AM	Bilbo-Zamarillo	12,61	12,61	12,61	12,61	12,61
	Bi bide, guztira	12,61	12,61	12,61	12,61	12,61
	Bide bakarra					
	Zamarillo-La Calzada	46,62	46,62	46,62	46,62	46,62
Bide bakarra, guztira	46,62	46,62	46,62	46,62	46,62	
Bide bakarra						
UIC	Irun-PK 641,181	1,78	1,78	1,78	1,78	1,78
	Bide bakarra, guztira	1,78	1,78	1,78	1,78	1,78
Guztira						
Guztira	ADIF eta ADIF AV, bi bide, guztira	245,31	245,31	245,31	245,31	245,31
	ADIF eta ADIF AV, bide bakarra, guztira	131,52	131,52	131,52	131,52	131,52
	ADIF eta ADIF AV, guztira	376,83	376,83	376,83	376,83	376,83

Iturria: Espainiako Garraio eta Logistikaren Behatokia (OTLE).

Renfek eskualdeko lineetako sare konbentzionalan emandako zerbitzuari dagokionez, 2022an hazi egin zen eskaintza. Tren kopurua % 4,2 hazi zen 2021arekin alderatuta, kilometro bakoitzeko tren kopurua % 22,4 hazi zen, eta kilometro bakoitzeko plaza kopurua % 22,2 handitu zen (499 milioi plaza kilometroko).

Distantzia laburreko zerbitzuan, 2021arekin alderatuta, Renfek % 11 murriztu zuen zirkulazioan zeuden trenen kopurua. Aldiz, kilometro bakoitzeko tren kopurua % 4 igo zen: 4,2 milioi tren kilometroko. Kilometroko plaza kopurua, berriz, % 4,1 hazi zen, kilometroko 969,5 milioi eserlekura iritsi arte.

Donostiako aldirietako sarean, tren eskaintza indartu egin zuten eta 2021ean baino % 2,7 tren gehiago zeuden: 24,5 mila unitatek egiten zituzten joan-etorriak (+646 tren zirkulazioan). Kilometro bakoitzeko tren kopurua % 4,4 hazi zen eta 1,7 milioitik gora kokatu zen. Kilometroko eserleku kopurua, berriz, % 4,6 handitu zen, eta 389,6 milioi plaza eskaini zituzten.

Renferen Bilboko aldirietako zerbitzuan trenen kopurua % 13,8 murriztu zen 2021arekiko. Hala, tren kopurua 101,4 mila unitatera jaitsi zen (-16.238 konboi gutxiago zirkulazioan). Aitzitik, kilometro bakoitzeko tren kopurua % 3,8 hazi zen, eta 2,4 milioitik gora kokatu zen (+88 mila tren kilometroko). Kilometro bakoitzeko plaza kopurua ere proportzio berean igo zen, eta 579,8 milioi postutik gora kokatu zen (+21 milioi eserleku, aurreko urtearekin alderatuta).

4.3. taula Renferen eskaintzaren oinarritzko datuak, trenbide sare konbentzionala. 2020-2022

	2020	2021	2022
ESKUALDEETAKO LINEAK			
Linea kopurua ¹¹	3	3	3
Eskaintako tren kopurua	5.630	6.388	6.659
Eskaintako kilometroko tren kopurua	1.693.404	1.811.620	2.217.407
Eskaintako kilometroko plaza kopurua	374.381.525	408.575.967	499.465.509
ALDIRIETAKO LINEA			
Linea kopurua	4	4	4
Eskaintako tren kopurua	141.493	141.493	125.901
Eskaintako kilometroko tren kopurua	4.016.539	4.016.539	4.179.134
Eskaintako kilometroko plaza kopurua	931.391.293	931.391.293	969.531.220

Iturria: Renfe.

4.1.2. ETS-Euskal Trenbide Sarea

EAEko trenbide-egituraren deskribapena osatzeko, ETS – Euskal Trenbide Sareak administratzen dituen azpiegiturekin lotutako alderdiak aztertuko ditugu. Bi operadorek eskaintzen dituzte zerbitzuak sare horretan: EuskoTren eta Bilboko Metroa. Jarraian, ETSren ezaugarri nagusiak zehaztuko ditugu:


a) EuskoTrenen kudeatutako ETSren azpiegiturak

2022an, ETSren linea konbentzionalen luzera 187,4 km-koa zen, aurreko urteetako bera. Trenbide-sisteman, bide elektrifikatuek partaidetza handiagoa dute: 182,5 km-ko luzera (sare osoaren % 97,4). Bide motaren arabera, bide bakarra dago 121,8 km-an (ETSren sarearen % 65). Aldiz, bi bideko tartek 65,6 km ditu. Zifra hori mantendu egin da 2019tik. Azken hamarkadan inbertsio handia egin da trenbideak zabaltzeko. Hala, bide bikoitzeko tartek bikoiztu egin dira 2010etik: orduan 30,9 km hartzen zituzten.

Euskotrenek 3 lineatan ematen du zerbitzua:

- 1) Bilbo-Donostia linea eta Amorebieta-Bermeo adarra: 109 kilometro inguruko ibilbidean (Bilbo-Donostia zatia), EuskoTrenen hainbat lotune ditu, garraioko beste linea edo modu batzuekin. Zehazki, Bizkaiko hiriburuan, Boluetako geltokian, Bilboko Metroa hartzeko lotunea dago; Galdakaon, Usansoloko ospitalera joateko EuskoTrenen mikrobusa hartzeko; Zumaian, EuskoTrenen autobusak har daitezke (Urola eskualdean ematen dute zerbitzua); eta, Donostian, Amarako geltokian, EuskoTrenen Topo trena har daiteke, Hendaia-antz joateko. Horrez gain, linea horrek Zornotza-Bermeo adarra du, 29 kilometro baino gehiagoko luzera duen trenbidea.

¹¹ 2014 urtean Renfek eskualdeko lineen zerbitzuak berrantolatatu ditu, zenbait linea batuz; hori dela eta linea kopurua gutxitu da, baina zerbitzuak handitu.



- 2) Lasarte Oria-Donostia-Hendaia linea: Bilbo-Donostia linearen sare berbera erabiltzen du linea horrek Errekaldeko eta Amarako geltokien artean (Gipuzkoan biak ere), eta haietatik Bilbo-Donostia linea horretako trenak hartzeko aukera ere badago.
- 3) Bilbo (Deustu)-Lezama: 22 kilometrotik gorako ibilbidea du, eta Txorierriko herriein lotzen du Bilbo. Bilboko Metroarekin konexioa du Alde Zaharreko geltokian

2022an, Euskotrenek emandako zerbitzua hazi egin zen. Tren kopurua % 2,8 hazi zen 2021etik, eta 257 mila tren gaudituz zituen. Bidaiariei eskainitako plaza kopurua, berriz, % 20,6 hazi zen; hala, 99,2 milioi postu zeuden eskuragarri. Eskainitako kilometro kopurua % 2 hazi zen, 5,6 milioira arte. Eta kilometro bakoitzeko plaza kopurua % 17,7 handitu zen, eta 2.400 milioira gerturatu zen. 2022an zehar, zerbitzuak berreskuratzen jarraitu zuten. Izan ere, 2020an murriztu egin ziren, Covid-19aren pandemiaren eraginez. Ekitaldi honetan pandemiaren aurreko zifrak gaudituz dira adierazle guztietan, tren kopuruaren kasuan izan ezik.

4.4. taula Oinarrizko datuak gaur egun Euskotrenek zerbitzua ematen dion ETSren azpiegiturari buruz. EuskoTrenek eskainitako zerbitzuak. 2020-2022

	2020	2021	2022
Linea kopurua	3	3	3
Linea arruntzen luzera (km)	187,4	187,4	187,4
Bide bakarreko linea arruntzen luzera (km)	121,8	121,8	121,8
Bi bideko linea arruntzen luzera (km)	65,6	65,6	65,6
Elektrifikatutako linea arruntzen luzera (km)	182,5	182,5	182,5
Elektrifikatu gabeko linea arruntzen luzera (km)	4,9	4,9	4,9
Eskainitako tren kopurua	241.153	249.848	256.962
Eskainitako plaza kopurua	80.046.915	82.193.560	99.159.099
Eskainitako km kopurua	5.270.196	5.524.384	5.632.354
Eskainitako kilometroko plaza kopurua	1.947.730.489	2.035.248.989	2.395.352.289

Oharra: Tranbia-lineei buruzko datuak ez dira sartu. Larreinetako funikularrari buruzko datuak aintzat hartu dira.

Iturria: Euskal Trenbide Sarea (ETS), lineen kopuru eta luzerari buruzko informazioari dagokionez -Euskotren, tren-, toki-eta kilometro-kopuruaren eskaintzari buruzko informazioari dagokionez.

b) Bilboko Metroak kudeatutako ETSren azpiegiturak

2022an ez zen aldaketarik izan Bilboko Metroak kudeatzen dituen ETSren azpiegiturretan. Sarearen luzera 45,1 km-koa da. Bi linea ditu: 1. linea - Plentzia-Basauri, eskuinaldeko udalerrietan zehar igarotzen dena; eta 2. linea - Santurtzi-Basauri, ezkerreko metropoliarekin lotzen duena. Bilboko Metroak 42 geltoki ditu: 26 lurpean eta 16 kanpoan. Eta 84 sarbide eta 71 atari daude gaituta.


2017ko apirillean hasi zen funtzionatzen Bilboko Metroaren 3. linea, eta Euskotren da linea horren operadorea. Horrek indartu egin du metroaren egungo egitura, orain guztira 3 linea baititu. Gainera, datozen urteetan sareari beste bi linea gehitzeko aurreikuspenak ditu: 4. linea - Matiko-Errekalde (proiektu-fasean) eta 5. linea - Etxebarri-Ospitalea (proiektu-fasean).

4.5. taula Bilboko Metroaren azpiegitura eta eskaintzaren oinarrizko datuak. 2020-2022

	2020	2021	2022
Linea kopurua	2	2	2
Geltoki kopurua	42	42	42
Lineen luzera (km)	45,1	45,1	45,1
Eskainitako km kopurua	4.287.603	4.566.892	4.578.190
Eskainitako kilometroko tren kopurua	19.131.434	20.424.813	20.483.542
Eskainitako kilometroko plaza kopurua	2.806.322.339	2.994.690.054	3.003.066.259

Iturria: Bilboko Metroa.

Bilboko Metroak eskaintzen dituen zerbitzuak apur bat hobetu ziren 2021arekin alderatuta. Eskainitako kilometro kopurua % 0,2 hazi zen, eta 4,6 milioi kilometrorra gerturatu zen. Kilometroko



tren kopurua % 0,3 hazi zen, eta 20,5 milioi trenera iritsi zen ia. Eta kilometro bakoitzeko eserleku kopurua % 0,3 handitu zen; hala, 3.000 milioi plaza baino gehiago zeuden bezeroen eskura. Susperaldiaren urtea izan zen 2022an, eta 2019ko mailara gerturatu zen jarduera.

c) EuskoTrenen kudeatutako ETSren tranbia-azpiegiturak

Euskadiko tren-eskaintzaren datuekin amaitzeko, Euskotrenen kudeatzen duen ETSren tranbide-azpiegiturari buruzko datuak emango ditugu. Gasteizko Tranbiak eta Bilboko Tranbiak osatzen dute tranbia-sarea. Programa berriak garatzen eta lehendik zeuden lineak luzatzen ari dira sare horretan, datozen ekitaldietan egitura handitzeko.

2022an egonkor mantendu zen tranbide-azpiegitura, bai Bilbon, bai Gasteizen. Bizkaiko hiriburuko tranbia-sistemak 5,53 km-ko luzera du, eta 14 geltoki ditu Atxuritik La Casillara bitartean. Trenbideen % 68,9, hau da, 3,81 km, bi bidekoa da. Gainerako % 31,1a bide bakarrekoa da, hau da, 1,72 km.

Bilbon gora egin zuten tranbia-eskaintzaren adierazle guztiek, tren kopuruak izan ezik. Tren kopurua % 3,7 jaitsi zen 2021etik, eta 58,5 mila tren zeuden zirkulazioan. Bestetik, bidaiarien eskura jarritako eserleku kopurua % 17,8 hazi zen eta 8,9 milioi plazatik gora kokatu zen. Egindako kilometro kopurua, berriz, % 22 hazi zen, eta 400 mila kilometrora iritsi zen. Azkenik, kilometro bakoitzeko plaza kopurua % 49,3 hazi zen, eta 61,6 milioi plaza eskaini zituzten kilometroko.

Arabako hiriburuan, tranbia-sareak 2 linea ditu. 20 geltokitatik pasatzen dira tranbiak, 8,05 km-ko ibilbidean. Bide gehienak bikoitzak dira: guztizkoaren % 99,6. 2022an hobetu egin ziren eskaintzaren alderdi guztiak. Zifratan, tren kopurua hazi egin zen apur bat (+% 0,3), eta 94,8 mila trenera iritsi zen. Egindako distantzia ere hazi egin zen (+% 0,3), eta 575 mila kilometroak gaingitu zituen. Eskaintako plaza kopurua % 52,4 hazi zen. Hala, ekitaldiaren amaieran 21,9 milioi eserleku baino gehiago zeuden eskuragarri. Kilometro bakoitzeko plaza kopurua ere neurri berean hazi zen, eta 132,9 milioitik gora kokatu zen.


4.6. taula EuskoTrenen tranbia-eskaintzaren oinarritzko datuak 2021-2022

	Bilbo		Gasteiz	
	2021	2022	2021	2022
Linea kopurua	1	1	2	2
Geltoki kopurua	14	14	20	20
Lineen luzera (km)	5,53	5,53	8,05	8,05
Lineen luzera (bide bakarra)	1,72	1,72	0,03	0,03
Lineen luzera (bide bikoia)	3,81	3,81	8,02	8,02
Gehieneko edukiera (pertsonak) (*)	192 (50 eserleku)	192 (50 eserleku)	244 (52 eserleku)	244 (52 eserleku)
Aplikaturako edukiera (pertsonak) (*)	125 (50 eserleku)	125 (50 eserleku)	152 (52 eserleku)	152 (52 eserleku)
Eskaintako tren kopurua	60.810	58.542	94.548	94.832
Eskaintako plaza kopurua	7.601.250	8.956.926	14.371.296	21.906.192
Eskaintako km kopurua	330.003	402.467	573.930	575.539
Eskaintako kilometroko plaza kopurua	41.250.395	61.577.411	87.237.324	132.949.601

(*) EuskoTrenen aplikaturako edukiera txikiagoa da fabrikatzaileak zehaztutako gehieneko edukiera baino. Gehieneko erosotasuneko irizpideen arabera zehazten da, Europako erreferentzia oinarri hartuta, metro koadroko 4 pertsona. Iturria: Euskotren.

4.1.3. Euskal Trenbide Sare berria - ETS eta Adif

Europar Batasunak Euskadi Atlantikoko trenbide-korridorean sartzeari erabaki zuen, eta erabaki horrek Euskadiko trenbide-sareak EBko sareetan duen parte hartzea areagotu du, batetik, eta bultzada handia izan da, bestetik, EAEko trenbide-sare berriarentzat ("Euskal Y" deritzonarentzat). EAEko azpiegituren proiektu nagusietako bat da, eta Gasteizen trenbide-lotune bat jartzeko aukera ematen du, Estatuko gainerako lurraldeekin komunikatzeko, eta Europako gainerako lurraldeekin



komunikatzeko, Irunen Europara doazen trenbideekin lotuz eta Bilboko porturantz hurbilduz. Trenbide-azpiegitura horrek pertsonak eta salgaiak garraiatuko ditu. Gainera, “Euskal Y”-ak EAEko hiru hiriburuak lotuko ditu, haien arteko joan-etorriak bizkortuz eta haietan iraunkortasuna hobetuz.

Azpiegitura hori Europako bideen zabalera estandarrera egokitu da, eta aukera emango du Euskal Autonomia Erkidegoa Europa barneko abiadura handiko sarean sartzeko. Espainiako bideen ezaugarriak izateak Europarekin lotzeko sortu izan dituen oztopoak gainditzea ekarriko du, eta, horrenbestez, Europako merkatuetan sartu ahal izango da, kostu txikiagoarekin.

Sare berriak 172 kilometroko ibilbidea izango du. Trenbide berriaren trazaduraren % 60 ezkutuan egongo da, 80 tunelen bidez (104,3 km), % 9,9 obra horren barruan sartu diren 71 biaduktoren gainean joango da, eta gainerako % 29,5 aire zabalean. Trenbide-azpiegitura berriak sei geltoki izango ditu: Bilbo (Abando), Gasteiz (Arriagako parkea), Donostia (Atotxa), Astigarraga, Irun eta Ezkio-Itsaso.

Gobernu zentrala arduratuko da abiadura handiko trenbide-azpiegitura eraikitzeaz, Sustapen Ministerioaren bidez. Alde horretatik, “Euskal Y”-aren harira, Ministerioak eta EAEko Administrazioak akordio bat sinatu zuten 2006ko apirilaren 24an; akordio horren bidez, Sustapen Ministerioak eskumenaren zati bat Eusko Jaurlaritzari laga zion, eta berarentzat gorde zituen Araba eta Bizkaiko tarteen eraikuntza, “Euskal Y”-ak Arrasaten, Elorrioren eta Bergaran izango dituen lotuneen eraikuntza eta Bilboko eta Gasteizko sarrerena. Adif arduratuko da lan horiek egiteaz eta 2.536 milioi euroko inbertsioa izango da guztira.

Eusko Jaurlaritza, berriz, Gipuzkoako azpiegituraren zati handienaz arduratuko da. Euskal Trenbide Sarea sozietate publikoa Bergara-Irun-Donostia tartean egiteaz arduratuko da; 1.642 milioi euroko aurrekontua izango du, eta Estatuari eman beharreko kupotik kenduko da zenbateko hori.


20 tarte garatzeko ardura du ETSk. 2022an ia amaituta zeuden tarte horiek, eta honako hauek bakarrik falta ziren: Hernani-Astigarraga; Atotxako geltokiaren birmoldaketa (esparrua hondeatzen ari dira; aurreko faseetan amaitu dira drainatze-lanak, hegoaldeko geltoki nagusiko plataforma eta iparraldeko geltoki nagusiko larrialdi-galeriaren egitura); Ezkio-Itsasoko geltokia (lanak partzialki amaituta daude).

4.2. Pertsonen tren bidezko mugikortasuna Euskadin

4.1.4. Hiriko / metropoliko garraioa


a) Bilboko Metroa

2022an jarduera berreskuratu zuen Bilboko Metroak, pandemiaren eraginpeko urteen ondoren. Ekitaldia amaitzean, 2019ko bidaiari kopuruaren % 95a eskuratu zen; urte hartan erregistratu zuen urteko balantzerik onena. Bidaiari kopurua 80,4 milioitik gorakoa izan zen, hau da, % 20,4 hazi zen 2021etik. Eremuen araberako mapan, erdiko adarrean 7,7 milioi baino gehiago hazi zen bezero kopurua (+% 21,3); eremu horrek izan zuen hazkunderik handiena. 2. linean hazi egin zen bidaiari kopurua, eta 2021ean baino 3,2 bidaiari gehiago izan zituen (+% 17,7). 1. linean, berriz, 2,6 milioi bidaiari gehiago izan ziren (+% 21,5).



4.1. grafikoa Hiriko eta metropoli-inguruko garraio publikoa: Bilboko metroaren erabiltzaile kopuruaren bilakaera. 1995-2022.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 **Tren Bidezko Garraioa**
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



¹ Martxan jarri zutenetik (1995eko azaroaren 11tik) urte amaiera arte.
Iturria: Bilboko Metroa.

Bidaia kopurua geltokien arabera sailkatuz gero, jende gehien jasotzen duten geltokiak Bilboko erdigunean daudela ikus daiteke. Zazpikaleak dago lehen postuan, 6,4 milioi joan-etorrirekin (2021arekiko +% 25,5). Bigarren postuan Santimami dago, 5,5 milioi bidaia erregistratuta (+% 31,7). Eta, garrantziaren arabera, Abando da hirugarren geltokia, 5,4 milioi joan-etorrirekin (+% 25,5). Laugarren eta bosgarren postuetan Moyua eta Indautxu daude, ia 5,3 milioi erabiltzailerekin (+% 22,2 eta +% 13,2, hurrenez hurren). Guztira, Bilboko Metroko joan-etorri guztien herena baino gehiago dagokie bost geltoki nagusiei (% 34,6).



Ibaiaren ezker aldeko geltokiei dagokienez, berriz ere Barakaldo eta Gurutzeta izan ziren bidaiari gehien jaso zituztenak: 3 milioi baino gehiago (+% 17,5 eta +% 16,3, hurrenez hurren). Eskuinaldean, Areetak jarraitu zuen bidaiari gehien jasotzen duen geltokia izaten, ia 3 milioi pertsonarekin (2021arekiko +% 19,6). Orokorrean, geltoki guztietan egin zuen gora bidaiari kopuruak, pandemiaren eraginpeko urteen ondoren.

Txartelen erabilerrari dagokionez, Creditrans da erabiliena, alde handiarekin. Izan ere, kasuen % 56,2tan erabiltzen da. Bigarren aukera Gizatrans da, eta bidaien % 12 biltzen du. Hirugarren postuan, berriz, Bidai 50 kokatu zen, bidaia kopuruaren % 11,4rekin. Atzetik, bidaiatzeko erabilitako txartelen % 5,6 Bidai Oro bonuari zegozkion. Aldizkako txartelaren erabilera baxua da: txartel guztien % 2.

b) EuskoTren tranbia

2022an ia 9,3 milioi erabiltzaile izan zituen tranbiak EAEn, 2021ean baino % 19,2 gehiago. Bidaia kopuruaren igoera lotuta dago pandemiaren ondorioz mugikortasuna mugatzen zuten neurriak kendu izanarekin, baina oraindik ere ez dira berreskuratu 2020aren aurreko bidaiarien zifrak.

4.2. grafikoa Hiriko garraio publikoa: bidaiarien bilakaera EuskoTrenen Tranbian. 2002-2022.



¹ Martxan jarri zutenetik (2002ko abenduaren 12tik) urte amaiera arte.

Iturria: Euskotren.

Bilbon 2,6 milioi pertsona baino gehiago mugitu ziren tranbian, 2021ean baino % 27,2 gehiago, hau da, 561,3 mila bezero gehiago.

Arabako hiriburuan tranbian egindako joan-etorriak % 16,4 hazi ziren 2021etik. Hala, 6,6 milioi bidaia egin ziren tranbian, aurreko urtean baino 932,1 mila gehiago.

4.1.5. Herriarteko garraioa

Azterketa hiriarteko eremura zabaldua, bi enpresak ematen dute tren-zerbitzua: Renfek (sare konbentzionalean eta zabalera metrikoko sarean) eta EuskoTrenek¹². 2022an, EAEko hiriarteko tren-zerbitzu erregularrean bidaiatu zuten 42,5 milioi pertsonak, aurreko urtean baino % 29,4 gehiagok. Azken urteetan hazi egin da eskaria, eta 2019ko jarduera (pandemiaren aurrekoa) gainditzea lortu zen 2022an. Bi operadoreen kasuan hazi zen bidaiari kopurua.

Sare konbentzionalean, Renfek 17,1 milioi pertsona garraiatu zituen. Hala, urte arteko aldakuntza +% 37,5ekoa izan zen. Termino absolutuetan, 2021ean baino 4,7 milioi bidaiari gehiago izan ziren. Trenbide konbentzionalen sisteman, Renferi dagozkio EAEko hiriarteko zerbitzuko erabiltzaileen % 40,4, Bilboko Metroko trafikoa kontuan hartu gabe.

Aldirietako garraioa nukleoen arabera banatuta, argi ikusten da Bilboko hiri inguruko zerbitzuan (C-1 Bilbo Abando-Santurtzi, C-2 Bilbo Abando-Muskiz eta C-3 Bilbo Abando-Urduña) 10,8 milioi bidaiari mugitu zirela, 2021ean baino % 40,1 gehiago, hau da, 3,1 milioi bidaiari gehiago.

Donostiako aldirietako sistema (C1 Irun-Brinkola) 6,3 milioi bezerok erabili zuten, hortaz, bidaiari kopurua % 33,3 hazi zen (+1,6 milioi pertsona, 2021arekin alderatuta).


Zabalera metrikoko azpiegituretan, Renfek 691 mila pertsona garraiatu zituen, 2021ean baino % 5,3 gehiago, hau da, 2021ean baino 35 mila bidaiari gehiago. EAEko aldirietako sareko bidaiarien % 1,6k aukeratzeko Bilbo eta Balmaseda arteko tartea, Bilboko Metroa kontuan hartu gabe.

Euskotrenek osatzen du tren-zerbitzu erregularra. 24,6 milioi pertsona garraiatu zituen operadore horrek, 2021ean baino % 25,1 gehiago, hau da, 4,9 milioi gehiago. Zerbitzua ematen duen bi lurralde historikoetan egin zuen gora bidaiari kopuruak. Zehazki, Gipuzkoako hiri-nukleoen arteko bidaia

¹² Eranskinetako taulan kontsulta daitezke datuak: Herriarteko garraio publikoa: Ohiko trenbide-zerbitzuetako bidaiariak. 2000-2022.

kopurua % 24,2 hazi zen. 2,7 milioi bidaiari gehiago izan zirela esan nahi du horrek. Bizkaian, udalerrien arteko joan-etorriak % 26,1 hazi ziren, hau da, aurreko urtean baino ia 2,3 milioi bezero gehiago izan ziren. Euskadin hiriarteko tren-garraio publikoan mugitzen diren pertsonen % 58 jasotzen ditu Euskotrenek.

4.3. grafikoa Hiriarteko garraio publikoa: tren-zerbitzu erregularren erabiltzaile kopuruaren bilakaera. 1980-2022.



¹ Zerbitzu hauek sartzen dira: Bilboko aldirietako zerbitzua (C-1 linea, Abando eta Santurtzi artekoa; C-2 linea, Abando eta Muskiz artekoa; eta C-3 linea, Abando eta Urduña artekoa), eta Donostiako aldirietako zerbitzua (Irun eta Brinkola arteko linea).

² Bilbo eta Balmaseda arteko lineari buruzko datuak.

Iturria: Renfe eta Euskotren.

Bidaiari kopurua laurogeiko hamarkadaren hasierako datuekin alderatuz gero, tren bidezko hiri inguruko garraioa % 32,8 murriztu da. Hala, bidaiari kopurua 20,8 milioi jaitsi da. Zifra horiek aztertzeke orduan, aintzat hartu behar da eremu geografiko bakoitzeko eskaintzaren ikuspegi globala behar duela garraio kolektiboaren bilakaerak. Dena den, pandemiaren aurreko jardura maila berreskuratu da 2022an, hala ere, Bizkaian murriztu egin zen bidaiari kopurua, garraio publiko kolektiboko beste modu batzuen eskaintza handiagoa jarri zutelako erabiltzaileen eskura, hala nola aipatutako Bilboko Metroa. Azken honek Renferen aldirietako zerbitzuaren bidaiari asko xurgatu zituen Bizkaiko hiriburuko metropoli eremuan.

4.1.6. Eskualdearteko garraioa

Distantzia luzeko garraioari dagokionez, EAEn zerbitzua ematen duen operadorea Renfe da, bai trenbide-sare konbentzionalan, bai zabalera metrikoko trenbide-sarean¹³.

Zabalera metrikoko sareari dagokionez, eskuragarri dauden azken datuak 2014ko ekitaldikoak dira; urte hartan, 56 mila pertsona garraiatu ziren.

Sare konbentzionalan, Madrilgo Erkidegoa da EAErekin bidaiari gehien trukutzen duen eskualdea¹⁴. Izan ere, jatorria edo helmuga Euskadin duten bidaiarien % 42,3 Madrilgo Erkidegotik datoz edo hara doaz. Kataluniak jarraitzen du Renferen sare konbentzionalerako erabiltzaileen bigarren jatorria/helmuga izaten; EAEko bidaiarien distantzia luzeko joan-etorrien % 27,6 dagozkie. Eta


¹³ 2013ko urtarrilaren 1az geroztik, Renfe Operadora entitatearen barruan dago FEVE.

¹⁴ Datuak eskuragarri daude eranskinetako taulan: Renferen distantzia luzeko bidaiarien garraioa. Jatorria eta/edo helmuga. 2020-2022.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 **Tren Bidezko Garraioa**
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraio Bide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

hirugarren postuan Gaztela eta Leon mantentzen da: EAeko bidaien % 21ek erkidego horretan dute jatorria edo helmuga. 2022an ez zen izan bidaiarien nazioarteko garraiorik. Eskualde barruko trafikoak (jatorria eta helmuga EAE) distantzia luzeko bidaien % 4,5 ordezkatu zuen.

4.4. grafikoa Bidaiarienezako Renferen distantzia luzeko garraio-zerbitzua Abiapuntua eta/edo xedea (%). 2022.



¹Ez da kontuan hartu eskualde arteko zirkulazioa (EAE abiapuntu eta xede duena)

Iturria: Renfe

4.2. Merkantzien tren bidezko trafikoa Euskadin

Jatorria eta/edo helmuga EAEn duten merkantzien tren bidezko garraio-zerbitzua bi konpainiak ematen dute: Renfek (2016az geroztik, trenbide-sare konbentzionaleko eta zabalera metrikoko sareko trafikoa burutzen ditu) eta Euskotrenek. Bi operadoreek 1.996,4 mila tona garraiatu zituzten, 2021ean baino % 0,8 gutxiago.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa**
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

4.7. taula EAE abiapuntu eta/edo xede duten tren bidez garraiatutako salgaien bolumena. 2002-2022.

(mila tona)


- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 **Tren Bidezko Garraioa**
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasagarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

Urteak	Renfe, tren-sare arrunta konbentzionala	Renfe, zabalera metrikoko sarea	EuskoTren	GUZTIRA
2002	--	1.127,9	157,0	1.284,9
2003	5.475,9	1.041,6	154,2	6.671,7
2004	5.932,5	1.092,4	164,9	7.189,8
2005	4.441,9	1.054,4	148,0	5.644,3
2006	4.601,3	1.063,4	166,4	5.831,1
2007	4.479,3	1.088,4	173,6	5.741,3
2008	4.148,4	1.053,6	183,3	5.385,3
2009	2.767,5	823,7	121,4	3.712,6
2010	3.158,6	976,7	139,6	4.274,9
2011	2.953,8	948,7	138,9	4.041,5
2012	2.159,6	862,0	84,1	3.105,7
2013	2.375,6	816,9	0,5	3.193,0
2014	2.528,4	694,7	0,3	3.223,4
2015	2.384,2	745,4	8,3	3.137,9
2016		2.399,7	51,4	2.451,1
2017		2.211,2	46,7	2.257,9
2018		2.082,9	12,5	2.095,4
2019		1.781,1	5,5	1.786,6
2020		1.946,5	3,7	1.950,2
2021		1.942,3	69,6	2.011,6
2022		1.928,0	68,4	1.996,4

2016tik aurrera, Renferen datuak aintzat hartzen du Renfe Metrikoa
Iturria: Renfe eta Euskotren.

Renfek 1.928 mila tona garraiatu zituen, aurreko urtean baino apur bat gutxiago; zehazki, % 0,7 gutxiago. Renferi zegokion EAEko merkataritza-trafikoaren % 96,6 (2021eko pisu bera).

4.5. grafikoa Renfek garraiatu dituen eta EAE abiapuntu eta/edo xede duten salgaien bolumena. 2020-2022.



2016tik aurrera, Renferen datuek aintzat hartzen dute Renfe Metrikoa
Iturria: Renfe


Lurraldearen arabera, Gipuzkoa da Renfek EAEn garraiatzen dituen merkantzien % 56ren jatorria edo helmuga. Bizkaiak jasotzen edo bidaltzen du produktuen bolumenaren % 41, eta Arabari dagokio merkataritza-jardueraren gainerako % 3a.

Merkantzien trukeak 2021az geroztik izandako bilakaerak erakusten duenez, Arabak bikoiztu egin zuen haren merkantzia-fluxua. Hala, 2022an aldakuntza positiboa izan zuen lurralde bakarra izan zen. Zifra % 112,4 hazi zen. Termino absolutuetan, 30,8 mila tona gehiago garraiatu ziren: guztira, 58,3 mila tona. Gipuzkoan % 2,7 txikitu zen trukeen bolumena, eta aurreko urtean baino 30,1 milioi tona gutxiago garraiatu ziren. Hala, 1.079,9 mila tonarekin itxi zuen ekitaldia. Azkenik, Bizkaian % 1,9 murriztu zen merkataritza-jarduera. 15,1 mila tona gutxiago salerosi ziren, eta urtearen amaierarako 789,7 mila tonara jaitsi zen trukaturako bolumena.

2022an, Renferen merkantzien trafikoa, batez ere, eskualde artekoa izan zen. Produktuen % 98,7 beste eskualde batetik zetorren edo beste eskualde batera zihoan. Hala, eskualde arteko trafikoa 1.903,1 mila tonakoa izan zen. Autonomia-erkidegoen arabera, Madrilgo Erkidegoa da EAEren merkataritza-bazkide nagusia. Izan ere, EAEekin tren bidez trukaturako merkantzien laurdenak du jatorria edo helmuga Madrilgo Erkidegoan (% 25). Gaztela eta Leon dago atzetik, trukaturako kargaren % 23,6rekin. Hirugarren postura Aragoi igo da (% 18,1), eta laugarren postuan Asturias dago (% 16,8). Nolabaiteko distantziara mantentzen da Katalunia (% 6,1). Hala, pisu handiena duten bost lurraldeek ordezkatzen dute eskualde arteko tren bidezko merkataritzako garraioaren % 89,7.

Azkenik, eskualde barruko trafikoa (jatorria eta helmuga EAEren barruan) 24,9 milioi tonara jaitsi zen. Termino erlatiboetan, Renfek EAEko lurralde historikoetan zehar garraiatzen duen bolumenaren % 1,3 da hori¹⁵.

4.6. grafikoa Renfek EAEren eta gainerako autonomia-erkidegoen artean 2022an garraiatutako salgaiak (%).



Iturria: Renfe


Garraiatutako produktuen kategoriei dagokienez, EAEko tren bidezko merkantzien garraioa bost talde handitan banatzen da; guztizkoaren % 97,7 dagokie bost talde horiei. Produktu siderurgikoei dagokie trenez garraiatutako kargaren % 34,9. Hurrengo kategoria, berriz, Lurreko Garraio Intermodaleko Unitateei¹⁶ dagokie (% 26). Hurrengo postuetan mantendu dira produktu kimikoak (% 15,1), autoak (% 11,9) eta Itsasoko Garraio Intermodaleko Unitateak (% 9,8).

¹⁵ Datuak eskuragarri daude eranskineko taulan: Renferen merkantzia-garraioa: jatorriko edo helmugako autonomia-erkidegoak. 2022.

¹⁶ Garraio intermodalerako egokia den edukiontzari, kaxa mugikorrari edo erdiatoiari deitzen zaio Garraio Intermodaleko Unitatea.

4.7. grafikoa Renfek garraiatu dituen eta EAE abiapuntu eta/edo xede duten salgaien tipologia. 2022 (%).

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa**
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak




Iturria: Renfe

Euskotrenek garraiatutako merkantzien bolumenari dagokionez, 2022an apur bat murriztu zen merkataritza-jarduera, aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Zehazki, 68,4 mila tonakoa izan zen trukaturako produktuen fluxua, 2021ean baino % 1,7 txikiagoa. Euskal industriari zerbitzua ematen jarraitzen du Euskotrenek. Izan ere, Lebario eta Lasarte artean bobinak garraiatzean datza operadore horren merkantzien trafikoa.

4.8. grafikoa EuskoTrenek garraiatu dituen eta EAE abiapuntu eta/edo xede duten salgaien bolumena. 2002-2022.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa**
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasagarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



Iturria: EuskoTren.

2022an 1.304,1 mila tona garraiatu zituzten tren-operadore pribatuek, aurreko ekitaldiko zifraren antzera (2021arekiko +% 0,1). Enpresa pribatuek garraiatutako merkantzien % 37,4k EAEn zuten jatorria, eta % 62,6k EAEn zuten helmuga.

4.8. taula Operadore pribatuek garraiatutako merkantzien bolumena, jatorria eta/edo helmuga EAE izanik. 2022.

Bidaia mota	Urteko tonak	Lanegunetako tonen batezbestekoa
Jatorria EAE	487.995	1.683
Helmuga EAE	816.151	2.814
Guztira	1.304.146	4.497

Iturria: Hainbat operadore pribatu.



Aire Bidezko Garraioa




5.

5. Aire Bidezko Garraioa

5.1. Aireko garraioaren eskaintza Euskadin

2022ko ekitaldian susperraldi argia izan zuen aireportuetako jarduerak, 2020an eta 2021ean COVID-19aren pandemiaren ondorioz izandako geldialdiaren ondoren. EAEko hiru aireportuetako hegazkinen trafiko komertzialari dagokionez, 57.248 eragiketa zenbatu ziren: 2021ean baino % 59,9 gehiago. EAEko hiru aireportu-azpiegiturretan erregistratu zen hazkundera, baina neurri ezberdinetan. Zehazki, Donostian bikoiztu egin zen zirkulazioa (aurreko urtearekin alderatuta, +% 102,5), Bilbon % 77,8 hobetu zen eta Gasteizen % 7,6ko hazkundera izan zuen, 2021arekiko.

5.1. grafikoa Aire-garraioa: aireontzien trafikoa¹ Euskadiko aireportuetan 2000-2022.



¹ Trafiko-datuak merkataritzako aireontzien trafikoen datuei dagozkie.

Iturria: Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa - Aena.

EAEko hiru aireportuetako aireko garraioari dagokionez, Bilbori dagozkio aireko eragiketen % 74,3. Hala, EAEn aireraten edo lurreraten diren aireontzi kopuru handiena duen aireportua izaten jarraitzen du. Bigarren postuan Arabako aireportua dago, guztizko zirkulazioaren % 18,5ekin. Eta hirugarren postuan Donostiak jarraitzen du, gainerako % 7,2arekin.


5.2. Pertsonen aireko mugikortasuna Euskadin

2022an 5.735,6 mila pertsona garraiatu ziren EAEko aireportu-sistemaren bidez. Hala, bikoiztu egin zen 2021eko erabiltzaile kopurua (+% 100,9). EAEko hiru aireportuek izandako hazkundera txikiagoa izan zen Estatuko aireportu-sareko bidaiari kopuruak izandako hazkundera baino. Izan ere, mugikortasuna % 103,3 hazi zen Estatuan, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 **Aire Bidezko Garraioa**
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraio Bide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

5.2. grafikoa EAEko bidaiarien aire-trafikoa: aire-zerbitzuetako bidaiarien eboluzioa 1980-2022.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa**
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



Iturria: Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa - Aena.

EAEko hiru aireportuetan egin zuen gora bidaiari kopuruak. Bilbon, 5.118,8 mila pertsonak zuten jatorria edo helmuga Loiuko aireportuan. Hala, ia bikoiztu egin zuen 2021eko erregistroa (+% 98,9). Euskadin hegazkineraten edo lurreratzen diren pertsonen % 89,2 jasotzen ditu Bizkaiko azpiegiturak.

Nazioarteko bidaiei dagokienez, Bizkaiko aireko trafikoa % 214,4 hazi zen 2021arekiko, eta 1.811,6 mila pertsonara iritsi zen. Estatu barruko joan-etorriak % 65,6 ugaritu ziren, eta 3.307,2 mila pertsonara igo zen bidaiari kopurua.

Eremu nazionalean, honako aireportu hauek mantendu ziren lotura nagusi gisa: Madril-Barajas Adolfo Suárez, 645,6 mila bidaiarirekin; eta Bartzelona-El Prat, Bilbotik edo Bilbora bidaiatzen zuten 527,3 mila erabiltzailerekin. Termino erlatiboetan, Madrilerako joan-etorriak % 82,4 hazi ziren, eta Kataluniako hiribururakoak % 63,7. Estatu mailako bidaien herena baino gehiago biltzen dute bi aireportu horiek (2021ean % 35,5), eta Bizkaiko bidaiari kopuruaren bostena baino gehiago dagokie (% 22,9).

Nazioartean, Londreseko Gatwick aireportua igo zen lehen postura, 250,3 mila pertsonarekin (8 aldiz baino gehiago hazi zen zifra; 2021ean, 29,8 mila pertsona). Bigarren postuan Frankfurt International aireportua kokatu zen, 234,8 mila pertsonarekin (aurreko ekitaldiarekiko +% 77,4).

2022an, Bilboko aireportuarekin trukeen fluxu handiena izan zuen hiri transnazionala bilakatu zen Londres. 254,2 mila joan-etorri batu zituzten Londreseko bost aireportuen artean, eta Loiuko aireportuko nazioarteko trafikoaren % 14 ordezkatu zuen. Bigarren eta hirugarren postuetan Frankfurt (2021ean lehenengoa) eta Munich kokatu ziren, 234,8 eta 203,1 mila bidaiarirekin, hurrenez hurren; eta nazioarteko mugikortasunaren gaineko % 13 eta % 11,2ko kuotarekin. Laugarren eta bosgarren postuetan Amsterdam eta Paris (hiru aireportu: Charles de Gaulle, Orly eta Le Bourget) kokatu ziren, 185,3 eta 179,5 mila pertsonarekin (% 10,2 eta % 9,9, hurrenez hurren).

5.1. taula Bidaiarien trafikoa Euskadiko aireportuetan: bidaiarien eboluzioa, aireportuka 2000-2022.

Urteak	Bilbo		Donostia		Gasteiz		Guztira	
	Mila pertsona	Δ per. urteko %	Mila pertsona	Δ per. urteko %	Mila pertsona	Δ per. urteko %	Mila pertsona	
2000	2.527,8	--	283,8	--	123,4	--	2.935,0	--
2001	2.475,4	-2,1	281,1	-1,0	128,7	4,3	2.885,2	-1,7
2002	2.450,6	-1,0	271,2	-3,5	98,8	-23,2	2.820,6	-2,2
2003	2.842,4	16,0	283,8	4,7	101,9	3,1	3.228,1	14,4
2004	3.390,8	19,3	295,6	4,1	94,4	-7,3	3.780,8	17,1
2005	3.841,5	13,3	308,8	4,5	91,4	-3,2	4.241,7	12,2
2006	3.871,1	0,8	368,0	19,2	173,1	89,4	4.412,2	4,0
2007	4.280,7	10,6	466,5	26,8	173,2	0,1	4.920,4	11,5
2008	4.169,0	-2,6	403,2	-13,6	67,5	-61,0	4.639,7	-5,7
2009	3.652,0	-12,4	315,3	-21,8	39,9	-40,9	4.007,2	-13,6
2010	3.883,3	6,3	286,1	-9,3	41,8	4,8	4.211,2	5,1
2011	4.044,1	4,1	248,0	-13,3	28,0	-33,0	4.320,1	2,6
2012	4.167,2	3,0	262,4	5,8	24,1	-13,9	4.453,7	3,1
2013	3.794,2	-9,0	245,0	-6,6	6,8	-71,9	4.046,0	-9,2
2014	3.982,9	5,0	245,0	0,0	7,1	4,4	4.235,0	4,7
2015	4.258,9	6,9	255,1	4,1	11,2	57,7	4.525,2	6,9
2016	4.570,4	7,5	261,3	3,6	36,4	231,6	4.868,2	7,8
2017	4.964,3	8,6	279,4	6,9	81,6	124,0	5.325,2	9,4
2018	5.454,7	9,9	287,1	2,8	139,6	71,1	5.881,3	10,4
2019	5.896,4	8,1	318,3	10,9	170,8	22,3	6.385,5	8,6
2020	1.683,1	-71,5	83,4	-73,8	41,4	-75,8	1.807,9	-71,7
2021	2.573,1	52,9	154,4	85,1	127,0	206,7	2.854,5	57,9
2022	5.118,8	98,9	382,3	147,6	234,5	84,6	5.735,6	100,9

Iturria: Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa - Aena.

Oharra: iturri originalak datu banakatuagoak eta eguneratuagoak izan ditzake. Esteka: www.aena.es

Donostian, aireportuko trafikoa 382,3 mila pertsonatik gorakoa izan zen (2021arekiko +% 147,6).

Gipuzkoako aireportuko aireko trafikoa, batez ere, nazionala da. Izan ere, trafiko osoaren % 99,1 da nazionala. Jatorria edo helmuga Madril-Barajas Adolfo Suárez aireportuan zuten bidaiarien kopurua 196,4 mila pertsonara igo zen (2021arekiko +% 132,8). Hala, Donostiarekiko lotura nagusia izan zen, aireko fluxuaren erdia baino gehiago baitzegokion. Bigarren postuan mantendu zen Bartzelona-El Prat aireportua, 100,5 mila pertsonarekin (aurreko urterekiko +% 94,6). Hondarribiko aireportuko gutizko trafikoaren % 77,7 biltzen dute bi aireportu horiek. Hirugarren eta laugarren postuetan kokatu ziren Sevilla (22 mila pertsona) eta Malaga (19,5 mila pertsona).


Nazioarteko trafikoari dagokionez, 3,6 mila pertsona erregistratu ziren: Donostiako azpiegiturako zirkulazioaren % 0,9.

2022an haren erregistrorik onena eskuratu zuen Gasteizko aireportuak, 234,5 mila pertsona garraiatuta: 2021ean baino % 84,6 gehiago.



5.3. grafikoa Bidaiarien jatorria/helmuga, aireportuka 2022.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 **Aire Bidezko Garraioa**
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



Iturria: Aena, Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa.

Arabako aireportuko mugimenduen ia bi heren hegaldi nazionalei dagozkie (% 65,7), eta % 34,3 nazioarteko bidaiei.


Estatuko aireportuei dagokienez, Palma Mallorcakoa igo da rankingaren lehen postura, 37,1 mila pertsonarekin (2021arekiko +% 81,7). Hala, Arabako aireportuko aireko garraioaren % 15,8 dagokio. Sevillako aireportua bigarren postura jaitsi zen, 36 mila pertsona ingururekin (aurreko ekitaldiarekiko +% 58) eta guztizko joan-etorrien gaineko % 15,3ko parte-hartze kuotarekin.

Nazioartean, Milan da Gasteizko aireko azpiegituraren lotura nagusia, 33 mila pertsonako trafikoarekin. Hau da, Arabako aireportuko nazioarteko hegaldien % 41,1 Italiako eskualde horretara iristen dira edo handik irteten dira.

5.3. Merkantzien aireko garraioa Euskadin

2022an, EAEko aire-sisteman 1980az geroztik garraiatutako merkantzien bolumen handiena erregistratu zen. Guztira, 74.304 tona trukatu ziren, 2021arekiko +% 1,8. EAEko hiru aireportuetan garraiatutako kargaren urte arteko aldakuntza handiagoa izan zen Estatuko sarean erregistratutako igoera baino (2021eko zifrarekiko +% 0,2).

5.4. grafikoa Salgaien aire-zirkulazioa Euskadin. 1980-2022 bilakaera.



Iturria: Aena, Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa.

Merkantzien fluxua hobetu egin zen Gasteizko eta Bilboko aireportuetan. Donostiako aireportuak, berriz, alde batera utzi zuen jarduera komertziala 2022an. Arabako aireportuan % 1,5 hazi zen merkataritza-jarduera, 2021arekin alderatuta. 73.632,8 tonarekin, EAEko azpiegitura nagusia da produktuen trukeari dagokionez. Izan ere, EAEn airez garraiatzen diren produktuen % 99 dagozkio. Estatuko aireportu-sisteman laugarren postuan mantendu zen, guztizko merkantzien gaineko % 7,4ko kuotarekin. Lehenengo hiru postuetan honakoek jarraitu zuten: Madril-Barajas Adolfo Suárez (% 56,6), Bartzelona-El Prat (% 15,6; hirugarren postutik bigarrenera igo zen) eta Zaragoza (% 12,7).

Arabako aireportuarekin trukeen bolumen handiena duten hiriak nazioartekoak dira. Lehenengo eta bigarren postuetan Leipzig eta Brusela mantendu dira, 18,7 mila tonarekin (2021arekiko -% 1,7) eta 7,6 mila tonarekin (+% 1,2), hurrenez hurren. Hirugarren eta laugarren postuan dauden lotura komertzialak Bonn eta Lisboa dira, bi kasuetan 6,2 mila tonarekin.

Bestetik, Bilboko aireportuak 671,6 tona garraiatu zituen, aurreko ekitaldian trukaturako karga baino % 42,2 gehiago.

Bizkaiko aireportuaren lotura nagusiak Frankfurt International eta Adolfo Suarez Madril-Barajas dira. Horiek elkarren artean trukatu zuten postua 2021arekiko. Hala, Alemaniako loturak lehen postua berreskuratu zuen, 282,6 tonarekin eta 2021arekiko % 31,1eko hazkundearekin. Eta Madril bigarren postura pasatu zen, 275,3 tonarekin (2021arekiko +% 22,8).

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasagarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

5.2. taula Salgaien trafikoa, aireportuka¹. 1980-2022.


Urteak	Bilbo		Donostia		Vitoria-Gasteiz		Guztira	
	t.	urteko Δ (%)	t.	urteko Δ (%)	t.	t.	urteko Δ (%)	t.
1980	3.376,5	-	428,3	-	0,3	-	3.805,1	-
1985	4.080,5	3,9	466,6	1,7	703,1	372,0	5.250,2	6,7
1990	2.805,0	-7,2	366,0	-4,7	533,8	-5,4	3.704,8	-6,7
1995	3.879,4	6,7	292,6	-4,4	13.782,1	91,6	17.954,1	37,1
2000	4.038,7	0,8	176,1	-9,7	35.609,7	20,9	39.824,5	17,3
2001	3.674,5	-9,0	154,1	-12,5	36.309,5	2,0	40.138,0	0,8
2002	3.699,2	0,7	127,1	-17,5	42.425,2	16,8	46.251,5	15,2
2003	3.813,6	3,1	96,6	-24,0	40.155,9	-5,3	44.066,0	-4,7
2004	4.152,8	8,9	325,2	236,6	43.683,4	8,8	48.161,4	9,3
2005	3.956,7	-4,7	415,2	27,7	34.785,8	-20,4	39.157,8	-18,7
2006	3.417,7	-13,6	282,2	-32,0	31.575,7	-9,2	35.275,6	-9,9
2007	3.230,9	-5,5	245,9	-12,9	31.359,3	-0,7	34.836,1	-1,2
2008	3.178,8	-1,6	63,8	-74,1	34.989,7	11,6	38.232,3	9,7
2009	2.691,5	-15,3	31,1	-51,3	27.388,0	-21,7	30.110,6	-21,2
2010	2.548,0	-5,3	18,8	-39,5	27.960,6	2,1	30.527,4	1,4
2011	2.633,5	3,4	32,0	70,2	34.692,3	24,1	37.357,8	22,4
2012	2.262,8	-14,1	35,6	11,3	34.652,3	-0,1	36.950,7	-1,1
2013	2.538,4	12,2	20,4	-42,7	37.482,5	8,2	40.041,3	8,4
2014	2.855,6	12,5	30,7	50,5	42.160,7	12,5	45.047,0	12,5
2015	2.871,7	0,6	3,3	-89,2	46.371,9	10,0	49.246,9	9,3
2016	2.974,3	3,6	4,6	37,6	52.136,0	12,4	55.114,9	11,9
2017	1.956,4	-34,2	3,2	-28,8	60.479,4	16,0	62.439,0	13,3
2018	1.215,6	-37,9	6,7	109,4	62.145,3	2,8	63.367,6	1,5
2019	979,6	-19,4	0,4	-94,0	64.470,7	3,7	65.450,6	3,3
2020	384,5	-60,7	0,0	-94,1	64.334,3	-0,2	64.718,8	-1,1
2021	472,3	22,8	0,1	166,7	72.529,2	12,7	73.001,6	12,8
2022	671,6	42,9	0,0	-100,0	73.632,8	1,5	74.304,4	1,8

¹ Ez ditu barne hartzen iragaitzako salgaiak

Iturria: Aena, Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa.

Aurrez aipatu dugun moduan, Gipuzkoako aireportuak ez zuen merkantzien trafikorik izan 2022an.

5.5. grafikoa Salgaien jatorria/helburua, aireportuka. 2022.




Iturria: Aena, Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

Lurralde eremuaren arabera, produktuen % 73,4k nazioarteko aireportuetan zuten jatorria edo helmuga (2021ean % 73,9). Gasteizen, kargaren % 73,5ek zuen jatorria edo helmuga nazioartean. Bilbon, trukeen % 58,2 egin ziren atzerriko aireportuekin.

5.6. grafikoa Salgaien nazioarteko trafikoa, zonalde geografikotan. 2022 (%).



¹ Aintzat hartzen ditu EB-27, Erresuma Batua, Errusiar Federazioa, Norvegia, Serbia eta Montenegro, Suitza, Turkia, Ukraina eta Bielorrusia.

Iturria: Aena, Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa.

Geografikoki, Europako eremuaren gailentasuna hazi egin zen merkantzien trafikoari dagokionez. Izan ere, jarduera komertzialaren % 99,9 zegokion. Asiak eta Afrikak, berriz, hondarreko pisua izan zuten, % 0,05ekoa. Herrialdearen arabera, aireko garraioarekin lotutako EAEn bazkide nagusiak Alemania eta Espainia izan ziren, % 33,8ko eta % 26,6ko kuotarekin, hurrenez hurren. Hurrengo postuetan mantendu ziren Portugal (% 14,4) eta Belgika (% 11,1); Italia igo egin zen (% 6) eta Erresuma Batua jaitsi (% 5,6). Guztira, sei herrialde horiei dagokie aireko merkataritza-jardueraren % 97,5.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa**
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



Itxaso Bidezko Garraioa



6.

6. Itxaso Bidezko Garraioa

6.1. Euskadiko itsaso bidezko garraio-eskaintza

Anavasen (Euskal Ontzijabeen Elkarte) afiliatutako merkataritzako ontzidiak osatzen du EAEko itsasoko eskaintza: 11 enpresa, 75 ontziren jabeak edo kudeatzaileak. Hortaz, ontzi kopurua % 9,6 jaitsi da 2021etik (8 itsasontzi gutxiago). Gaitasuna 865,1 mila tona gordinekoa da (2021arekiko - % 2,7), eta ia 1,5 milioikoa, pisu hileko tona kopuruari dagokionez (-% 1,4 aurreko urteko pisu hileko tona kopuruarekin alderatuta).

6.1. taula Itsasoko garraioa: EAEko ontzidiaren ezaugarriak. 1995-2022.

Urtea ³	Enpresen kopurua	Itsasontzien kopurua	TG ¹	PHT ²
1995	13	62	344.397	577.850
2000	11	56	328.937	543.033
2001	10	52	322.295	519.898
2002	12	53	321.193	532.790
2003	12	55	332.021	546.588
2004	11	50	455.803	796.813
2005	11	67	524.523	917.116
2006	11	71	542.901	938.900
2007	14	68	535.720	927.707
2008	14	80	574.292	970.421
2009	13	73	393.275	631.405
2010	13	69	365.719	590.947
2011	12	66	396.280	663.302
2012	12	65	396.128	663.013
2013	11	55	336.059	592.931
2014	11	54	331.535	584.104
2015	11	54	332.746	585.042
2016	13	57	349.645	607.848
2017	13	87	679.769	1.110.279
2018	13	87	752.809	1.245.610
2019	12	88	828.771	1.391.469
2020	11	87	904.038	1.535.686
2021	11	83	889.361	1.517.289
2022	11	75	865.117	1.495.445

¹ Tona gordin.

² Pisu hilaren tonak.

³ "n+1" urtearen urtarilaren 1eko datuak.

Iturria: Anavas.

Anavasi atxikitako ontzidiaren tipologiari dagokionez, atoiontzia eta barneko zirkulazioaz arduratzen diren ontziak dira 30, hau da, guztizkoaren % 40 (2021ean baino 1 gutxiago). Hurrengo taldea PGLri (petrolio-gas likidotuak) dagokio; 19 ontzi dagozkio talde horri (2021ean baino 8 ontzi gutxiago), EAEko ontzidiaren % 25,3. Hirugarren postuan tanga-ontziak daude, 15 ontzirekin (2021ean baino 1 gehiago): guztizkoaren % 20. Laugarren posizioan bulk carrierrak eta edukiontzia garraiatzekoak daude: solteko salgaiak garraiatzeko 9 ontzi (2021ean bezala) eta % 12ko kuota. Azkenik, ontzi hozkailuen kopurua 2 unitatetan mantendu da, eta % 2,7ko parte-hartzea dute elkartean izena emandako ontzidiaren gainean.

Anavasek kontrolatutako ontzidiaren batez besteko adina 13 urte ingurukoa da. Hortaz, Espainiako batezbestekoaren (16,9 urtekoa¹⁷) eta mundu mailako flotaren batezbestekoaren (19,7 urte) azpitik mantentzen da.

¹⁷ 2023ko urtarilaren 1ean. Iturria: ANAVE

6.2 taula Itsasoko garraioa: EAEko ontzidiaren tipologia. 2019-2022.


Ontzi mota	Itsasontzien kopurua			
	2019	2020	2021	2022
Atoiontzia eta barne-trafikoa	31	31	31	30
Tanke-ontzia	14	14	14	15
PGL (petrolio-gas likidotuak)	29	29	27	19
Bulk Carrier eta edukiontziak garraiatzekoak	12	11	9	9
Hozkailu-ontziak	2	2	2	2
GUZTIRA	88	87	83	75

Iturria: Anavas.

6.2. Pertsonen mugikortasuna Euskadiko itsasoko garraioan

EAEko pertsonen itsaso bidezko garraioa Bilboko Portuan Maileguei da, Euskadin bidaiarien garraiorako zerbitzu erregularra eskaintzen duen interes orokorreko portu bakarra baita.

6.1. grafikoa Bidaiarien zirkulazioa Bilboko Portuan. 2003-2022.



Iturria: Bilboko Portu Agintaritzak (linea erregularra eta gurutzontziak).

Bilboko Portuko Agintaritzak jasotako datuen arabera, 2022an asko hazi zen pertsonen itsaso bidezko garraioa, COVID-19aren pandemiaren ostean normaltasuna eta bidaiak berreskuratu zirelako. Bizkaiko portuko bidaiari kopuruak zifra errekorra eskuratu zuen: 214 mila pertsona. Hortaz, % 189,8 hazi zen 2021arekin alderatuta. 2022an bultzada berria izan zuen Euskadira gurutzantzietan eta ferryetan iristen den turismoak.

Bilbo Erresuma Batuekin (Ingalaterrako Portsmouth portua) eta Irlandarekin (Rosslare portua) lotzen duten ferryen bi lineek 104,7 mila turista erregistratu zituzten, aurreko ekitaldian baino % 72,2 gehiago. Ferryen garraioari dagokionez, handitu egin zen ontziratzeen (+% 76,1) eta lehorreratzeen (+% 68,4) kopurua.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa**
- 7 Beste Garraibide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

6.3. taula Pertsonen itsas garraioa Bilboko Portuan. 2016-2022.

(Pertsona kop.)

Portua	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	% Δ anual 22/21
Linea erregularra	104.028	102.337	114.173	105.096	45.583	60.774	104.680	72,2
▪ Ontziratutakoak	51.703	49.322	55.864	51.954	22.944	30.373	53.486	76,1
▪ Lehorreratutakoak	52.325	53.015	58.309	53.142	22.639	30.401	51.194	68,4
Gurutzaontziak	86.598	84.209	86.458	55.448	-	13.079	109.348	736,1
▪ Linearen hasiera	1.203	2.303	1.562	710	-	48	1.063	2.114,6
▪ Linearen amaiera	2.503	3.959	1.629	751	-	133	1.022	668,4
▪ Bidean	82.892	77.947	83.267	53.987	-	12.898	107.263	731,6
GUZTIRA	190.626	186.546	200.631	160.544	45.583	73.853	214.028	189,8


Iturria: Bilboko Portu Agintaritza.

2022an hazi egin zen gurutzaontzien jarduera. Izan ere, bidaiarien erdiak baino gehiago gurutzaontzietako bidaiariak ziren (% 51,1). Guztira 78 gurutzaontzi porturatu ziren, 107,3 mila pertsonarekin (2021arekiko +% 736,1). Nabarmendu beharrekoa da gurutzaontzietako bidaiarien % 98,1 iragaitzazkoak direla.

6.3. Merkantzien itsasoko garraioa Euskadin

Bilboko eta Pasaiako portuetan, hau da, EAeko merkataritza-portu garrantzitsuenetan, merkantzien itsaso bidezko garraioa 36,2 milioi tonara hurbildu zen: 2021ean baino % 3,9 gehiago.

6.2. grafikoa Salgaien itsas zirkulazioa Bilboko eta Pasaiako portuetan. 1980-2022 bilakaera.




Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiako Portu Agintaritza.

2022an 32,9 milioi tona mugitu zituen Bizkaiko portuak, aurreko ekitaldian baino % 5,1 gehiago.

Estatuko portu guztietako trafikoari dagokionez, bosgarren postuan finkatu zen Bilbo, Estatu mailan mugitzen den kargaren % 5,8 baitagokio. Estatu portu-sistemako lehenengo postuak ordena honetan mantendu ziren, aurreko urtearekin alderatuta: Algeciras, 108,3 mila tonarekin (kuotaren % 19,2); Valentzia, 79,6 mila tonarekin (% 14,1); Bartzelona, 70,9 mila tonarekin (% 12,6); eta Cartagena, 36,6 mila tonarekin (% 6,5).

6.3. grafikoa Salgaien itsas zirkulazioa Bilboko eta Pasaiaiko portuetan. 2005-2022 bilakaera.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa**
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiaiko Portu Agintaritza.

Portuko merkataritza-trafiko mugimendu motaren arabera banakatuta, deskargatutako merkantzia 21,7 milioi tonakoa izan zela ikus daiteke (2021arekiko +% 6,1). Bizkaiko azpiegituratik irtendako karga, berriz, 11,1 milioi tonatik gorakoa izan zen (2021arekiko +% 3,2). Bilboko portuko merkantzien merkataritzari dagokionez, lehorreratutako izakinak izan ziren % 65,8, eta portuan kargatutako produktuak % 33,8.

Amaitzeko, mobilizatutako itsas merkantziaren % 0,4 hornidura izan zen (2021eko pisu bera). Produktuen tokiko trafikoak nulua da 2019tik.

6.4. taula Bilboko eta Pasaiaiko portuen zirkulazioa, mugimenduaren arabera. 2018-2022.

(Tonak milakotan)

Kontzeptua	Bilbo					Pasaia				
	2018	2019	2020	2021	2022	2018	2019	2020	2021	2022
Deskargak	22.314,2	23.062,9	19.466,2	20.416,5	21.659,1	1.733,2	1.829,9	1.792,7	2.211,6	2.097,5
Kargak	13.269,3	12.383,4	10.077,9	10.766,1	11.107,5	1.355,4	1.368,0	1.200,7	1.282,7	1.170,0
Tokiko zirkulazioa	0,2	0,0	0,0	0,0	0,0	--	--	--	--	--
Hornidurak	111,7	114,7	101,1	116,5	122,6	25,1	25,1	22,8	23,9	25,9
Arrantza	--	--	--	--	--	24,6	21,9	20,5	18,8	19,1
Guztira	35.695,4	35.561,0	29.645,1	31.299,1	32.889,2	3.138,3	3.244,9	3.036,6	3.537,0	3.312,5

Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiaiko Portu Agintaritza.

Merkantzien sailkapenari dagokionez, nabarmentzekoa da solteko salgai likidoen gorakadak (2021arekiko +% 15,1) eragin zuela Bilboko portuko trafikoaren hazkundera. Izan ere, solteko salgai likidoen talde guztiek egin zuten gora: petrolio-produktuak (+% 11,5), gas naturala (+% 33,7) eta beste solteko salgai likido batzuk (+% 7,7). Aitzitik, behera egin zuten solteko salgai solidoek (2021arekiko -% 19,3) eta merkantzia orokorrak (aurreko urtearekiko -% 2,3). Edukiontzietako merkantzien beherakadak (-% 4,5) eragin zuten azken kategoria horren bilakaera. Izan ere, beste merkantzia orokorra igo egin zen (2021eko erregistroarekiko +% 1,6). Gainerako merkantziak % 5,2 hazi ziren 2021arekiko.

Bilboko nasetan ontziratzan edo lehorreratzen diren merkantzien bolumenaren banaketarekin lotuta, solteko salgai likidoen taldeak izan zuen partaidetzarik handiena (% 62,2), honela banatuta: petroliotik eratorritako produktuak (% 43,1), gas naturala (% 13) eta beste solteko salgai likido batzuk (% 6,1). Gainerako karga honela banatu zen: zehaztu gabeko merkantzia (% 26) eta solteko salgai solidoak (% 11,4).

6.5. taula Bilboko eta Pasaiaiko portuetako zirkulazioa, produktu motaren arabera. 2019-2022.

(Tonak milakotan)

Kontzeptua	Bilbo				Pasaia			
	2019	2020	2021	2022	2019	2020	2021	2022
Salgai likidoak	20.821,5	18.156,7	17.764,5	20.452,9	--	--	--	--
Petrolio-produktuak	14.644,3	12.563,8	12.692,5	14.157,7	--	--	--	--
Gas naturala	4.201,3	3.769,6	3.202,9	4.282,8	--	--	--	--
Beste salgai likido batzuk	1.980,5	1.823,3	1.869,1	2.012,4	--	--	--	--
Salgai solidoak	4.681,2	3.668,0	4.651,4	3.752,9	1.031,3	1.009,1	1.104,4	904,0
Salgai orokorrak	9.943,6	7.719,4	8.766,7	8.560,8	2.166,6	1.984,2	2.389,9	2.363,5
Edukiontzietan	6.717,6	5.182,8	5.656,4	5.399,3	--	--	--	--
Beste salgai orokor batzuk	3.226,0	2.536,6	3.110,3	3.161,5	--	--	--	--
Gainerakoak	114,7	101,1	116,5	122,6	47,0	43,3	42,7	45
Guztira	35.561,0	29.645,1	31.299,1	32.889,2	3.244,9	3.036,6	3.537,0	3.312,5


Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiaiko Portu Agintaritza.

Eremu geografikoen arabera, Europako Arku Atlantikoa da lotura komertzialik garrantzitsuen. Bizkaiko golkoan zehar mugitzen den merkantziaren heren bat dagokio (% 33,1). Herrialdearen arabera erakusten duenez, Europako eremu atlantikoko merkatu nagusia izaten jarraitzen du Erresuma Batuak, 3,2 milioi tona baino gehiagorekin eta 2021arekiko +% 14,7ko aldakuntzarekin. Bilboko itsas trafikoaren % 9,8k herrialde anglo-saxoian du jatorria edo helmuga. Eremu atlantikoko bigarren herrialderik garrantzitsuen izaten jarraitzen du Espainiak, 1,9 milioi tonarekin (2021arekiko +% 1,3), hau da, portu-azpiegituran garraiatutako kargaren % 5,8.

Bestetik, Bilboko portuan salerositako produktuaren bolumenari dagokionez, Ipar Amerika finkatu zen bigarren eremu geografiko gisa; 6,1 milioi tona salerosi zituen, hau da, portuko merkataritza-jardueraren % 18,6 (2021ean % 17,7).

Herrialdearen arabera, Estatu Batuak eta Erresuma Batua lehen postuetara igo ziren Bizkaiko portuaren merkataritza-bazkide gisa (4,2 eta 3,2 milioi tona, hurrenez hurren). Errusia hirugarren postuan geratu zen, 2,8 milioi tonarekin; erdira jaitsi zen, 2021arekiko.

6.4. grafikoa Salgaien zirkulazioa Bilboko eta Pasaiaiko portuetan: salgaien tipologia. 2022 (%).



Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiaiko Portu Agintaritza.



Pasaiaiko Portu Agintaritzak erregistratutako datuen arabera, Gipuzkoako azpiegiturak ia 3,3 milioi tona mobilizatu zituen 2022an, 2021ean baino % 6,9 gutxiago.

Euskadiko Garraioaren Panoramika

Mugimenduen banaketari dagokionez, deskargatutako zein kargatutako merkantziak egin zuen behera. Lehorreratzeak % 5,2 murriztu ziren 2021arekin alderatuta, eta 2,1 milioi tona lehorreratuta amaitu zen urtea. Ontziratutako produktuak % 8,8 gutxitu ziren, eta ez ziren 1,2 milioi tonara iritsi. Pasaiaiko portuaren izaera inportatzailea indartu egin zen. Izan ere, guztizkoaren % 63,7 deskargei zegokien (2021ean % 62,5) eta % 35,5 kargei.

Pasaiaiko portuko merkataritza-jarduera produktuen bi multzotara mugatzen da: merkantzia orokorra (% 71,3) eta solteko salgai solidoak (% 27,3). Gipuzkoako portuko itsas trafikoaren % 98,6 batzen dute bi kategoriek. Salerosketen beherakada, batez ere, solteko salgai solidoetan igarri zen (2021arekiko -% 18,1) eta, neurri txikiagoan, merkataritza orokorrean (-% 1,1).

6.5. grafikoa Bilboko eta Pasaiaiko portuen zirkulazioa, herrialdearen arabera. 2022.




Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiaiko Portu Agintaritza.

Merkataritza-jarduera herrialdearen arabera aztertuta, nabarmentzekoa da Erresuma Batua dagoela lehen postuan, Gipuzkoako portuarekiko harreman komertzialari dagokionez (kuotaren % 20,1). Herrialde anglo-saxoiak, batez ere, esportatu egiten du Pasaiaira; izan ere, merkantzien % 60,7 lehorreratu egiten du euskal portuan (2021ean % 63,9). Herbehereek jarraitzen dute bigarren merkataritza-bazkidearen postuan, % 14ko pisuarekin. Eta Belgika mantentzen da hirugarren postuan, Pasaiatik edo Pasaiara itsaso bidez garraiatutako merkantziaren % 13,2arekin.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa**
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

6.6. grafikoa Salgaien itsas zirkulazioa Bermeoko Portuan. 1990-2022 bilakaera.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Ixaso Bidezko Garraioa**
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak




Iturria: Eusko Jaurlaritza.

Bermeoko portuan, trukaturako produktuen kopurua 301,8 mila tonara igo zen: 2021ean baino % 61,2 gehiago.

Merkantzien mugimenduei dagokienez, produktuen lehorreratzea 238,2 mila tonara igo zen. Hala, hazkunde handia izan zuen 2021arekin alderatuta: % 138,1ekoa (+138,2 mila tona). Ontziraturako karga 58,2 mila tonara jaitsi zen; hortaz, % 30,8ko jaitsiera izan zuen aurreko urtearekin alderatuta (-25,9 mila tona). Bermeoko portuak, funtsean, izaera inportatzailea du. Hala, merkantzien deskargak dira Bermeoko azpiegiturako trukeen % 78,9.

6.7. grafikoa Salgaien itsas zirkulazioa Bermeoko Portuan: salgaien tipologia. 2022 (%).



Iturria: Eusko Jaurlaritza.

Merkantzien banaketa taldeka aztertuta, produktu siderurgikoak daude lehenengo postuan. Izan ere, horiek dute pisu handiena (% 46,7) Bermeoko portuko merkataritza-jardueran. Burdinatik eratorritako produktuen kuota murriztu egin zen (2021ean % 71), eta gora egin zuen gatzaren eta sodio kloruroaren (itsasoko ura) kategoriak; bigarren postuan kokatu zen, guztizkoaren % 35,7rekin (106,4 mila tona). Santurtzitik atera eta Bermeon porturatzen zen produktu hori 2022an, Busturialdeara edateko ura eramane beharra zegoelako, lehorrea arintzeko. Hurrengo postuetan daude

egurraren komertzializazioa (2022an % 9,4; 2021ean % 15,7) eta igeltsuaren salerosketa (2022an % 3,5; 2021ean % 9,2).



6.4. Arrantza-flota EAeko portu autonomikoetan

2022an, 186 ontziz osatutako ontzidia zuten EAeko portuek. Bermeoko portuak ditu ontzi gehien: 57 unitate (2021arekiko -% 3,4), guztizkoaren % 30,6. Bigarren postuan Hondarribiak jarraitzen du, 30 ontzi eta % 16,1eko kuotarekin. Hirugarren eta laugarren postuetan Getaria eta Ondarroa daude. Bakoitzak 24 ontzi ditu, hortaz, ontzidi osoaren % 12,9 dagokio bakoitzari. Bilbo eta Pasaia daude hurrengo bi postuetan. Bakoitzak 20 ontzi ditu inskribatuta, eta guztizkoaren gaineko % 10,8ko partaidetza du bakoitzak. Azkenik, Lekeitioko eta Orioko portuak dira ontzi gutxien dituztenak: 6 eta 5 ontzi, hurrenez hurren.

Urte arteko aldakuntzari dagokionez, ontzi kopurua 7 unitate murriztu zen guztira (2021arekiko -% 3,6). Honako portuetako ontzi kopurua gutxitu zen: Ondarroa (-3 ontzi), Bermeo (-2 unitate), Hondarribia eta Getaria (-1 ontzi). Donostiako portuko ontziak Pasaian sartzen dira 2022az geroztik. Pasaiaiko (+2 ontzi) eta Orioko (+1 ontzi) portu-azpiegiturek handitu egin zuten ontzidia.

6.6. taula Erkidegoko portuetako ontzidia 2018-2022.

Itsasontzien kopurua	2018	2019	2020	2021	2022
Bilbo*	24	21	21	20	20
Pasaia*	22	18	19	18	20
Hondarribia	31	32	31	31	30
Plentzia					
Donostia-San Sebastián	5	5	4	3	--
Orio	6	5	4	4	5
Getaria	23	25	25	25	24
Lekeitio	9	9	8	6	6
Elantxobe					
Bermeo	55	57	58	59	57
Mundaka					
Ondarroa	25	26	26	27	24
Santurtzi					
GUZTIRA	200	198	196	193	186

*Bilboko portua (Barne hartzen ditu Zierbenako, Armintzako, Bilboko, Getxoko eta Portugaleteko portuak eta, 2007tik aurrera, baita Elantxobeko portua ere, estatistika-sekretua mantentzeko). Pasaiaiko Portua (Barne hartzen ditu Mutrikuko eta Zumaiako portuak, estatistika-sekretua mantentzeko).



Beste Garraiobide Batzuk eta Intermodalitatea



7.

7. Beste garraibide batzuk eta intermodalitatea

7.1. Beste garraibide batzuk Kable bidezko garraioa

EAEko kable bidezko garraioa (pertsonek bakarrik erabiltzekoa) Artxanda, Larreina, Mamariga eta Igeldoko funikularrek, eta Solokoetxe, Begoña eta Ereagako igogailuek osatzen dute. Kable bidezko azpiegitura guztiak Bizkaiko lurralde historikoan daude, Igeldoko funikularra izan ezik; Donostian dago hori.

7.1. taula EAEko funikularren azpiegituren ezaugarriak.

	Igeldoko f.	Artxandako f.	Larreinetako f.	Mamarigako f.
Bidaia kopurua ibilgailuko	65	70	70	45
Ibilbidearen iraupena	3,2 min	3,18 min	10 min	1,6 min
Abiadura linean	1,5 m/s	5 m/s	2 m/s	6 m/s
Desnibela	151 m	226,49 m	342 m	44,43 m
Batez besteko malda	45%	22,9%	35%	12,6%

Iturria: Euskadiko Garraio Behatokia (OTEUS).

2022an, funikularren sistemak 2,8 milioi erabiltzaile gainditu zituen; hala, % 27,1eko hazkundea izan zuen 2021arekiko. Igeldoko (+% 46,5) eta Artxandako (+% 40,8) funikularrek erregistratu zituzten hazkunderik handienak. Mamarigako funikularrak bidaia gutxiago izaten ditu, baina aurreko urtean baino % 5,1 gehiago izan zituen. Aitzitik, Larreinetako funikularrak aurreko ekitaldian baino % 1,6 bidaia gutxiago izan zituen.

7.2. taula Pertsonen garraioa kable bidez. 2016-2022.

(Bidaiaariak, milakotan)

Modua	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	% Δ 22/21
Artxandako funikularra	773	830	932	1.033	462	709	998	40,8
Larreinetako funikularra	149	139	140	134	103	128	126	-1,6
Igeldoko funikularra	706	775	788	846	287	585	857	46,5
Mamarigako funikularra ¹	975	1.036	1.073	1.082	682	790	830	5,1
FUNIKULARRAK GUZTIRA	2.603	2.780	2.933	3.095	1.534	2.212	2.811	27,1
Ereagako igogailua	363	359	358	385	197	217	246	13,4
IGOGAILUAK GUZTIRA	363	359	358	385	197	217	246	13,4
GUZTIRA	2.966	3.139	3.291	3.481	1.731	2.429	3.057	25,9


¹ 2013ko ekainetik, Mamarigako funikularra doakoa da metroko erabiltzaileentzat.

Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa, Eusko Jaurlaritza, EuskoTren eta Artxandako funikularra.

Orain igogailuz egindako joan-etorrien berri emango dugu, kable bidezko garraioari buruzko informazioa osatzeko. 246 mila pertsonak erabili zuten Ereagako igogailua, 2021ean baino % 13,4 gehiagok. Dena den, oraindik ez du berreskuratu Covid-19aren aurreko bezero kopurua. Ereagako igogailua doakoa izatera pasatu zen 2022ko abendutik aurrera.

7.1.2. Bizikleta

Euskadiko bide-egitura osatzen duen bidegorrien sarearen helburua da ingurumenarekiko abegitsua den garraibidea sustatzea eta mugikortasun jasangarrirantz aurrera egitea. Hori dela eta, foru-aldundiek eta udalek era horretako azpiegituren garapena bultzatzen dute EAEko hiru lurraldeetan,




ingurumenari dagokionez jasangarriagoa den gizartearen alde gero eta handiagoa den herritarren sentsibilitatearekin bat eginda.

Hiri mailan, bizikletentzako bide gehien dituen EAEko hiriburua Gasteiz da: 145,5 km (2021arekiko +% 0,7). Donostian 61 km zituen amaitutako tartek (aurreko ekitaldian baino -% 2,4 gutxiago) eta Bilbon 65,1 km-ko luzera zuen bidegorriak (2021arekiko +% 7,2).


Bidegorri-sistemako tarteen gauzatze maila (osatutako tartek, planifikatutako sarearekiko) % 80,4koa da Gasteizen (181 km daude aurreikusita), % 76,6koa Donostian (85km planifikatuta) eta % 64,2koa Bilbon (95 km trazatuta).

7.1. grafikoa Bizikleta-bideen sarearen kilometro-kopurua EAEko hiru hiriburuetan (bizikleta-sareen egoera 2022ko abenduan).




Iturria: Gasteizko Udala, Bilboko Udala eta Donostiako Udala.

Bizkaia eta Gipuzkoa kontuan hartuta, bizikleta-sareak 825,5 km-ko luzera zuen 2021ean. 2022aren itxieran, Gipuzkoako bizikletentzako bideen sareak (oinarrizko sarea + herriko sarea) 411,6 km-ko luzera zuen, 2021ean baino % 2 handiagoa. Bizkaian, eskuragarri dagoen azken datua 2021ekoa da eta, haren arabera, bizikletentzako bideen luzera ia 422 km-koa zen. Hortaz, amaitutako ardatzak % 1,1 areagotu ziren 2020arekiko.



7.2. grafikoa Bizikleta-sarearen kilometroak hiru lurralde historikoetan. 2022.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 **Beste Garraiobide Batzuk**
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



¹ Eskuragarri dagoen azken datua 2011koa da. Euskadiko Garraioaren Panoramikaren edizio hau itxi dugunean, ez dugu datu eguneratuagorik. Barne hartzen ditu bide berdeen 119,195 kilometro Araban.

² Aurreikusitako sare osoaren eta egindako zatien mapako datuak Oinarrizko Foru Sarearen eta Oinarrizko Tokiko Sarearen batura dira. Gipuzkoako Foru Aldundia.

³ Eskuragarri dagoen azken datua 2021ekoa da.


Iturria: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

7.1.3. Bizkaia Zubia (zubi esekia)

Bizkaia Zubiko (zubi esekia) bidaiari kopurua etengabe murriztu da azken bi hamarkadetan zehar, Bilboko Metroaren eskaintza handitu izanaren ondorioz. Hala ere, 2022an gora egin zuen erabiltzaile kopuruak. 3,3 milioi pertsona garraiatu zituen; termino erlatiboetan, 2021ean baino % 11,3 gehiago (+335 mila bezero). Analisia mende hasierara zabaldua, Areta (Getxo) eta Portugalete arteko joan-etorriek 2,7 milioi pertsonako murrizketa izan dute.

7.3. grafikoa Bizkaiko Zubi Esekiko zirkulazioa. 2001-2022.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraibide Batzuk**
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa.

7.1.4. Bilboko itsasadarreko txalupak

2022ko ekitaldian ez dago Portugalete eta Areta lotzen dituzten bidaiari ontzien trafikoari buruz argitaratutako daturik. Bestalde, Erandio eta Barakaldo artean bidaiari ontzien zerbitzuak 106 mila pertsona lekualdatzen ditu, hau da, aurreko urtean baino % 25,7 gehiago.

7.3. taula Bidaiariontzietako zirkulazioa. 2013-2022.

(Bidaiariak, milakotan)

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	Urteko % Δ 21/20	Urteko % Δ 22/21
Portugalete-Areeta ¹	514,9	486,7	415,8	477,0	465,7	434,7	439,3	356,8	205,2	--	-42,5	--
Erandio-Barakaldo	75,9	78,9	72,0	57,7	39,2	--	--	56,8	84,3	106,0	48,4	25,7
GUZTIRA	590,8	565,6	487,8	534,7	484,9	434,7	439,3	413,6	289,5	106,0	-30,0	-63,4

¹Portugalete-Areetako 2022 bidaiari-daturik ez dago

Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa.

7.2. Plataforma logistikoak eta intermodalak

EAEn, merkantzien garraioaren kudeaketarako irtenbide integralak eskaintzen dituzten lau plataforma logistiko daude: Gasteizko Garraio Zentroa (CTVi) eta Arasur Araban; Aparkabisa, Bizkaian, eta Zaisa, Gipuzkoan. Hurrengo ataletan, plataforma bakoitzaren alderdirik esanguratsuenak laburtzen dira.

7.4. taula EAEko logistika-plataforma handien magnitude nagusiak. 2022.

2022	Instalaturako enpresak	Enplegua	Salgaien zirkulazioa (tona urtean)	Ibilgailu indust. zirkulazioa eguneko		Ibilgailu industrialentzako aparkaleku-kopurua	Ibilgailu industrialentzako aparkalekuaren azalera, guztira (m ²)	Ibilgailu industrialentzako aparkalekuetako toki-kopurua	Batez besteko betetze-maila ibilgailu ind. aparkalekuetan, guztira
				Kamioiak	Furgonetak				
	68	1.642	n.d.	1.278	545	1	23.821	182	98,9%
	14	230	1.500.000	200	120	1	20.000	197	70%
	48	42	268.764	425	316	4	192.050	1.260	97%
	131	1.820	3.200.000	1.910	3.000	2	45.000	370	96,5%

Iturria: Aparkabisa, Arasur, Gasteizko Garraio Zentroa (CTVi) eta Zaisa logistika-plataformak.

7.2.1. Gasteizko Garraio Zentroa (CTVi)

Gasteizko Garraio Zentroa (CTVi) Jundiz industrialdean dago, Gasteiztik gertu; jarduera logistikoak garatzera bideratutako enpresak finkatzea helburu duen osagai dinamizatzailea da. Plataforma horrek 718.141 m²-ko azalera du guztira, eta horietatik, 238.929 m² nabeek hartzen duten azalera da, eraikitako azalera, alegia. Nabeetan garraioarekin eta logistikarekin zerikusi zuzena duten jarduerak egiten dira: biltegiatzea, banaketa, aduanak eta stockak kudeatzea, zama zatitzea eta finkatzea, eta garraio motaz aldatzea.

Horren haritik, honela banatuta dago jarduera horiek egiteko azalera: garraio motaz aldatzeko jardueretarako (tren bidezko garraiotik errepede bidezkora eta alderantziz) azalera 122.587 m²-koa da; banaketa-jardueretarako, 110.336 m²-koa, biltegiatze-eta garraio-jardueretarako, berriz, 109.312 m²-koa.

Logistika-jarduerarako azalera 190.441 m²-koa da, zerbitzuen zonak 28.214 m² hartzen ditu, eta ibilgailu industrialentzako aparkalekurako azalera, berriz, 23.821 m²-koa da.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 **Beste Garraibide Batzuk**
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

7.5. taula CTViren jardueraren bilakaera. 2020-2022.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 **Beste Garraibide Batzuk**
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

	Instalaturako enpresak	Enplegua	Salgaien zirkulazioa (tona urtean)	Ibilgailu indust. zirkulazioa eguneko Kamioiak Furgonetak	Ibilgailu industrialentzako aparkaleku-kopurua	Ibilgailu industrialentzako aparkalekuaren azalera, guztira (m ²)	Ibilgailu industrialentzako aparkalekuetako toki-kopurua	Batez besteko betetze-maila ibilgailu ind. aparkalekuetan, guztira	
2020	69	1.653	n.d.	1.160	561	1	23.821	182	98,9%
2021	69	1.601	n.d.	1.265	539	1	23.821	182	98,9%
2022	68	1.642	n.d.	1.278	545	1	23.821	182	98,9%

Iturria: Gasteizko Garraio Zentroa (CTVi)

2022an 68 enpresa zeuden CTVi-n (-1 konpainia 2021arekiko), eta horiek 1.642 langile zituzten. Hortaz, langile kopurua % 2,5 hazi zen aurreko urtetik (41 kontratazio berri). Ibilgailu industrialen zirkulazioa % 1 hazi zen, kamioien eta furgonetan trafikoak gora egin zuelako. Zama garraiatzeko ibilgailuen aparkalekuaren okupazio mailak % 98,9koa izaten jarraitu zuen; batez beste, 180 plaza zeuden okupatuta. Ibilgailu abonatuaren kasuan, okupazio-tasa % 91,8koa zen (160 plaza).

7.2.2. Arasur

Arabako plataforma logistiko multimodala da Arasur, eta Miranda de Ebrotik gertu dago. 551.000 m²-ko guztizko azalera urbanizagarria du eta 85.000 m² ditu eraikita. Bere garapen ekonomikoak lan hauek jasotzen ditu: portuko eta aireko jarduerari babesa ematea, biltegitratzea, erregulazioa eta banaketa, ontzi-aldaketa intermodala, flotisten garraioa eta nazioarteko zirkulazioa eta administrazio eta merkataritzako guneari dagozkion jarduerak. Gainera, plataformak zentroko nabeetara trenbide bidez sarbidea izateko zerbitzua du; horri esker, trena-kamioia intermodalitatea eskaintzen du.

7.6. taula Arasurren jardueraren bilakaera. 2020-2022.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 **Beste Garraibide Batzuk**
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

	 Instalaturako enpresak	 Enplegua	 Salgaien zirkulazioa (tona urtean)	 Ibilgailu indust. zirkulazioa eguneko Kamioiak	 Ibilgailu indust. zirkulazioa eguneko Furgonetak	 Ibilgailu industrialentzako aparkaleku-kopurua	 Ibilgailu industrialentzako aparkalekuaren azalera, guztira (m2)	 Ibilgailu industrialentzako aparkalekuetako toki-kopurua	 Batez besteko betetze-maila ibilgailu ind. aparkalekuetan, guztira
2020	14	220	1.500.000	200	120	1	20.000	197	67%
2021	15	230	1.300.000	180	100	1	20.000	197	70%
2022	14	230	1.500.000	200	120	1	20.000	197	70%

Iturria: Arasur.

2022an 14 enpresa zeuden instalatuta (2021ean baino 1 konpainia gutxiago), eta horiek 230 langile zituzten (aurreko urteko lanpostu kopuru bera). Erregistratutako merkantzien trafikoa 1,5 milioi tonara igo zen (+% 15,4 aurreko ekitaldiarekin alderatua). Ibilgailu industrialen eguneko zirkulazioa 200 kamioira (+% 11,1) eta 120 furgonetara (+% 20) igo zen. Aparkalekuaren batez besteko okupazioa ibilgailu industrialentzako guztizko edukieraren % 70ean mantendu zen (197plaza).

7.2.3. Aparkabisa

Aparkabisa -Bizkaiko Garraio Gunea zentro logistikoaren jardueraren xedea da salgaiez eta ibilgailu industrialen aparkalekuz osatutako zentralak sustatzea, prestatzea eta ustiatzea. Azpiegitura oso ongi komunikatuta dago Bilboko portuan dituen instalazioei esker. Gainera, Loiuko aireportutik gertu dago, bai eta Espainiako estatua Europarekin lotzen duten errepide-eta tren-sare nagusietatik gertu ere.

Gaur egun, Aparkabisak bi eremutan jarduten du: Ugarteko garraio-zentroan (Barakaldo eta Trapagaran artean dago, eta 200.000 m2-ko azalera eraikia hartzen du) eta Zierbenan (Bilboko portuaren lurretan dago eta 112.560 m2-ko azalera du).

7.7. taula Aparkabisaren jardueraren bilakaera. 2020-2022.

	Instalaturako enpresak	Enplegua	Salgaien zirkulazioa (tona urtean)	Ibilgailu indust. zirkulazioa eguneko Kamioiak Furgonetak	Ibilgailu industrialentzako aparkaleku-kopurua	Ibilgailu industrialentzako aparkalekuaren azalera, guztira (m ²)	Ibilgailu industrialentzako aparkalekuetako toki-kopurua	Batez besteko betetze-maila ibilgailu ind. aparkalekuetan, guztira	
2020	52	45	n.d.	n.d.	304	4	192.050	1.235	97%
2021	48	42	n.d.	n.d.	316	4	192.050	1.235	95%
2022	48	42	268.764	425	316	4	192.050	1.260	97%

Iturria: Aparkabisa. Bizkaiko Garraio Gunea, A.B.

2022an mantendu egin zen plataformako enpresa kopurua (48 enpresa) eta enplegua (42 langile). Merkantzien trafikoa 238,7 mila tonakoa izan zen. Ibilgailu industrialei dagokienez, egunean 425 kamioi eta 316 furgoneta erregistratu ziren. Lau aparkalekuetako 1.260 plazen erabilera-tasa % 97ra igo zen. Hala, 2021ean baino ehuneko bi puntu handiagoa izan zen erabilera-tasa.

7.2.4. Zaisa

Zaisa (Irungo Garraio Zentroa) Gipuzkoako logistika-zentroa da eta Europako errepideko zirkulazioaren leku estrategiko batean dago, Frantziaren eta Espainiaren arteko mugan, A-8 eta A-68 autobideen ondoan, Madril eta Paris arteko ardatzean; gainera, Donostiako eta Biarrizko aireportuetatik gertu dago, eta Pasaiaiko portutik hurbil. 400.000 m² hartzen ditu zentroak, eta 126.608 m²-koa da eraikitako azalera, garraio-eta logistika-jarduerak egiteko. Jakina, non kokatuta dagoen ikusita, nazioarteko garraioa eta logistika dira nagusi. Biltegitratzeko nabeetarako 8.500 m², bulego eta lokal komertzialetarako 7.000 m², harrera-zentroa eta ZAISA III-ko gasolinazerbizugunearen orubea ditu plataformak. Instalazio horietan jarduten duten enpresek hainbat jarduera egiten dituzte: garraio nazionala eta nazioarteko garraioa, karga zatitua, karga osoa, salgai arriskutsuen garraioa, logistika eta biltegitratzea, hozkailu-ibilgailuen bidezko banaketa eta aduanetako jarduerak.

7.8. taula Zaisaren jardueraren bilakaera. 2020-2022.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 **Beste Garraiobide Batzuk**
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

	Instalaturako enpresak	Enplegua	Salgaien zirkulazioa (tona urtean)	Ibilgailu indust. zirkulazioa eguneko Kamioiak Furgonetak	Ibilgailu industrialentzako aparkaleku-kopurua	Ibilgailu industrialentzako aparkalekuaren azalera, guztira (m ²)	Ibilgailu industrialentzako aparkalekuetako toki-kopurua	Batez besteko betetze-maila ibilgailu ind. aparkalekuetan, guztira
2020	138	1.765	3.100.000	1.590 2.750	2	45.000	375	89,7%
2021	134	1.820	3.200.000	1.920 2.900	2	45.000	370	96,5%
2022	131	1.820	3.200.000	1.910 3.000	2	45.000	370	96,5%

Iturria: Zaisa

2022an 131 enpresa zeuden plataforman. Hortaz, urte arteko aldakuntza $-2,2\%$ koa izan zen (3 enpresa gutxiago). Dena den, zuzeneko enplegua 1.820 langiletan mantendu zen, eta merkantzien trafikoa 3,2 milioi tonan.

Ibilgailu industrialen eguneko trafikoari dagokionez, ibilgailu astunen trafikoak $0,5\%$ eko jaitsiera apala izan zuen (egunean 1.910 kamioi). Furgoneten eta autoen zirkulazioa, berriz, $3,4\%$ hazi zen; egunean, batez beste, 3.000 ibilgailu.

Ibilgailu industrialak aparkatzeko 2 aparkaleku daude. Horiek 45.000 m² hartzen dituzte, eta 370 ibilgailuentzako edukiera dute. Guztizko okupazio maila $96,1\%$ koa da (2021ean $96,5\%$ koa); abonatuaren plazen kasuan 100% koa da okupazioa, eta txandakako plazen kasuan $84,76\%$ koa.

7.2.5. Geltoki intermodalak

Merkantzien trenbide bidezko garraioa bultzatzea da Eusko Jaurlaritzaren helburu nagusietako bat. Horretarako, 2011n lankidetzeta-protokolo bat sinatu zuen Sustapen Ministerioarekin Jundizko (Araba) eta Lezoko (Gipuzkoa) terminal logistiko intermodalak garatzeko. Biak Sustapen Ministerioak Salgaien Trenbide Garraioa Sustatzeko Plan Estrategikoko terminal logistiko intermodalen oinarritzko sarean sartuta daude.

Gasteizko Jundiz logistika-plataforma intermodalean, terminala handitzeko eta birmoldatzeko aurreikusitako jarduketan barruan, Jundizeko (Gasteiz) plataforma intermodala eta logistikoa eraikitzeko eta hura Atlantikoko ardatzeko zabalera estandarrerara konektatzeko lanen lehen fasea egiteko kontratua esleitu zen 2022ko ekainean. 16 hilabeteko epea dago lanak egiteko. Proiektuaren baitan, instalazio teknikoko bide kopurua handituko dute: hiru izatetik laura pasatuko da, eta zabalera mistoa ezarriko dute horietako bitan. Halaber, modulu intermodal berri bat eraikiko dute, topedun bi biderekin, zabalera mistoarekin eta plakako bidearekin, eta horiek portiko-garabiak eta terminal intermodalerako bide-sarbidet berriak izango dituzte.

2022an, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari Lezo-Gaintzurizketako (Gipuzkoa) terminal intermodal eta logistikoaren informazio-azterlana, trenbide-espazioak mugatzeko eta erabiltzeko proiektua eta trenbide-zerbitzuko eremua antolatzeko plan berezia egiteko egindako gomendioaren bigarren aldaketa baimentzeko akordioa onartu zen, behar bezalako publizitatea emateko.

Laburpen
Exekutiboa 0

Esparru
Orokorra 1

Bilakaera
Orokorra 2

Errepide
Bidezko
Garraioa 3

Tren
Bidezko
Garraioa 4

Aire
Bidezko
Garraioa 5

Itxaso
Bidezko
Garraioa 6

**Beste
Garraibide
Batzuk 7**

Ondorio
eta Joera
Nagusiak 8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria 9

Funtsezko
Adierazleak 10

Eranskinak 11



Ondorio eta Joera Nagusiak



8.

8. Ondorio eta Joera Nagusiak

8.1. Garraio-jarduerak sortutako ondorioak

Kapitulu honetan zehar garraioak hiritarren osasunean eta ingurumenean eragin ditzakeen ondorioak garatzen dira. Kalte horiek direla eta, sektoreak plangintza bat egin behar du, jasangarritasunaren ikuspegitik, pertsonen mugikortasunarekin eta merkantzien garraioarekin lotutako azpiegitura, intsumo, zerbitzu eta prozesu erraztaileetatik eratorritako kostuak ahalik eta gehien murrizteko.

8.1.1. Istripuak

Garraio-jardueraren ondorioen artean, istripuak dira gizartean kalte eta eragin negatibo handienak sortzen dituztenetako batzuk. Horri dagokionez, zehaztu behar dugu “2020-2025 Euskadiko Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Seguru eta Jasangarriko Plan Estrategikoak” helburu hau duela:

“Istripu-tasa murriztea (trafiko-istripuek eragindako Zero biktimaren ikuspegitik) eta, horrela, Euskadi bide-segurtasunari eta trafikoaren kudeaketari dagokionez Europan erreferente biburtzea, hildako eta larri zauritutako pertsonen kopurua murrizteko helburu orokorrak betez”.


Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzaren 2022ko Estatistika Urtekarian bildutako informazioaren arabera, euskal errepideetan biktimak eragin zituzten 4.459 trafiko-istripu izan ziren (2021eko antzeko zifra, 4.458 istripu), 5.781 izan ziren kaltetuak (+% 1,3 aurreko ekitaldiarekin alderatuta). Lesioen irismenari dagokionez, kaltetutakoen % 91,1ek zauri arinak izan zituzten, % 8,1 larri zauritu ziren eta % 0,8 (44 pertsona) hil ziren istripuen ondorioz euskal errepideetan 2022an. Aurreko urteko erregistroekin alderatuta, igoera ikus daiteke arin kaltetu zirenen (+% 1,1), larri zauritu zirenen (+% 3,1) eta hildakoen (+% 4,8; 2021ean baino 2 hildako gehiago) artean.

Laburpen Exekutiboa	0
Esparru Orokorra	1
Bilakaera Orokorra	2
Errepide Bidezko Garraioa	3
Tren Bidezko Garraioa	4
Aire Bidezko Garraioa	5
Itxaso Bidezko Garraioa	6
Beste Garraiobide Batzuk	7
Ondorio eta Joera Nagusiak	8
Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria	9
Funtsezko Adierazleak	10
Eranskinak	11

Euskadiko Garraioaren Panoramika

8.1. grafikoa Ertzaintzak eta Udaltzaingoak¹ 2000 eta 2022 artean EAEko bide-azpiegituretan erregistratutako biktimadun istripuak eta biktimak.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 **Ondorio eta Joera Nagusiak**
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak





¹ 2005 arte hiru euskal hiriburutako udaltzaingoak adierazitako istripuak soilik; 2006 euskal hiriburuak, Irun, Santurtzi, Sestao eta Basauri; 2007 euskal hiriburuak, Irun, Beasain eta Basauri; 2008 euskal hiriburuak, Irun, Santurtzi eta Sestao; 2009 euskal hiriburuak, Irun, Barakaldo, Santurtzi, Sestao, Lezo eta Zarautz; 2010, 2011, 2012, 2013 eta 2014 euskal hiriburuak, Irun, Barakaldo, Santurtzi, Sestao eta Zarautz; 2015, 2016 eta 2017 euskal hiriburuak, Barakaldo, Santurtzi, Sestao eta Zarautz; 2018 euskal hiriburuak, Barakaldo eta Santurtzi; 2019 euskal hiriburuak, Barakaldo, Santurtzi, Errenteria eta Ordizia; 2020 euskal hiriburuak, Barakaldo, Getxo eta Irun; 2021 euskal hiriburuak, Getxo, Eibar, Portugalete, Leioa, Basauri, Pasaia, Galdakao, Orio, Sestao, Barakaldo, Errenteria, Villabona, Amurrio, Gernika-Lumo, Irun, Muskiz, Ermua, Ortuella eta Beasain; 2022 euskal hiriburuak, Barakaldo, Getxo eta Irun.

Iturria: Trafiko Istripien Urtekari Estatistikoa. Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza.

EB-27ko ezbehar-tasari dagokionez, argitaratutako 2021eko Europako azken datuen arabera, Malta da trafiko-istripuengatik heriotza-tasa txikiena izan zuen herrialdea: 17 hildako/miloi bat biztanleko. Bigarren postura jaitsi zen EAE milioi bat pertsonako 19 heriotzarekin (2020an, 17). Hurrengo hiru postuetan zeuden Suedia (20), Danimarka (22) eta Irlanda (27 heriotza milioi bat biztanleko). Espainia zortzigarren postura jaitsi zen 32 hildako/miloi bat biztanleko (2020an, 29) EB-27an errepideetan milioi bat biztanleko hil zirenen tasa 45ekoa izan zen (2020an, 42), Euskadin erregistratutako batez bestekoaren bikoitza baino gehiago.

8.2. grafikoa Bide-istripuetan hildakoen kopurua milioi bat biztanleko EB-27n. 2021.



Iturria: eu Transport in Figures. Statistical Pocketbook 2023 Trafiko Istripuen Urtekari Estatistikoa. Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza; INE.

Lurralde historikoka, Ertzaintzak idatzitako txostenean islatutako heriotza-tasari buruzko informazioak erakusten du biktimak eragin zituzten EAeko istripuen % 15,4 Araban gertatu zirela. Larritasun-mailari dagokionez, Arabako errepideek heriotzen % 17,7 erregistratu zituzten eta EAeko errepideetako zauritu larrien % 28,2. Larritasun txikieneko biktimak Euskadiko zauritu arinen % 16,1 izan ziren.

Bizkaian, lesioak eragin zituzten istripuen % 46,8 gertatu ziren. Ondorio larriak jasan zituztenei dagokienez, EAeko guztizkoaren % 33 izan ziren Bizkaian, eta hildakoak, aldiz, EAeko errepideetan hildakoen % 38,2. Bizkaiko bideetan arin zauritutakoak Euskadin erregistratutako zifraren % 48 izan ziren.

8.1. taula Ertzaintzak erregistratutako biktimadun trafiko-istripuak, lurralde historikoaren arabera. 2022.

Lurraldea	Biktimak eragin dituzten istripuak		Biktimak							
			Guztira		Hildakoak		Zauritu larriak		Zauritu larriak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Araba	368	15,4	566	17,2	6	17,7	82	28,2	478	16,1
Bizkaia	1.118	46,8	1.533	46,5	13	38,2	96	33,0	1.424	48,0
Gipuzkoa	905	37,8	1.194	36,3	15	44,1	113	38,8	1.066	35,9
EAE, guztira	2.391	100	3.293	100	34	100	291	100	2.968	100

Oharra: 24 ordu baino lehen hildakoak.


Iturria: Trafiko Istripuen Urtekari Estatistikoa. Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza.

Gipuzkoako bide-sarean, biktimak eragin dituzten EAEko istripuen % 37,8 gertatu ziren, eta istripuek eragindako EAEko heriotzen % 44,1. EAEko errepideetan larri zauritutakoen % 38,8 eta arin zauritutakoen % 35,9 Gipuzkoan izan ziren.

14.1.1. Auto-pilaketak

EAEko auto-pilaketak aztertzeke, kontrako efektua eragiten duten faktoreak identifikatu behar dira, horien artean ibilgailu pribatu bidezko mugikortasuna nabarmentzen da, horren motorizazio-indizeak gorantz egin du etengabe 90. hamarkadatik, etenaldi puntualekin. 2022an, mila biztanleko 462,8 ibilgailura igo zen EAEko motorizazio-maila, 2021arekin alderatuta, % 0,4 igota.

8.3. grafikoa Turismo-parkea eta motorizazioa. 1998-2022 bilakaera.



Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia eta EIN. GIS -Garraioaren Informazio Sistema (OTEUS).

Euskadiko bide-sareetako pilaketa-arazoa trafikoaren Eguneko Batez besteko Intentsitatearen (EBBI) datuak sareko neurketa-estazioetatik aztertuta enfoka liteke. Hori kalkulatzeko, errepide batek urtebetean duen trafikoaren bolumen osoa urteak dituen 365 egunez zatitzen da. Aipatzekoa da okupazio-intentsitate handia duten bideak egoteak eragin negatiboak dituela, esaterako, pilaketa-egoerak eta kutsadura maila handiagoa; eragin negatibo horiek gutxitu egin behar dira ahal den neurrian.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 **Ondorio eta Joera Nagusiak**
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

Hurrengo koadroan 2022ko EBBIren aldakuntza zehazten da lurralde historiko bakoitzeko sare motaren arabera. Bizkaian, 2021arekin alderatuta, lehentasunezko sarean intentsitatea % 11,8 handitu zen; oinarritzko sarean, % 8,6, eta herri-bideetan, % 24,6. Gipuzkoako bide-sisteman, indizea lehentasunezko sarean (+% 8,7), eskualdeko sarean (+% 7,9) eta oinarritzko errepideetan (+% 4,6) igo zen. Araban, 2021ko datuei dagokienez, lehentasunezko errepideetan indizea % 22,5era igo zen, % 15,6 auzoko sarean eta % 15,5 herriko sarean.


8.2. taula EBBIren bilakaera, sare motaren eta lurralde historikoaren arabera (ibilgailu kopurua/eguneko), 2021-2022.

Lurralde historikoa	Bide mota	Ibilgailu kopurua/eguneko		Δ % 21/22
		2021	2022	
Araba	Lehentasunezko sarea	17.188	-	-
	Oinarritzko sarea	3.755	-	-
	Eskualdeko sarea	1.274	-	-
	Herriko sarea	692	-	-
	Sare gris nagusia	-	-	-
	Bigarren mailako sare grisa	-	-	-
	Sare urdin osagarria	-	-	-
	Auzoko sarea	180	208	15,6
Bizkaia	Lehentasunezko sarea	28.524	31.900	11,8
	Oinarritzko sarea	15.015	16.309	8,6
	Eskualdeko sarea	3.357	3.289	-2,0
	Herriko sarea	1.278	1.592	24,6
	Sare gris nagusia	-	-	-
	Bigarren mailako sare grisa	-	-	-
	Sare urdin osagarria	11.626	9.935	-14,54
	Auzoko sarea	-	-	-
Gipuzkoa	Lehentasunezko sarea	20.150	21.897	8,7
	Oinarritzko sarea	17.139	17.925	4,6
	Eskualdeko sarea	2.632	2.841	7,9
	Herriko sarea	991	1011	2,0
	Sare gris nagusia	506	502	-0,8
	Bigarren mailako sare grisa	199	206	3,5
	Sare urdin osagarria	-	-	-
	Auzoko sarea	-	-	-

Iturria: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia

EAEko hiriburuetan, eguneko batez besteko intentsitatea indartu egiten da hiriguneetarako sarrera guztietan, 2 salbuespenekin. Gasteizen, multzoan erregistratutako trafikoa % 4,2 igo zen 2021arekin alderatuta, puntu guztietan egin zuen gora Gasteizeko Mendatean izan ezik (-% 3,9). Intentsitatea handiagoa duten errepideak Ihurreko lotunea, egunean 32,6 mila ibilgailurekin (+% 6,1) eta Gamarrako lotunea dira, egunean 21,7 mila ibilgailurekin (+% 4,8). Bizkaiko hiriburuan, sarbideen baturaren EBBIa % 7,2 hazi zen aurreko urtearekin alderatuta. Dentsitatea murriztu zuen puntu bakarra Basurtu-Zorrotza da (-% 1,9). EBBI handiena duten sarrerak Basurtu-Kastrexana, egunean 51,4 mila autorekin (+% 6,2), eta Deustu-Enekuri dira, egunean 48,9 mila ibilgailurekin (+% 9,8). Gipuzkoan, hiriburura sartzen diren ibilgailuak % 6,2 hazi ziren 2021 urtearekin alderatuta, sarrera jendetsuenak izan zituzten puntuak Intxaurrendoko Tunela, egunean 54,7 mila sarrerarekin (+% 10,2), eta Martutene izan ziren, egunean batez beste 38,8 mila ibilgailurekin (+% 4,2).

8.3. taula EBBIren bilakaera euskal hiriburuetarako sarbideetan (ibilgailu kopurua/eguneko). 2021-2022.



Hiriburu	Sarbideak	Ibilgailu kopurua/eguneko		Δ % 21/22
		2021	2022	
Gasteiz	Gometxa	15.701	16.158	2,9
	Arkauti	7.668	7.739	0,9
	Gamarrako lotunea	20.746	21.749	4,8
	lhurreko lotunea	30.756	32.626	6,1
	Gasteizko mendatea	3.491	3.354	-3,9
	Gasteizko sarrera guztiak	78.362	81.626	4,2
Bilbo	Deustu-Elorrieta	10.037	10.608	5,7
	Deustu-Enekuri	44.518	48.860	9,8
	Artxandako tunelak	18.517	21.635	16,8
	Orueta-Egirleta	34.987	36.113	3,2
	Ibarsusi-Etxebarri	28.214	30.565	8,3
	Bolueta-Zubialdea	8.614	8.649	0,4
	Miraflores-Hegoaldeko irt.	43.536	46.573	7,0
	Zabalburu plaza-Hegoaldeko irt.	34.791	37.561	8,0
	Jesusen Bihotza plaza-Hegoaldeko irt.	5.579	5.691	2,0
	Basurtu-Kastrexana	48.340	51.386	6,3
	Basurtu-Zorrotza	6.719	6.593	-1,9
Bilboko sarrera guztiak	283.852	304.234	7,2	
Donostia	Tolosa hiribidea	27.317	27.415	0,4
	Donostiako Ospitalea	11.450	12.142	6,0
	Amara	37.254	38.834	4,2
	GI40 Ospitaleak	13.697	14.693	7,3
	Intxaurrendoko tunela	49.645	54.689	10,2
	Zorroagako tunela	21.211	22.724	7,1
	Donostiako sarrera guztiak	160.574	170.497	6,2

Iturria: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia

Informazio osagarri gisa, Bizkaiko errepideen pilaketa-egoera aztertzeko, “Trafikoaren bilakaera Bizkaiko errepideetan”¹⁸ txostena dugu esku artean (Bizkaiko Foru Aldundiak egina).

2022an Bizkaiko edukiera handiko sarean, E mailan funtzionatutako ordu kopurua urteko orduen % 0,67 dira eta F kategorian kontrolatutako tarteen funtzionalitate-zerbitzuaren mailak urteko orduen % 0,04ri eutsi zion. Pilaketa orduak (E-F mailak) urteko guztizkoaren % 0,71ra jaitsi ziren; hala, erregiratutako trafikoak intentsitate-maila altuak eskuratu zituen orduen ehunekoa txikia da.

¹⁸ Informazio gehiagorako, kontsultatu:

http://www.bizkaia.eu/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=6322&Idioma=CA

8.4. taula Bizkaiko errepideen urteko funtzionamendu-orduak, zerbitzu mailaren arabera. 2022.

Gunea	Zerbitzu-maila							Orduak, guztira	
	Errepidea	A	B	C	D	E	F		
21a1	Kaxtresana G. -Gurutzeta G. (BI-S)	A-8	3.309	1.572	2.708	1.168	2	1	8.760
21a2	Kaxtresana G. -Gurutzeta G. (S-BI)	A-8	3.415	1.171	2.207	1.884	82	1	8.760
45a1	Arrontegiko zubia (BI-Getxo)	N-637	3.561	1.679	2.290	1125	102	3	8.760
45a2	Arrontegiko zubia (Getxo-BI)	N-6370	3.960	1.688	2.067	924	114	7	8.760
81a1	Erandio G. -Unibertsitate G. (BI-Getxo)	BI-637	6.430	992	1.113	224	0	1	8.760
81a2	Erandio G. -Unibertsitate G. (Getxo-BI)	BI-637	5.295	1.334	1.735	395		1	8.760
99a1	Enekuri G. -Artxandako tunelak	N-637	4.385	2.092	1.731	457	88	7	8.760
99a2	Artxandako tunelak -Enekuri G.	N-637	4.615	1.525	1.629	946	44	1	8.760
179a1	Sestao G. -Trapagaran G. (BI-S)	A-8	3.370	1.309	2.746	1.239	95	1	8.760
179a2	Trapagaran G. -Sestao G. (S-BI)	A-8	3.367	1.453	2.248	1562	116	14	8.760
183A	Areeta -L.P. Santander	A-8	8.759	0	0	0	0	1	8.760
Orduak, guztira									
Guztizko orduak zerbitzu-mailaren arabera banatuta, ehunekotan									
					50,466	14,815	20,474	9,924	643
					52,37	15,37	21,25	10,30	0,67
E eta F mailen batura. Guztizko orduen gainean duen parte-hartzea, ehunekotan					--	--		--	--

Iturria: Trafikoaren Bilakaera Bizkaiko Errepideetan. Bizkaiko Foru Aldundia.

Azterketa azken hamar urteetara (2013-2022) hedatuz gero, Bizkaiko edukiera handiko errepideetako auto-pilaketek gorantz egiten jarraitu zuten 2019ra arte. Joera hori 2020an eten zen (ehuneko -1,4 puntu) Covid-19aren ondorioz finkatutako mugikortasun-mugen ondorioz. 2021ean, ehuneko 0,11 puntuko gorakada egon zen, 2022an, aldiz, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko 0,4 puntuko jaitsiera antzeman zen.

8.5. taula Bizkaiko errepideetako pilaketaren bilakaera. 2013-2022.

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
E eta F mailen batura. Guztizko orduen gainean duen parte-hartzea, ehunekotan	1,02	1,13	1,15	1,44	1,45	1,79	2,06	0,66	0,75	0,71

Iturria: Trafikoaren Bilakaera Bizkaiko Errepideetan. Bizkaiko Foru Aldundia.

Amaitzeko, aurreko edizioetan bezala, nabarmentzekoa da pilaketek Barne Produktu Gordinaren % 1eko kostua eragiten diotela Europari, urtero (Europako Batzordearen "Garraioa 2050" estrategia globalaren arabera¹⁹), eta horrek kezka handia sortzen duela. Gainera, merkantzien garraio-jarduerak 2030erako % 40 inguru haziko direla aurreikusten da, 2005arekin alderatuta (2050ean % 80 baino gehiago). Bidaiarien garraioa, berriz, % 34 haziko litzateke (2050ean % 51).

8.1.2. Ingurumena

a) Zarata

Garraio-jardueraren garapenak berarekin dakar biztanleen osasunean, bizikidetzan eta ongizatean ondorio negatiboak dituen inpaktu akustikoa. Zentzu horretan, kutsadura akustiko horrek sortzen dituen ondorio kaltegarrien artean, hauek dira azpimarragarrienak: interferentziak loan, ahozko komunikazioan eta eguneroko jardueran, bai eta ondorio psikologiko eta fisiologiko kaltegarriak ere.


¹⁹ MEMO Garraioa 2050: http://europa.eu/rapid/press-release_MEMO-11-197_es.pdf

Euskadiko Garraioaren Panoramika

Hurrengo ataletan EAEko hiru hiriburuei eragiten dieten ingurumen-zarataren fokoen laugarren fasearen Zarataren Mapa Estrategikoetan (ZME) lortutako azterketak eta emaitzen ebaluazioa aurkezten da²⁰. Mapa estrategikoek bideko eta trenbideko trafikoaren, industria-jardueraren eta aireportu-trafikoaren ondorio diren lurretik 4 metroko altuerako immisio-mailak biltzen dituzte²¹.

Hiru euskal hiriburuetan, gaua da garairik kaltegarriena, erreferentziazko mailatik gora kaltetutako biztanleen zifra altuena erakusten baitu ($L_n=55$ dBA). Zehazki, Bilbon eta Gasteizen gauean 55 dBA-tik gorako kaltea jasaten duen biztanleriak antzeko pisua du (% 10 eta % 9,5 hurrenez hurren), Donostiako biztanleria kaltetua, bestalde, % 30,7 izan zen. 2017arekin alderaturik, Bilbon kaltetutako biztanleriaren jaitsiera nabarmena izan zen, 2017an % 30 izatetik 2022an guztizko zarataren % 10 izatera pasatu zen. Zarataren ebaluazioaren etengabeko hobekuntza Bilboko Udalak sustatu du (Ekintza Planaren bidez. Donostian, bestalde, kaltetutako biztanleen ehunekoak gora egin du (% 12koa zen 2017an) kalkulu-metodoaren aldaketaren ondorioz zarata-fokuen zehaztapen handiagoa hartzen baitu kontuan. Gasteizen, kaltea 2017koaren antzekoa izan zen (% 10ekoa zen 2017an).



Bideko trafikoa da hirian biztanleei kalterik handiena sortzen diena, kaleekin lotutako fokua da pertsona gehien kaltetzen dituen. Bilbon, bideko trafikoak kaltetutako biztanleria gehiena bat dator bideko ardatz handiekin. Gipuzkoako hiriburuan, zarata-maila handiena sarrerako bideetan eta kaleen tipologia eta ibilgailu ugari biltzen dituzten erdiguneko auzoetarako arteria nagusietan sortzen da. Gasteizen, eremurik kaltetuenak udalerriaren trafikoa kanalizatzen duten kale nagusiak dira eta, oro har, abiadura-mugarik ez dutenak.



²⁰ Informaziogehiagorako, kontsultatu Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistemaren webgunea: <https://sicaweb.cedex.es/consulta-de-mapas-de-rudio/4a-fase/>

²¹ Gasteizen, errepideko trafikoak kaleak eta tranbia biltzen ditu. Bilbon, tranbiaren bidean sortutako zarata trenbide bidezko trafikoaren barnekotzat hartzen da. http://europa.eu/rapid/press-release_MEMO-11-197_es.pdf

8.4. grafikoa. EAEko hiru hiriburuetako bideko trafikoak eragindako zarataren eraginpean dauden biztanleak¹. 2022.



¹ 4 metroko altueran zarataren eraginpean dauden biztanleak, 5 dB(A)-ko tartetan.



* Donostian eraginpean dauden biztanleak badaude, baina 51 baino gutxiago dira. 0 balioak eraginpean dauden biztanle-egoerak adieraz ditzake, baina ehunekoak biribilduta ez dira iristen 1eko baliora.

Iturriak: Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistema: <https://sicaweb.cedex.es/consulta-de-mapas-de-rudio/4a-fase/>, Gasteizko Udala, Bilboko Udala eta Donostiako Udala.

Trenbide-trafikoak kaltetutako biztanleak gutxi dira. Bilbon, trenbideak gutxieneko eragina du gehiena lurpean baitago eta trenbidearen lehen lerroko eraikinei eragiten die soilik. Donostian, garairik kaltegarriena arratsaldea da, eta sareari dagokionez, ADIF lineak eragiten du zaratarik handiena, batez ere Groseko bihurtunean; ETS linean, aldiz, Errondo Pasealekuko bihurtunea da kaltetuena. Arabako hiriburuan, ADIF sareak lehen lerroan dauden eraikinei eragiten die funtsean. 2017arekin erlazionaturik, Gasteizko foku horretako zarata nabarmen murriztu da, merkantzia-tren desberdinen emisioak doitzearen eta joan-etorriak txikitzearen ondorioz.

Industriari dagokionez, Bizkaiko eta Gipuzkoako hiriburuetan ez dago foku horrek kaltetutako biztanlerik, Arabako hiriburuan, bestalde, jarduera industrialak gutxieneko eragina du egoitza-eraikuntzen gainean.

8.5. grafikoa. EAEko hiru hiriburuetako trenbideko trafikoak eragindako zarataren eraginpean dauden biztanleak¹. 2022.




1 4 metroko altueran zarataren eraginpean dauden biztanleak, 5 dB(A)-ko tartetan.

* Donostian eraginpean dauden biztanleak badaude, baina 51 baino gutxiago dira. 0 balioak eraginpean dauden biztanle-egoerak adieraz ditzake, baina ehunekoak biribilduta ez dira iristen 1eko baliora.

Iturriak: Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistema: <https://sicaweb.cedex.es/consulta-de-mapas-de-rudio/4a-fase/>, Gasteizko Udala, Bilboko Udala eta Donostiako Udala.

Bilbon, eragin handiena jasaten duten barrutiak Deustu, Abando eta Basurtu/Zorrotza eta Errekalde dira oraindik ere, mapa honek erakusten duen moduan. Aitzitik, kalte txikiena jasaten dutenak Otxarkoaga/Txurdinaga eta Uribarri dira.

8.6. grafikoa. Bilbo erdiguneko bideko trafikoaren zarataren mapa estrategikoa. Lden. 2022.




Iturriak: Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistema: <https://sicaweb.cedex.es/consulta-de-mapas-de-rudio/4a-fase/>, Bilboko Udala.

Donostian, 60 eta 65 dB(A) arteko maila akustikoak jasaten dituzten guneak sortzen dituzten trafiko-ardatz nagusiak herrigunea inguratzen duen GI-20 saihesbidea eta etxebizitzak hurbil dituzten tarteetako GI-41 errepidea eta bide hauek dira: Ibaeta: Tolosa etorbidea, Errotaburu pasealekua eta Zarautz kalea edo Antiguoa: Zumalakarregi etorbidea edo Aiete: Lugaritz pasealekua edo Erdigunea: Zubieta, San Martin eta Urbieta kaleak, Foruen eta Gernikako Arbolaren pasealekua edo Amara: Karlos I etorbidea, Bizkaia eta Loiolako Erribera pasealekuak edo Gros: Mirakruz kalea, Nafarroa hiribidea eta Kolon pasealekua edo Egia: Karmengo Amaren etorbidea edo Ategorrieta, Intxaurren eta Mirakruz: Ategorrieta etorbidea eta Jose Elosegi alkatea edo Altza: Pasaiako Portua etorbidea

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak**
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

8.7. grafikoa. Donostiako bideko trafikoaren zarataren mapa estrategikoa. Lden. 2022.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak**
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak




Iturriak: Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistema: <https://sicaweb.cedex.es/consulta-de-mapas-de-rudio/4a-fase/>, Donostiako Udala.

Gasteizen, inpaktu akustikoak gehien eragiten dien bideak udalerrian trafikoa bideratzen duten kale nagusiak dira eta gehienek ez dute 50 km/h-ko abiaduratik beherako murriztapenik, besteak beste: Forondako Atea, Zadorra hiribidea, Juan Garai, Salburua bulebarra, Brusela hiribidea, Madril, Zaramaga, Herrandarrak, Frantzia, Bake, Errege-erregina Katolikoak, Basoa, Gasteiz hiribidea, Honduras, Simon de Anda, Florida, Manuel Iradier, Zumakadi ibilbidea, Zumabide, Gaztelako Atea, Armentigaina, Zabalgana hiribidea, Euskal Herria bulebarra, etab. Errepideen bide-trafikoak puntualki eragiten die trafiko-azpiegiturretatik hurbil dauden landaguneetako udalerriei, hauei esaterako: Gamarra, Elorriaga edo Arniz.

8.8. grafikoa. Gasteizko bideko trafikoaren zarataren mapa estrategikoa. Lden. 2022.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraio bide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak**
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



Iturriak: Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistema: <https://sicaweb.cedex.es/consulta-de-mapas-de-rudio/4a-fase/>, Gasteizko Udala.

“Familiak eta Ingurumena Inkesta”-ren arabera²², Eustatek 2021ean argitaratutako azken ikerketan, euskal etxebizitzaren % 8,3k lurreko garraioarekin erlazionaturiko arazoren bat jasaten zuten 2020an, Bizkaian zertxobait handiagoa zen ehunekoa (etxebizitzaren % 8,7%), Gipuzkoak hurbiletik jarraitzen zion (etxebizitzaren % 8,6) eta Araban eragina txikiagoa zen (bizilekuen % 4,9).

b) Aldaketa klimatikoa

2023ko azaroaren 30etik abenduaren 12ra artean egin ziren Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenaren Kideen hogeita zortzigarren Konferentzia (COP28) eta Kiotoko Protokoloko Kideak biltzeko Kideen hemezortzigarren Konferentzia (CMP18), Arabiar Emirerri Batuetan.

COP28 agenda klimatikoaren mugarria da, 2015eko COP21 Parisko Hitzarmenean finkatutako helburuetan lortutako aurrerapen orokorrei buruzko lehenengo munduko balantzea aurkezten baitu. Hitzarmenak 4 ekintza-ardatz ditu:

- Trantsizio energetikoa azkartzea eta 2030erako emisioak murriztea: 2030ean gaitasun berriztagarria hirukoiztea eta energia-eraginkortasunaren ratioa bikoiztea, elektrifikazioa handitzea eta metano-emisioak murriztea 2030erako, baita erregai fosilen erabilera ere.
- Finantziario klimatikoari dagokionez: egindako promesak betetzea eta alor horretako hitzarmen orokor berrirako oinarriak finkatzea. Finantziarioa bikoizteko helburua betetzea 2025ean

²² Informazio gehiagorako, kontsultatu:

http://es.eustat.eus/estadisticas/tema_456/opt_0/ti_Medio_ambiente_-_Familias/temas.html

Euskadiko Garraioaren Panoramika

moldatzeko, baita 2024an onartu beharko den Finantziario Klimatikoaren Helburu Kolektibo Neurgarri Berriaren oinarriak finkatzea ere.


- Ekintza klimatikoaren erdigunean natura, pertsonak, bizitzak eta bizibideak jartzea. Egipton 2022an onartutako Galera eta Kalteetarako Funtse martxan jartzea espero da, baita Egokitzapen Helburu Orokorrerako marko sendoaren ezarpenean aurrera egitea ere.
- Historiako COP inklusiboena antolatzeko eragile guztiak mobilizatzea, gazte askok, delegazio paritarioek eta komunitate indigenen ordezkariak ere parte hartzeko.

2022an aldaketa klimatikoaren efektuak murrizteko Nazioartean onartutako konpromisoak hartu ostean, EAEn inizatiba hauek garatu dira:

- Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Plana egin da 2021-2024 aldirako. Planen proposatutako 15 inizatibaren aurrerapen-mailak % 48ko batez besteko balioa erdietsi du.
- 2022ko Euskadiren Ingurumen Profila aurkeztu da. Lurraldearen bioaniztasunaren gaia jorratu da, besteak beste, babestutako azalera naturala, espezien kontserbazio-egoera edo alor horretarako euskal inbertsio publikoa kontuan izanda.
- Europako mugaz gaindiko lehenengo aldaketa klimatikora egokitzeko estrategia sortzen parte hartu du. Aldaketa Klimatikoaren Pirinioetako Estrategia (AKPE) mugaz gaindiko ekintzan oinarritutako aldaketa klimatikora egokitzeko plan aitzindaria da eta arintze-ekintzak txertatzen ditu.
- Lehenengo 2030eko Euskadiko Lurraren Babes Estrategia onartu da; lurraren kudeaketa modu integralean jorrotzen du eta kutsatutako lurretan lan egitearen ohiko ikuspegia gaitzen du.
- LIFE IP Urban Klima 2050eko lantaldea handitu da, proiektua euskal lurraldea eraldatzen ari da 40 arintze- eta egokitze-ekintzaren koordinazioaren bidez.
- Asteklimaren hirugarren edizioa egin da, herritarrak trantsizio energetikoa eta klimatikoa beharrezkoa dela kontzientziatzeko eta mobilizatzeko helburuarekin.
- The Climate Group-ek Euskadi aukeratu du Berotegi-Efektuko Gasen (BEG) emisioak satelite bidez neurtzeko nazioarteko proiektu baterako; arintze-ekintza eraginkorrak eta pertsonalizatuak definitzen lagunduko du horrek.
- 2025erako Ekintza Planaren garapena martxan jarri da, Euskadiren aldaketa klimatikoarekiko herritarren ahalduntzearen inguruan.
- SPRIri Basque Net-Zero Industrial Supercluster (Basque Net-Zero) inizatiba garatzen lagundu zaio.


Eskuragarri dagoen azken datua 2021ekoa da eta haren arabera, BEGen guztizko emisioak % 7,6 hazi ziren 2020arekin alderatuta: 17,6 milioi tonara hurbildu ziren. Emisioen garapenak jardura ekonomikoaren joera berari jarraitzen dio (EAEko BPG % 5,5 hazi zen 2020arekin alderatuta). Bi adierazleen hazkundea 2021eko jardura berreskuratzeari zor zaio, 2020an Covid-19aren pandemiaren ondorioz jasandako geldialdiaren ostean.

Kiotoko protokolorako erabiltzen den berotegi-efektuko gasen guztizko isurpen-indizea ehuneko 15,4 puntu jaitsi zen, oinarri-urtearekin (1990) alderatuta.



8.9. grafikoa Berotegi-efektuko gasen isuriak EAEn, sektorearen arabera. 2021 (%).

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak**
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasagarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak




*Energia-sektorean inportatutako energia elektrikoa sartzen da.

Iturria: Berotegi-efektuko gasen isurketen inbentarioa. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2021. Eusko Jaurlaritza.

Berotegi-efektuko gasen guztizko isurpenak sektoreka banakatuta, berotegi-efektuko gasen sortzaile nagusia garraioa dela ikusten da (EAEn guztizkoaren % 34,9). Bigarren postuan energia-sektorea jarraitzen du (inportatutako energia elektrikoa gehituta) Euskadin isuritako gasen % 30,8 sortu baitzuen. Industria-sektorea jarraitzen dio; izan ere, haren pisua guztizko sektoreko isurpenen % 19,9ra igo zen.

Garraio-sektorearen datuak banaka aztertuta, sortutako emisioen CO₂ 6,1 milioi tonara igo zela antzematen da. Termino erlatiboetan, isurpena % 6,7 hazi zen 2020arekiko. 2021ean mugikortasunari aplikatutako neurri murriztaileak malgutzeak justifikatzen du sektorearen berotegi-efektuko gasen hazkundea.

8.10. grafikoa Berotegi-efektuko gas-isurien bilakaera EAEn, jardura-sektorearen arabera. 1990-2021 (%).




* Energia-sektorearen zuzeneko isurpenak (inportatutako energia elektririk gabe).

* Energia-sektorearen isurpenak, inportatutako energia elektrikoa barne.

Iturria: Berotegi-efektuko gasen isurketen inbentarioa. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2021. Eusko Jaurlaritza.

Sektoreka egindako berotegi-efektuko gasen isurien 2021eko eta 1990eko (Kiotoko Protokoloaren oinarri-urtea) datuak alderatuta, agerian uzten du garraioaren sektorea % 119,3 hazi zela eta hazkunde handiena duen sektore-jarduera dela. Atzetik, zerbitzuen atala % 94,9 hazi zen eta etxebizitza taldeak % 39,1 egin du gora. Kontrako alderdian energia-sektorea dago, inportatutako elektrizitateak eragindako emisioak bilduta, % 78,1 egin baitzuen behera 1990eko datuekiko.

8.11. grafikoa Garraio-sektorearen BEG isuriak EAEn. Bilakaera. 1990-2021.



Iturria: Berotegi-efektuko gasen isurketen inbentarioa. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2021. Eusko Jaurlaritza.

Aurreko urteetan bezala, honako jarduera hauek nabarmendu behar dira garraio-sektoreak klima-aldaketan duen eragina murrizteko hartu dituen neurrien artean: ibilgailu industrial arinen eta autoen gaineko zergak haiek isurtzen dituzten CO₂ igorpenen arabera modulatzeko, ibilgailu elektrikoetarako laguntzak ematea, bioerregaien erabilera hedatzea eta ibilgailu hibrido edo elektrikoena.

Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren markoko (MOVES III PROGRAMA) mugikortasun elektronikoarekin lotutako pizgarrien programa 2022 osora zabaldu zen.


c) Energia-kontsumoa²³

EAEn azken energia-kontsumoak egonkor eutsi zion 2022an, atzerapen arina izan zuen (2021arekiko -%0,4) eta ekitaldia 4.902,7 mila tonarekin (ktep) itxi zuen. Azken hamarkadan garraioaren sektoreak izan duen energia-kontsumoaren garapena kontuan izanda (2012-2022), % 19,6ko hazkundera erregistratu zuen, errepideko mugikortasunaren etengabe hazkundera eraginda.

²³ 2011n, Eurostat metodologiaren arabera, elektrizitatearen ekoizpenerako baterako sorkuntzarako instalazioetan erabiltzen den energiaren zatia eraldaketa-sarreretan erregai-kontsumo gisa kontabilizatu zen. Beroa ekoizteko erabilitako erregaiaren zatia, berriz, kontsumitzailearen sektorean zuzenean kontabilizatu zen, hark baliatzen du eta. Horrez gainera, energia-eraldaketako kontsumo horiek azken kontsumora eskualdatze horretan, beroa ez zen kontabilizatu eraldaketa-irteeratzat deribatutako energia gisa, ez eta azken sektoreetako kontsumo-energia ere. Edonola ere, energia-kontsumoaren urtetik urterako analisia homogeneoa da, kopuruak berriz kalkulatu baitziren 2010etik hona, metodologia berriaren arabera.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraio-bide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak


8.12. grafikoa Energiaren azken kontsumoa sektoreka. 2012-2022 bilakaera.



Iturria: Euskadi Energia, Datu Energetikoak 2022. EEE.

Garraioaren sektorean, energia-kontsumoa 2.178,8 ktep-ra igo zen, 2021ean baino % 6,3 gehiago. 2022an, energia-kontsumoan igoera duten segidako bi ekitaldi kateatu ziren, 2012tik goranzko joera zuen ibilbidea eten zuen bi urteko erorikoaren ondoren (2019 eta 2020). Garraio-jarduerak Euskadiko energia-gastuaren % 44,5 biltzen du.

8.13. grafikoa EAEko energia-kontsumoaren banaketa, jarduera-sektorearen arabera. 2022 (%).




Iturria: Euskadi Energia, Datu Energetikoak 2022. EEE.

Garraioaren azpisektoreei dagokienez, errepideko trafikoak (zerbitzu publikoa eta pribatua) sektore-jardueraren energia-kontsumoaren % 93 sortu zuen (1990an % 91,3). Atzetik, aireko garraioak sektorearen energia-gastuaren % 4,2 izan zuen. Pisu txikiagoa dute itsasoko eta trenbideko azpisektoreek, % 2,1 eta % 0,7 hurrenez hurren.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 **Ondorio eta Joera Nagusiak**
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

8.14. grafikoa Energia-kontsumoaren banaketa garraio-sektorean. 2022.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraibide Batzuk
- 8 **Ondorio eta Joera Nagusiak**
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak




Iturria: Euskadi Energia, Datu Energetikoak 2022. EEE.

Energia motaren araberako kontsumoaren banaketak 2022an petrolio-produktuen dependentzia hazi zela erakusten du, gasolioen, gasolinen, kerosenoen eta PGLek sektorean kontsumitutako energiaren % 94,1 hartu baitzuen (2021ean, % 93,7). Bioerregaien kuota % 4,8raino jaitsi zen (2021ean % 5,6). Sektoreko energia-iturrien artean dagoen proportziorik gabeko hazkundeak petroliotik eratorritako produktuak erretzean sortzen den CO₂ isurpen handia eragiten du; ondorioz, garraio-sektoreak berotegi-efektuko gasak igortzen dituzten eragileen lehenengo postuari eusten dio.

Lurraldeen arabera, garraio-jarduerak sortutako energia-kontsumoak hiru lurraldeetan egin du gora du azken hamarkadan (2012-2022). Bizkaian, zehazki, energia-kontsumoa % 22,3 igo da, Euskadiko garraioaren guztizko gastuaren % 37,5. Gipuzkoako lurraldean, energia-dependentzia % 23,5 hazi da, sektore-kontsumoaren % 39,9 lortuta. Azkenik, Arabak hamarkadan % 10,6ko hazkundera izan du, eta sektorean kontsumitutako energiaren % 22,6ko pisuari eutsi dio.


8.15. grafikoa Energia-kontsumoa garraio-sektorean, lurraldearen arabera. 2012-2022.



Iturria: Euskadi Energia, Datu Energetikoak 2022. EEE.

Garraio-sektorearen faktura energetikoaren zenbatekoa 4.522,2 milioi eurora igo zen, hazkundera handia da hori aurreko urtearekin alderatuta (+% 46,5).

8.16. grafikoa Garraio-sektorearen energia-fakturaren bilakaera EAEn: 2012-2022 bilakaera.



Iturria: Euskadi Energia, Datu Energetikoak 2022. EEE.

2022an, garraio-sektoreko bioerregaien kontsumoa petrolioaren baliokidea den 104,8 mila tonara jaitsi zen, 2021etikiko % 14,4 murriztu zen.

Euskal hiriburuetan garraio kolektiboaren zerbitzua ematen duten hiru operadoreetako autobusei dagokienez, 2022an Bilbobusek 141 autobus zituen Bilbon (34k % 8,5eko biodiesel nahasketa zerabilten, 13 elektrikoak ziren eta 94 hibridoak). Dbusek, Donostian, 140 ibilgailu zituen (50 hibrido eta 3 elektriko). 2022an, Gasteizen, Tuvisak 90 ibilgailu zituen (10 hibrido eta 13 elektriko).

Azkenik, administrazio publikoek garraioaren arloan energia modu eraginkorrean erabiltzeko hartu dituzten neurrien artean, beste urte batez, aipatzekoak dira prestatu diren hiri-mugikortasuneko planak eta modu eraginkorrean gidatzeko profesionalentzako nahiz profesionalak ez direnentzako ikastaroak, EEEk (Energia Euskal Erakundea) eta IDAEk (Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Erakundea) sustatuak. Era berean, aipatu beharrekoa da CIC energiGUNEk bioerregaiak garatzeko ikerketaren inguruan egindako lana.


8.1.3. Garraio-jarduerak sortutako ondorioak

Kapitulua ixteko, “Garraioaren kanpo-kostuen eguneraketa EAEn” txostenean argitaratutako informazioak barne hartzen dituen alderdirik esanguratsuenak gogoratuko ditugu, 2019ko (eskuragarri dauden azken datuak) egoerari buruzkoak. Euskadiko garraioak sortu zituen kanpo-efektuen kostu osoa 2.659 milioi eurokoa izan zen 2019an²⁴.

²⁴ 2021eko urtarrilean Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak argitaratutako txostena. Informazio gehiagorako: https://www.euskadi.eus/web01-a2garrai/es/contenidos/documentacion/coste_transportes_ext_capv/es_def/index.shtml.

8.17. grafikoa Garraioaren kanpo-kostuen banaketa EAEn, garraibidearen arabera. 2019 (%)


- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraibide Batzuk
- 8 **Ondorio eta Joera Nagusiak**
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



Iturria: EAEko garraioaren kanpo-kostuak eguneratzea 2019. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza

Errepideko garraioak du kanpo-kosturik handiena kostu osoaren barruan; 1.598 milioi € (osoaren % 60,1), eta, gero, itsaso bidezko garraioak, 836 milioi euroekin (% 31,4). Hirugarren tokian dago aire bidezko garraioa; 157 milioi euroko (% 5,9) kanpo-kostua sortzen du, eta, azkenik, trenbidezko garraioa, 67 milioi euroekin (% 2,5).

8.18. grafikoa Garraioaren kanpo-kostu osoa EAEn, kostuaren kategoriaren eta garraibidearen arabera. 2019.




Iturria: EAEko garraioaren kanpo-kostuak eguneratzea 2019. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza

Garraioaren kanpo-kostu gehien sortzen duten kategoriak dira airearen kutsadura, kanpo-kostu osoaren % 27,3 (725,8 milioi €), aldaketa klimatikoa, % 21,1 (560,6 milioi €), eta istripuak, % 20,5eko pisuarekin (543,8 milioi €). Hiru taldeek batera hartzen dute sortutako kanpo-kostu osoaren % 68,9.

8.2. Garraio jardueraren joerak EAEn

Jarraian ageri den koadroak EAEko garraio-jardueraren alderdi nagusiak jasotzen ditu, mugikortasunari eta jasangarritasunari dagokienez. Jarraian azalduko ditugun aldagaien bilakaeraren bidez neurtzen dira alderdi horiek:

Mugikortasuna	
<ul style="list-style-type: none"> Parke mugikorra arin joan zen hazten krisi ekonomikoaren urteetan zehar EAEren motorizazio-indizeak izan zuen geldialdiaren ostean. Azken hamarkadan, motorizazio mailaren hazkundera etengabea izan da. 2022an igoera arina erregistratu zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Errepide-sarea handitu da. Azken bi hamarkadetan, 2000-2020 edukiera handiko bideak % 26,9 luzatu dira. Euskal errepide-sare osoarekiko edukiera handiko bideek duten ehunekoa 2000an %11,4 izatetik 2020an % 15,2 izatera igaro zen. Hiri-eremuan bidaiariak garraio kolektiboaren zerbitzuekin (autobusa eta trena) egindako lekualdatzeak 2019ko ekitaldira arte hazkunde tinkoa izan zuten, eta 2020ko geldialdiaren ondoren, azken bi ekitaldiak suspertzeko izan dira. 2000-2022 aldirian, bidaiek % 29,6ko hazkundera erregistratu zuten. Hazkundera % 50,3koa izan zen 2000-2019 aldirian. Hirigunetako eta metropolietako edukiera handiko garraio publikoaren mugikortasuna handitu egin da. Bilboko Metroan, balioztatzeak % 44,8 hazi ziren 2000 eta 2022 urteen artean, Covid-19aren pandemiarengatik egin ez ziren joan-etorrien zati bat errekuperatu zen, baina 2020a baino lehenagoko maila berreskuratu gabe. Bilboko eta Gasteizko tranbien joan-etorriek ere joera bera izan zuten. EAE jatorri edo helmuga duen aireko garraioa ia bikoiztu egin zen 2000-2022 aldirian (+% 95,4). Pandemia baino lehenagoko 2000-2019 garaia kontuan izanda, euskal aireportuen erabiltzaileen hazkundera % 118koa izan zen. EAEko merkantzien itsas garraioa 2022an trukaturako guztizko kargaren % 19,5koa izan zen. 	
Jasangarritasuna: garraioaren jasangarritasunarekin lotutako beste alderdi batzuk	
<ul style="list-style-type: none"> 2012-2022 hamarkadan, garraio-sektoreko energia-konsumoa % 19,6 hazi zen, nagusiki Covid-19aren pandemiaren aurreko ekitaldietan errepideko mugikortasuna handitu izanaren ondorioz. 	






Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria



9.



9. Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria



Eusko Jaurlaritzak Euskadin garraio-eredu jasangarri bat lortzeko bidean aurrera egitea du helburu. Horregatik, Euskadiko Garraio Jasangarriaren 2030 Gidaplana²⁵ egin du.

Plan berriak jarraipena ematen dio “Garraio Jasangarriaren 2002-2012 Gidaplanari”²⁶ eta bat dator liburu honetan zehaztutako europar irizpideekin: Liburu Zuria - Europako Garraio Politika 2010erako²⁷. Halaber, bat dator Hazkunde adimendun, jasangarri eta integratzaile baterako Estrategia-Europa 2020 izeneko estrategiarekin. Era berean, garapen jasangarriko 2030 Agendak osatzen du. Nazio Batuen Batzar Nagusiaren Ebazpen bidez onartu zen 2015eko irailaren 25ean.

Kapitulu honetan, Europar Batasunak egindako “Liburu Zuria: Europar espazio bakarrerako ibilbide-orria: garraio-politika lehiakor eta jasangarri baterako bidea”²⁸ izeneko lanean ezarritako helburuen laburpena eskaintzen da. Era berean, “Garraio Jasangarriaren 2030 Gidaplanean” jasotako helburu eta estrategia nagusiak aipatuko ditugu.

Amaitzeko, Euskadin garraio-plangintza jasangarriagorantz aurrera egiteko Eusko Jaurlaritzak 2020an garatutako jarduerak zehaztuko ditugu.

9.1. Europar Batasuneko Liburu Zuriko helburu nagusiak

“Liburu Zuria: Europar espazio bakarrerako ibilbide-orria: garraio-politika lehiakor eta jasangarri baterako bidea” liburu, 2011ko martxoan argitaratua, Europako Batzordeak Europar Batasuneko garraio-sistemaren etorkizunari dagokionez zer ikuspegi duen azaltzen duen dokumentu estrategiko berria da, eta orobat, hurrengo hamar urteetarako agenda politikoa zehazten du.

Ildo horretan, liburuan hamar helburu zehaztu dira, ekintza politikoak orientatzeko eta Europako garraio-sistema lehiakor eta jasangarri baterako bidea neurtzeko diseinatu direnak.

Erregai eta propulzio-sistema jasangarri berriak garatzea eta erabiltzea


- 2030. urterako, hiriko garraioan propulzio-sistema arrunta duten autoen erabilera erdira jaitea; 2050erako, pixkanaka-pixkanaka desagerraraztea; 2030erako, hirigune nagusietako logistika-elementuek CO₂-ren igorpenik egin ez dezaten lortzea.
- 2050erako, aireko garraioaren sektorean, erregai jasangarri hipokarbonikoen erabilera % 40ko mailara iristea; 2050erako, Europar Batasuneko CO₂ igorpenak, itsas garraioaren sektorean erabiltzen diren galdaren fuel-olioak eragindakoak, % 40 gutxitzea (eta ahal bada, % 50).

²⁵ Informazio gehiagorako: <http://www.euskadi.eus/plan-director-del-transporte-sostenible/web01-a2kudeak/es/>

²⁶ Informazio gehiagorako: http://www.bizkaia.eus/fitxategiak/07/Mediateka/3_Plan%20Director%20Transporte%20Sostenible%202002-2012_cas.pdf?hash=64add5a4cb06a627466a2075a8a59c32

²⁷ Informazio gehiagorako: Liburu Zuria - Europako garraio-politika 2010. urteari begira

²⁸ Informazio gehiagorako: Garraioaren Liburu Zuria - Europako garraio-gune bakar baterako ibilbide-orria



Kate logistiko multimodalen errendimendua optimizatzea, baita energiaren ikuspegitik erabilera eraginkorragoak bultzatuz ere

- Gaurtik 2030era bitartean, errepide bidezko garraioaren % 30 beste modu batzuetara aldatzen saiatzea (adibidez, tren bidezko garraioa edo itsas nabigazio bidezkora), salgaiak garraiatzeko korridore eraginkorrak eta ekologikoak baliatuz; 2050erako, % 50etik gora finkatu da helburua. Helburu hori lortzeko, ezinbestekoa izango da azpiegitura egokia garatzea.
- 2050erako, Europako abiadura handiko trenen sarea osatzea. 2030erako, abiadura handiko trenbideen sarearen luzera hirukoiztea, eta estatu kide guztietan trenbide-sare trinkoari eustea. 2050ean, bidaiarien distantzia ertaineko garraioaren zatirik handiena trenez egin beharko litzateke.
- 2030erako, Europako oinarritzko garraio-sarea izatea, Europar Batasuneko eremu guztia hartuko duena, multimodala eta guztiz operatiboa. Garraio-sare horrek goi-mailako kalitatea eta ahalmena izan behar ditu 2050erako, eta dagozkion informazio-zerbitzuak.
- Gaurtik 2050era bitartean, oinarritzko sareko aireportu guztiak trenbide-sarearekin lotzea, ahal dela abiadura handiko trenbide-sarearekin; itsas portu nagusiek salgaiak garraiatzeko trenbide-sistemarekin behar bezalako lotura dutela bermatzea, eta ahal denean, baita barruko bide nabigagarrien sistemarekin ere.

Garraioaren eta azpiegitura-erabileraren eraginkortasuna handitzea, informazio-sistemak eta merkatuan oinarritutako pizgarriak baliatuz

- 2020rako aireko zirkulazioa kudeatzeko azpiegitura modernizatuko Europako sistema (SESAR)²⁹ ezartzea, eta Abiaziorako Europako Eremu Bateratua eraikitzen amaitzea. Garraioa kudeatzeko sistema baliokideak ezartzea errepide, itsas eta ibai bidezko garraioetarako (ERTMS³⁰, ITS³¹, SSN y LRIT³², RIS³³). Europako satelite bidezko nabigazio-sistema orokorra ezartzea (Galileo).
- 2020rako, garraio multimodalen informaziorako, kudeaketarako eta ordainketarako Europako sistema baten esparrua ezartzea.
- Gaurtik 2050era bitartean, errepide bidezko garraioan hildakorik ez («zero hildako») izateko helburua hurbiltzea. Helburu horren harira, EBk errepideko biktimak 2020rako erdira jaisteko helburua ezarri da. EB mota guztietako garraioen segurtasunean eta babesean munduko lehena dela ziurtatzea.
- «Erabiltzaile ordaintzailea» eta «kutsatzen duenak ordaindu egiten du» printzipioak bere osotasunean betetzeko bidean aurrera egitea, eta sektore pribatuak konpromisoa hartzea desorekak deuseztatzeko (diru-laguntza kaltegarriak barne), diru-sarrerak sortzeko eta etorkizunean garraioan inbertsioak egitea bermatzeko.

²⁹ Europako ATM Gida Planaren arabera: https://ec.europa.eu/transport/modes/air/sesar/deployment_en

³⁰ Europako ERTMS ezarpen-planaren arabera: ikus Batzordearen C (2009) 561 Erabakia.

³¹ EasyWay 2 ezarpen-planaren arabera: ikusi Batzordearen C (2010) 9675 Erabakia.

³² 2002/59/EE Zuzentaraua, itsasoko trafikoari buruzko jarraipen- eta informazio-sistema komunitario bat ezartzeari buruzkoa (L 208 EO, 2002.8.5ekoa), 2009/17/EE Zuzentarauak aldatua (L 131 EO, 2009.5.28koa).

³³ Ikus 2005/44/EE Zuzentaraua.

9.2. Garapen Jasangarriko Gida Planeko helburu eta estrategiak

2030eko Garraio Jasangarriko Gida Plana

2017ko ekainean, Euskal Autonomia Erkidegoko “Garraio jasangarriaren 2030 Gidaplana” onartu zen. 2002-2012 aldirako egin zen planari jarraipena ematen dion plana da, eta 2011n Europar Kontseiluak egindako Garraioaren Liburu Zurian ezarritako Europako norabideari jarraitzen dio, baita Hazkunde adimendun, jasangarri eta integratzaile baterako Europa 2020 Estrategiarekin ere. Halaber, garapen jasangarriko Agenda 2030ekin ere osatuko da, Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiak onartua 2015ko irailean. Garraio Jasangarriaren Gidaplanaren misioa da garraio-eredu jasangarri eta integratua lortzea Euskadiren kohesio sozialerako eta garapen sozioekonomikorako tresna moduan.

Sei helburu nagusi zehaztu dira, eta bakoitza behar bezala mugaturik dago. Estrategiak, bestalde, helburu bat baino gehiago lortzeko erabil daitezke.

1. Helburua. Ekonomia-garapena jasangarria, adimenduna eta arduratsua sustatzea

Europako politikaren ildoak jarraituz, helburu hau ekonomia-hazkundera sustatzean datza, eta garraioaren eragin kaltegarriak murriztean, ekonomia-garapenaren eta garraioaren eskariaren handitzearen arteko lotura deseginez. Horretarako, ongi planifikatutako eta antolatutako garraio-sare jasangarri bat garatu behar da, eta sare horrek administrazioen, enpresen eta, oro har, euskal gizartearen lankidetzeta eta koordinazioa izan behar ditu.

1. Helbururako Estrategiak:

- Gizarte- eta ekonomia-garapeneko kultura jasangarria sustatzea, administrazioen, enpresen eta gizartearen bidez garraioa koordinatuta planifikatuz eta antolatuz.
- Euskadin garraioaren lehiakortasuna sustatzea.
- Garraio-sistema aurreratua eta kostuak barneratzeko irizpideak oinarri dituen sustatzea.

2. Helburua. Irisgarritasun unibertsala sustatzea, lurralde-plangintza egokiarekin bat


Irisgarritasunak gero eta protagonismo gehiago izango du datozen urteetan. Batez ere biztanleriaren zahartzeak baldintzatuko du joera hori, mugikortasunari dagokionez. Horregatik, garraio-sistema irisgarria eta lurralde-plangintza egokia izatea funtsezko helburuak dira. Pertsonen nahiz salgaien mugikortasun-beharrak ase beharko dira, baina hurrengo belaunaldien gaitasuna arriskuan jarri gabe.

2. Helbururako Estrategiak:


- Garraio jasangarria sustatzea irisgarritasuna bermatuz, lurralde-plangintza jasangarriarekin koordinatuta.
- Mugikortasunaren eskaria garraio jasangarriko alternatiben bidez kudeatzea.
- Jarduera sortzen duten gune nagusietan aurrera egitea irisgarritasuna eta mugikortasun jasangarria lortzeko.

3. Helburua. Garraio-moduen arteko bestelako oreka sustatzea

Helburu hau Euskadiko garraio-moduen erabileran beste oreka jasangarriago bat ezartzean datza. Horretarako, intermodalitatea sustatuko da pertsonen nahiz salgaien garraiorako, eta ekonomiari,



gizarteari eta ingurumenari dagokionez jasangarriagoak diren garraio-moduak sustatuko dira, hala nola itsasoko garraioa eta trenbide bidezkoa. Hala, isuriak murriztuko dira, eta Euskadiren ingurumen-helburuak eta -betebeharrak betetzen lagunduko da. Zehazki, Euskadiko trenbide-sarea, dentsitate handia izan arren, XIX. mendean diseinatutako trazadurekin eta funtzionalitateekin bat dator. Beraz, modernizazioa behar du, trenbideak garraiobide moduan erabilera handiagoa izan dadin.



3. Helbururako Estrategiak:

- Intermodalitatearen garapena sustatzea, pertsonen garraioan nahiz salgaienean, bidaiarien garraio-sare publikoa koordinatua eta barneratua garatuz, bai eta azpiegitura logistiko multimodalaren sare bat ere.
- Garraio-jasangarriagoen erabilera sustatzea, batez ere trenbide-sistemarena.
- Garraioaren petrolioaren ordez energia alternatiboaren erabilera sustatzea, ingurumen-inpaktua eta etorkizunean energia horren gabeziak eragin dezakeen zaurgarritasuna murriztuz.

4. Helburua. Euskadiren kokapen estrategikoa sustatzea Europan

Euskadik kokapen estrategikoa du Europan eta haren balioa azpimarratu behar du, joan-etorrian dabilzan fluxuen kudeatzaile gisa ez ezik, kontinenteko komunikazioen nodo logistiko intermodalaren kudeatzaile gisa ere. Abantaila hori ustiatzeko, kalitateko azpiegitura logistiko bat behar da, lehiakorra eta intermodala, eta erakunde publikoek eta pribatuek azpiegitura horretan lagundu behar dute.

4. Helbururako Estrategiak:

- Euskadik Europan duen kokapen estrategikoari garrantzia ematea, ez joan-etorrian dabilzan fluxuen kudeatzaile gisa soilik, baita kontinenteko komunikazioen nodo logistiko intermodalaren kudeatzaile gisa ere.
- Basque Country Logistics eredia ezartzea, erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetzaren bidez, gure enpresek gero eta merkatu globalizatuago batean lehiatzeko aukera izan dezaten.
- Aireportu-garraio irisgarriagoa, barneratuagoa eta lehiakorragoa lortzeko bidea jorratzea.

5. Helburua. Garraio-sistemen erabilera eraginkorra eta arduratsua sustatzea

Gero eta beharrezkoagoa da garraio-sistema eraginkor, barneratu eta koordinatu bat izatea, eta gizartean garraio-sistemaren erabilera arduratsuen kontzientzia sortzea. Ildo horretan, gero eta herrialde gehiago ari dira berriz antolatzen garraio publikoaren finantzazio-eredua, Europako ildoetara jarraikiz, eta zerbitzuak eta azpiegiturak epe luzerako eraginkortasuna eta jasangarritasuna abiapuntutzat hartuz kudeatzen dituzte.

5. Helbururako Estrategiak:

- Gizartean, erakundeetan eta enpreetan kontzientzia sortzea, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspuntutik jasangarria den garraioaren beharrari buruz.
- Garraio-sistema jasangarri bat sustatzea, eraginkortasuna xede hartuta garraio-zerbitzuak, azpiegiturak eta loturak eraikiz, bermatuta eta mantenduta.
- Garraio publikoaren finantzazio-sistema bat diseinatzea, garraioaren jasangarritasuna bermatu eta eraginkortasuna maximizatuko duena.

6. Helburua. Garraio publikoaren sistema barneratua garatzea

Beharrezkoa da garraio-sistema bateratu eta koordinatu bat garatzea, intermodalitatea sustatuz, eskaintza koordinatuz, tarifen bateratzea garatuz eta garraio publikora irisgarritasuna erraztuz ordainketa-sistema modernoan eta errazen bidez. Tarifen bateratzea gaketat jotzen da garraio-sistema bateratu bat izateko, intermodalitatea sustatuko duena, eta horren ondorioz, jasangarriagoa izango dena. Garraio publikoaren sistema bateratzeko eta kohesionatzeko, agintari eskumendunek koordinatu eta lerrokatu egin beharko dute.

6. Helbururako Estrategiak:


- Garraio publikoaren erabilera sustatzea eskaintzaren plangintza koordinatuaren bidez, eta kosteen egiturari, estaldura-ratioei eta tarifa-sistemari dagokionez helburuzko erreferentziatzeko esparru prestatuz.
- Ekonomikoki jasangarria den garraio publiko bateratuaren eredu bat garatzea.

9.3. Euskadin garraio-eredu jasangarriantza


XI. legegintzaldirako gobernu-programak Garraio Jasangarriaren 2030 Gidaplan hau jasotzen du bere konpromisoen artean. Gidaplaneko ekimenak jasotzen ditu eta gidaplanean ezarritako helburuak lortzen laguntzen du, batez ere, berotegi-efektuko gas isurien % 20 murrizteari dagokionez.

Garraio Jasangarriaren Gidaplanak xede du garraio-eredu jasangarri eta integratzaile bat lortzea, Euskadiko gizarte-kohesiorako eta gizarte- eta ekonomia-garapenerako tresna gisa. Garraioak zeharkako izaera duenez, gidaplan hau aplikatzean, aintzat izan behar dira Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila, eta zehazki, Garraio Sailburuordetza partaide izan dituzten 15 plan estrategikoak nahiz sail arteko 54 plan osagarriak.

Garraio Jasangarriaren 2030 Gidaplan berria 2017ko ekainaren 13an onartu zen.



9.4. 2022eko jarduerak



Garraioaren plangintzari eta garapenari dagokienez, 2030eko Garraio Jasangarriko Gida Planean zehaztutako ekintzak mantendu dira. Era berean, Euskadiko Errepideen Hirugarren Plan Orokorren jarraipena egin da eta Euskadiko Mugikortasun Jasangarriko Plana egiten hasi dira.

2022an, *Euskadiko Garraio Agintaritzak* jarduerarekin jarraitu zuen eta honako bilerak egin zituen: osoko bilkurak eta bat-barik-mugi txartelen elkarreragingarritasunari buruzko ponentziak.

Moveuskadi tresna telematika berritzen jarraitu zuen. Hiritarren artean garraio publikoaren erabilera modu eraginkorrean sustatzeko aukera ematen du tresna horrek, eskuragarri dagoen informaziorako sarbide hobea eskainita, EBren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren jarraibideen ildotik. Halaber, elkarlanerako hitzarmenak sinatu zituen Euskadiko hainbat erakunde eta garraio-operadoreekin, garraioaren informazio-datuaren kalitatea hobetzeko helburuz. Beste gauza batzuen artean, informazioa denbora errealean jasotzea bultzatu zuen.

Euskadiko Garraio Behatokiak (OTEUS) garraio-politika jasangarria garatzeko tresnak eta erakundeak sendotzeko lanean jarraitu du. 2021ean, Euskadiko garraioaren oinarriko informazioa prestatzeko funtzioak bete zituen GIS (Garraioari buruzko Informazio Sistema) mantenduta eta “Euskadiko Garraioaren Panoramikaren Txostena” idatzita.

GIS aplikazioa eta Euskadiko Garraio Behatokiaren webgunea eguneratu eta modernizatu dituzte. Hala, GISen dagoen informazioa aurreko aplikazioan baino grafikoagoa eta bisualagoa izatea lortu dute, eta garraio-sektoreko adierazle berri ugari txertatu dituzte, GIS osatuagoa eskaintzeko.

Gainera, 2022an honakoak amaitu ziren: “2021eko EAEko Mugikortasunaren Azterlana” eta “EAEko garraio-eskariaren irudia. 2021”. Bost urtetik behin egiten dituzte azterlan horiek, eta EAEko biztanleen mugikortasuna deskribatzea eta pertsonak eta merkantziak garraiatzeko hainbat moduren eskaria aztertzea dute helburu. COVID19aren ondoriozko osasun-egoera zela eta ezarritako mugikortasun-murrizketen eraginez, 2021eko urritik aurrera egin ziren inkestak, mugikortasuna nahikoa normalizatuta zegoenean. Berritasun gisa, azterlan honek barne hartu ditu telefono mugikorretatik jasotako datuak, mugikortasunaren gaineko azterlana sendoagoa eta balio erantsi handiagokoa izateko.

“Garraio Jasangarriko Gida Planeko” plangintzarekin lotuta, 2022ean aurrez ikusitako ekintzak gauzatu dira.

Halaber, plangintzarekin lotutako beste erabaki batzuk nabarmendu behar dira:

- 2017-2028 aldirako Euskadiko Errepideen Hirugarren Plan Orokorreko jarduketaren jarraipena egin da.
- Euskadiko Mugikortasun Jasangarriko Lege Proiektua izapidetzen jarraitu dute.

Jarraian, Eusko Jaurlaritzak 2022ean bultzatutako garraio-sektoreko jarduketarik esanguratsuenak laburtuko ditugu, une honetako Garraio Jasangarriko Gida Planean ezarritako helburuen egiturari jarraituz:

1. helburua Ekonomia-garapena jasangarria, adimenduna eta arduratsua sustatzea.

Garraioaren Sektorearen Modernizazioarako Programa

- Salgaien eta bidaiarien garraio-sektorean kalitatea eta lehiakortasuna hobetzeko helburuak faktore horiek handitzeko hainbat jarduera biltzen ditu bere baitan. 2022ean areagotu egin ziren garraio-sektorerara bideratutako laguntza-lerroak, COVID-19aren osasun-egoerak eragindako egoera ekonomikoa zela eta. Jarduera uztearekin, asoziazionismoa sustatzearekin eta teknologia berriak ezartzearekin lotutako laguntza-programak garatu zituzten.

Prestakuntza sustatzea eta indartzea

- 2022an jarraipena eman zitzaion itsasoko-portuko esparruan graduondokoa dutenei eta profesionalai zuzendutako prestakuntza-jarduerari.
 - Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean, laguntza finantzarioa eman zuen “Saltillo” ontzia mantentzeko. Ontzi horrek praktika akademikoak eta profesionalak egiteko aukera ematen die nautikako ikasleei. Bi praktika mota horiek beharrezkoak dira merkataritza-ontzietan modu profesionalan lan egiteko.
 - Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan, “Gestión de Empresas Marítimo-Portuarias y Derecho Marítimo” (euskaraz, Itsas-Portu Enpresen Kudeaketa eta Itsas Zuzenbidea) masterra antolatu eta gauzatu zuen. 2021/2022 ikasturteko edizioa amaituta dago. 2022koa, berri, hasita dago, eta 2023an amaitzea aurreikusten da.
 - Bilboko eta Pasaiaiko (hurrenez hurren) itsas eta portu arloko enpresei lotuta dauden Uniport eta Giport elkarten jarduerak babestu zituen, finantzaketaren bidez haien jarduera mantentzen lagunduta.
 - Euskal Ontzijabeen Elkartearekin elkarlanean, Nautika Eskoletako ikasleek praktikak egin ahal izatea erraztu zen, etorkizunean merkataritza-ontzietan lan egin ahal izateko. Aurreko ekitaldiko erregistroak gainditu ziren, eta ikasleen ehuneko handi bat Portugaleteko Eskolatik etorri zen.
 - Merkataritzako Nabigazioko Kapitainen Bizkaiko Elkarteak 2018an egindako programa amaitu zen. Munduari itsasoaren bidez emandako lehenengo bira oroitzea zen programa haren helburua. Izan ere, bira hura Magallaesek hasi bazuen ere, Getariako Juan Sebastian Elkano marinelak amaitu zuen.
 - World Maritime Week antolatzeko lanak hasi ziren. Bi urtean behin antolatzen da azoka hori Bilbao Exhibition Centren, eta urte honetako martxoan egingo da.
 - Aurrera jarraitu zuten Merkataritzako Nabigazioko Kapitainen Bizkaiko Elkartearen eta Itsas Ingeniarien Elkarte Profesionalaren babesak eta sustapenak, eta ekitaldian zehar hainbat bilera egin zituzten.
 - Sail In Festival jaialdiaren finantzaketa. Urtearen amaieran egiten da Bilbon eta Donostian; emanaldiak izaten dira, eta parte-hartzaile askoko tailerrak antolatzen eta gauzatzen dituzte.

Laburpen
Exekutiboa 0

Esparru
Orokorra 1

Bilakaera
Orokorra 2

Errepide
Bidezko
Garraioa 3

Tren
Bidezko
Garraioa 4

Aire
Bidezko
Garraioa 5

Itxaso
Bidezko
Garraioa 6


Beste
Garraibide
Batzuk 7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak 8

**Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria 9**

Funtsezko
Adierazleak 10

Eranskinak 11



2. helburua Irisgarritasun unibertsala sustatzea, lurralde-plangintza egokiarekin bat

Errepide plana

- Euskadiko Errepideen III. Plan Orokorra onartu da, 2020ko maiatzaren 9ko 63/2020 Dekretuaren bidez. Aipatutako Plana arautzen duen 5/2018 Legearen 17. artikulua ezartzen duenaren arabera, Planak 2017-2028 aldirako programatutako jarduketan jarraipena egin da, Foru organoekin koordinazioan. Jasandako pandemiaren ondoriozko testuinguru ekonomiko eta sozialaren eraginez, apur bat atzeratu da Planaren lehen erdian aurreikusitako jarduketan gauzatzeko erritmoa.
- Plana arautzen duen 5/2018 Legearen 11. artikuluan aurreikusitako arau teknikoak (bereziki, errepideko bide-zoruekin lotutakoak) garatzea izan da Bide-zoruen Mahaiak egindako lanen helburua. Lan horiek garrantzi berezia izan dute 2022an.
- Euskadiko Errepideen Plan Orokorraren Batzordeak oniritzia eman dio bide-zorua dimentsionatzeko arauaren testu berrikusi eta hedatuari. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuaren 2022ko uztailearen 12ko Aginduaren bidez onartu zen aipatutako araua.
- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuaren 2022ko irailaren 27ko Aginduaren bidez, Euskadiko Errepide Sareko bide-zoruen gainazala birgaitzeko gomendioak eguneratu dira.
- Hiri barruko edo hiriarteko lurreko garraio kolektiboko zerbitzuak ematen dituzten eta garraio-abonuen eta bidaia ugaritako tituluen prezioa % 30 murrizteko konpromisoa hartzen duten autonomia-erkidegoei eta tokiko erakundeek zuzendutako zuzeneko laguntza-sistema bat ezarri da. Gainera, autonomia-erkidegoek hobari gehigarri bat egin dezakete, euren aurrekontuen kontura.
- Salbuespen gisa, 2022ko irailaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra, hobariaren % 10 EAEko Administrazio Nagusiak ordainduko du, eta beste % 10 erakunde eskudunek. Gobernu Kontseiluak 2022ko abenduan onartu zuen gai hori.

3. helburua Garraio-moduen arteko beste oreka bat sustatzea

Trena indartzea

- Helburu nagusietako bat da tren-zerbitzu lehiakorra eskaintzea ibilgailu pribatuaren alternatiba moduan. Horretarako, diru-laguntza eman zaio ET/FV sozietate publikoari, SAU, bere zerbitzua hobe dezan. Sozietate publiko horrek tren, tranbia eta errepide bidezko pertsonen eta tren bidezko salgaien garraioko zerbitzua ematen du. Laguntza honen bidez, modu lehiakorren maiztasun eta pertsonentzako kalitate, segurtasun eta erosotasun handiagoa izatea lortu nahi da.

Eusko Tren XXI. Plana

- 2022an Eubako trenbide-pasagunea kentzeko lanak hasi zituzten, eta beharrezko izapideak egin zituzten Bernabeitiako eta Zaldibarreko trenbide-pasaguneak kentzeko lanei ekiteko.
- Zarautzeko geltoki berria eta San Pelaioko geralekua eraikitzeke laneak aurrera jarraitu dute.
- Eibarko Udalararekin elkarlanean, Eibar-Azitaian tarteko trenbidea estaltzeko lanak hasi dira.
- Anoetako geltokia birmoldatzeko eta Usurbilgo geltoki berria eraikitzeke prozesuak hasi dira.
- Azpiegituren hobekuntzen artean, honako hauek nabarmentzen dira:
 - Altzolako saihesbideko lanen lizitazio-prozesua martxan jartzea. Lan horien baitan, Arriagako industrialdearen eta Altzola auzoaren (Elgoibar) arteko tartean bikoiztu egingo dute trenbidea.
 - Sareko hainbat tartetan trenbidea berritzea (Maltzaga, Berriz-Zaldibar, Mendaro, Zamudio-Lezama, Zumaia-Zarautz, Eibar-Elgoibar, Orio-Usurbil).
 - ERTMS seinale-sistema berria ezartzeko beharrezko lanen hasiera. Tren-zirkulazioaren segurtasun maila eta erosotasuna handitzeko aukera emango du sistema horrek, beste hobekuntza batzuez gain.
- Zumaiaiko zubia eta Orioko biaduktua indartzeko eta berritzeko lanak.
- Euskal Trenbide Sareko trenen eta tranbienen tailerretan estazio fotovoltaiakoak jartzea (Lebario, Arazo eta Ibaiondo), eta Zumaian, Muxikan eta Kurtzean katigamendu berriak jartzea.
- Aurrera jarraitzen dute Topoaren lur azpiko pasabidea egiteko laneak (Lugaritz-Easo). Bi tarteetako lehena amaituta dago: Lugaritz-Mirakontxa.
- Altza-Galtzaraborda tarte berriko laneak aurrera jarraitzen dute.

Euskal Trenbide Sare berria

- 2006ko apirilaren 24an elkarlanerako hitzarmen bat sinatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren, Estatuko Administrazio Nagusiaren eta Administrador de Infraestructuras Ferroviariasen (ADIF) artean, Euskadiko Trenbide Sare Berria eraikitzeke. Hitzarmen hori aldatu egin zuten 2017ko abenduaren 27an, eta bigarren aldiz aldatu eta atzeratu zuten 2021eko abenduaren 23an. Hitzarmen horretan oinarrituta, Eusko Jaurlaritzak Euskal "Y"aren plataforma eraikitzeke proiektuak idatzi ditu Bergara eta Irun arteko Gipuzkoako adarrean (Donostiako lotunea jasoko duen tarte barne). Horrekin lotuta, bere gain hartu du obra horien zuzendaritza fakultatiboa, horien kontratazioa eta gauzatzea, eta tarte horretako desjabetze-espedienteen administrazio kudeaketa egiteke lankidetzan.
- Horrekin lotuta, Euskal Trenbide Sareak (ETS), 2004ko maiatzaren 21eko 6/2004 Legearen arabera esleitura dituen funtzioen baitan, Gipuzkoako adarra eraikitzeke eratorritako lan hauek egitearen kostuak hartu ditu bere gain: eraikuntza-proiektuak, desjabetze-kudeaketa, obren zuzendaritza fakultatiboa eta beste gastu batzuk.
- 2022an berriz ekin zaie Astigarraga-Oiartzun-Lezo tarteko proiektuei, eta jarraipena eman zaie lan hauei: Hernaniko-Astigarraga tarteko lanak, Atotxako geltoki berria Donostian eta Ezkio-Itsasoko geltoki berria.

Laburpen
Exekutiboa

0

Esparru
Orokorra

1

Bilakaera
Orokorra

2

Errepide
Bidezko
Garraioa

3

Tren
Bidezko
Garraioa

4

Aire
Bidezko
Garraioa

5

Itxaso
Bidezko
Garraioa

6

Beste
Garraibide
Batzuk

7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria


9

Funtsezko
Adierazleak

10

Eranskinak

11



Bilboko Hiri Trenbidea

- 2022an zehar, Urbinagako aldageltokiaren proiektuko lanak bultzatzen jarraitu da (Estatuko Administrazio Nagusiarekin elkarlanean), Bilboko Metropoli Treneko 4. lineako azterlan eta proiektuetan lan egiten jarraitu da eta 5. lineari dagozkion lanak amaitu dira.
- Urrian, hitzarmen bat sinatu zuten EAEko Administrazio Nagusiaren, Euskal Trenbide Sarearen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean, 5. linea eraikitzeko eta finantzatzeko.
- Itxaropen kaleko (Bilbo) frontoia berriro jartzeko lanak amaitu dituzte, 3. lineako obrek kaltetu egin baitzuten.
- Amaitu dituzte Bilboko Metropoli Treneko 2. lineako Portugaleta-Santurtzi tartearen eraikitze-lanen ondorioz Santurtziko Antonio Alzaga kaleko 2, 4 eta 8 zenbakietako etxebizitzetan eta lokaletan izandako kalte guztiak konpontzeko lanak.
- Bilboko Metropoli Trenaren (1 eta 2 lineak) finantzaketa ahalbidetzeko, eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Finantza Planaren arabera, 75.550.000 €-ko balioa duen dirulaguntza egituratu da Bizkaiko Garraio Partzuergoari zuzenduta (Bizkaiko Foru Aldundiak emandako berdina).
- Euskal Trenbide Sareak egiten du Bilboko Metropoli Treneko eraikuntzarekin eta ekipamendurekin lotutako proiektuen kudeaketa eta obra eta instalazioen zuzendaritzarekin, ikuskapenarekin eta kontrol teknikoarekin lotutako proiektuen kudeaketa.

Bilboko Portuko salgaien joan-etorria erraztea

- 2022an aldatu eta luzatu egin dute Sustapen Ministerioaren, Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren eta ADIFen artean sinatutako elkarlanerako hitzarmena, Bilboko trenbideko hegoaldeko saihesbidea eraikitzekoa.
- I. faseko (Serantes-Olabeaga tunela) azterlan informatzailearen aldaketa amaitu da.

Kable bidezko garraioa


- Kable bidezko Garraioaren Legea Proiektua onartu dute. Osorik EAEko lurralde eremutik pasatzen diren kable bidezko pertsonentzako garraio-instalazioen proiektzioa, eraikuntza, martxan jartzea eta ustiaketa arautzea da legearen helburua. Abenduaren 15eko Kable bidezko Garraioaren 12/2022 Legea onartu dute, 2022ko otsailaren 16an Eusko Legebiltzarrerara bidali ondoren, zegozkion izapideak egiteko (2022ko abenduaren 28ko EHAA, 247. zk.).
- Zuzendaritza honi emandako eskuduntzen barruan, EAEko kable bidezko garraiorako instalazioen ikuskaritza egin da.

Intermodalitatea eta elkarreragingarritasuna


- Lezoko plataforma intermodala egiteko azterlan informatzailea eta beharrezkoak diren gainerako dokumentuak idazten jarraitu dute.
- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak (GGLA), Bizkaiko Mugikortasun Agintaritzak (BMA) eta Arabako Mugikortasun Agintaritzak (AMA) aurrera jarraitzen dute esleitutako funtzioak jasotzen dituen akordioarekin. Funtzio horien artean dago bakoitzari dagokion lurralde historikoko garraio arloko politika publikoak partekatzea.
- Euskadiko garraio publikoaren antolaketarekin lotuta eta garraio Txartel Bakarra lortzeko helburuaren baitan, aurrera egin da Euskadin aldi berean dauden hiru garraio-txartelen Elkarreragingarritasuna martxan jartzeko prozesuan: Bat, Barik eta Mugi. Tartean sartutako erakundeek hartzen zuten parte proiektu honetan: Bizkaiko Garraio Partzuergoak, Gipuzkoako Garraio Agintaritzak, Arabako Foru Aldundiak, Euskotrenek eta Eusko Jaurlaritzaren Garraio Plangintza Zuzendaritzak.
- Azkenean, Bilboko Metroko linea guztietan txertatu dute MUGI txartela. Hala, hiru txartelek guztizko interoperabilitatea dute azpiegitura horretan.
- EAEtik igarotzen diren merkantzien fluxuak indartzen jarraitu dute, Basque Country Logistics estrategiaren esparruan. Elkarlana sustatu da eskumena duten administrazio publiko guztiekin eta sektore pribatuarekin; hainbat garraiobide barne hartzen dituzten eremu logistikoko intermodalen sare bat osatzen dute horiek. Trenbide bidezko loturak bultzatu dira, eta plataforma logistikokoak garatu dira, arku atlantikoaren barrua duten kokapen geografikotik. Zentro logistikokoetako partaidetzaren araberrako ekarpen ekonomikoaren bidezkoa izan da laguntza.

Inbertsioak egitea portu-azpiegituretan, eta gaur egungo azpiegitura mantentzea EAEn eskumeneko portuetan

- Portu-azpiegituretan egindako inbertsioari dagokionez, hiru lan nabarmentzen dira, hirurak Gipuzkoakoak:
 - Hondarribiko portuko kanpoko dikea indartzea. Azpiegitura indartu dute kanpoko ezpondaren eremuan, hura osatzen duten lau tartetean eta muturrean, 5, 9, 12 eta 18 t-ko BHAD blokeekin. Dikeak olatuen aurrean duen egonkortasuna bermatzea eta kostaldeko itsas ekaitzei baldintza ezin hobetan aurre egitea da helburua, hala, portuko jarduera zuzen garatzen laguntzeko.
 - Getariako portuko kanpoko dikea indartzea. Kanpoko ezpondaren eremua eta muturra indartu dituzte, 10, 20, 30 eta 45 t-ko BHAD blokeekin, dikearen tartearen arabera.
 - Jarduketa horiekin, gure portuak babesteko azpiegiturak indartu eta egokitu dira, neurri handi batean. Izan ere, 2014an eta 2016an kalteak jasan zituzten ekaitzen ondorioz.
 - Mutrikuko portuko kanpoko dikea amaitzea. Dikearen gorputzeko 88 metro linealak amaitu dituzte eta B muturra egin dute harri-lubetarekin, guztizko luzerak dituen 440 m-ak osatzeko. Horretarako, harri naturalen blokeak jarri dituzte. 2022ko hirugarren hiruhilekoan hasi dituzte lan horiek, eta hurrengo bi aurrekontu-ekitaldietan zehar luzatuko dira lanak.
- Bizkaiko bi portu garrantzitsuetan, honako hauek dira amaitutako lanak:
 - Bermeoko portuko segurtasun-sistema berria hornitzea eta jartzea: Bermeoko portuko jardueraren kontrola eta antolaketa egokia izatea bermatzen du eguneroko jardunean, eta portuko segurtasunaren zaintza ere bermatzen du.
 - Plentziako portuko San Balentin dikearen muturra konpontzea: babestu egin da eta haren egonkortasuna bermatu da, etorkizuneko itsas-ekaitzetatik babesteko; hala, azpiegiturak modu eraginkorrean jokatzea eta segurtasun maila handitzea dira helburuak.
- Amaitutako beste jarduketa batzuk:
 - Getariako portuko Txoritonpe eraikineko euri-urak ponpatzeko instalazioen egokitzapena: aipatutako eraikineko euri-urak ponpatzeko estazioko ekipoak ordezkatu dira; hala, ekipo horien etengabeko jazoerekin eta matxurekin amaitu da.
 - Bermeoko portuko Portu Zaharra kaia berriz zolatzea: kai horretako kalteak konpondu dira, kaiaren funtzionalitatea bermatzeko eta Bermeoko portuko eremu horretan portuko jarduera eta hiriko jarduera modu egokian garatzen laguntzeko.
 - Donostiako portuko La Jarana kaian istingadi berri bat jartzea: istingadi berri bat eraiki da, dagokion sARBIDE-arrapalarekin, arrantzarako dartsenan atrakatzeko hirugarren eremu bat egon dadin eta irisgarritasun orokorra hobetzeko. Era berean, egungo egitura indartu da, hormigoï armatuz ondoztatuta.
- Honako lanak ari dira une honetan gauzatzen:
 - Orioko portuko arrantzarako kaia konpontzea: kaia indartu eta sendotu da; izan ere, eremua urbanizatzeko egindako lanen ondorioz, azpiegitura horrek karga handiagoak jasan ditzake, kaitik gertu pasatzen den bidea dela eta. Jarduketa horren zatirik handiena 2022ko azken hiruhilekoan egin da, eta 2023aren hasieran amaituko da.
 - Mutrikuko portuko arrantzaleen etxolak zaharberitzea: portuko arrantzaleen etxola zaharren zaharberitze zientifikoa egin da. Hala, higiezin historiko-artistiko horri balioa ematea lortu da. Horrez gain, etxola horiek dauden urbanizazioa eta ingurunea hobetu eta egokitu dituzte; portuko jabari publikoan daude kokatuta. 2022an hasi dira jarduketa horrekin, eta kontratu-aldaketaren bat izan da, amiantodun materialak agertu direlako. 2023an amaituko dituzte lanak.
- Nolabaiteko garrantzia duten dragatze-jarduerak egin dituzte nabigagarritasuneko eta ainguratzeko baldintza egokiak mantendu ahal izateko:
 - Dragatzea Ondarroako portuan: 15.000 m³ hondar garbi atera dira bokaleko eremutik, 40.000 m³ hondar lohitsu bokalearen eraginpeko eremutik eta itsasadarraren kanaletik, eta 1.500 m³ hondar lohitsu kirol-dartsenaren barrualdetik.
 - Dragatzea Orioko portuan eta Zumaiako portuaren barrualdean: 30.000 m³ material atera da bokalearen eremutik eta kanpoko kaitik, 2.500 m³ material inguru itsasadarraren kanaletik eta 35.000 m³ kaiaren barrualdetik.
 - Dragatzea Lekeitioko portuko arrantza-dartsenan eta sARBIDE-kanalean: 3.600 m³ material pikortsu atera da arrantza-dartsenaren bokaletik gertuen dagoen eremutik, eta 1.000 m³ hondar garbi sARBIDEKO kanaletik.
 - Aurrera jarraitzen du EAeko portuetako dragatze-lanen ingurumen-jarraipenerako kontratuak.
- EAeko portuetan instalazio elektrikoak, argiztapena eta balizajea mantentzeko luzatutako kontratuen baitan, lan ugari egin dira. Hobetu egin da aurreko kontratuarekin alderatuta. Izan ere, ekonomikoki



Euskadiko Garraioaren Panoramika



dezente handitu da, instalazio elektrikoak eta, batez ere, argiteria publikoa berritzeko jarduketa ugari egin ahal izateko. Hori guztia, EAEko portuetako argiteria publikoaren auditoretza energetikoarekin bat etorriz; 2021. urtean egin zuten aipatutako auditoretza.

- Bi “Esparru akordio” egin dira, mantentze-lanetarako eta kontserbaziorako obra zibilak eta itsas obrak kontratatzeko. Mantentze-lanen hogeita hamar kontratazio txiki baino gehiago lizitatu eta gauzatu dira. Gainera, “Esparru akordio” berriak sinatu dira berritze-lanak, konponketak, kontserbazioa edo mantentze-lanak egiteko, zibilak zein itsasokoak. Horiek barne hartzen dituzte 2022-2024 aldian zehar bi kontratuen kalitatea hobetzea ahalbidetuko duten hainbat hobekuntza.
- “Zuzendaritza honen EAEko portuetako obra handi eta txikietako segurtasuneko eta osasuneko koordinazioa” egitea ahalbidetzen duten zeharkako kontratuak gauzatzen jarraitzen dute.
 - Bizkaian kontratu berri bat sinatu dute, aurrekoa amaitu egin baitzen. Zerbitzu honek aurreko ekitaldietan izandako baldintza berdinak ditu kontratu berriak.
 - Gipuzkoan, kontratuari aldaketa bat egin zioten azaroan, “Mutrikuko portuko kanpoko dikea amaitzeko” lanen segurtasuna eta osasuna barne hartzeko.
- Portuetako eskaerei erantzuteko eraikuntza-proiektuak idazten hasi dira:
 - Orioko portuko ezkeraldeko harri-lubeta kaia, ontzitegiaren albokoa, egokitze proiektua idaztea: aukera emango du kai horri kontserbazio-egoera ona itzultzeko, haren gainean jarduerak berriak garatzeko eta portuko jarduerari lotutako ontziak atrakatzeko erabiltzeko.
 - Donostiako La Jarana kaia konpontzeko proiektua: aurreko ekitaldietan kaien gainean egindako analisisan eta ikuskaritzan hautemandako eskarian oinarrituta egin da, eta honek ere aukera emango du kai hori kontserbazio-egoera on batera itzultzeko.
- “Zumaiako Portuko Plan Bereziaren 1. aldaketa” lizitatu dute eta idazten hasi dira, egungo Plan Bereziaren bertsioa oraingo hirigintzako eta portuko beharretara egokitze helburuz. Mota honetako hirigintza-dokumentu baten tramitazio administratiboko prozesua luzea izaten denez, kontratazioa 2024ko ekitaldira arte luzatuko da.
- “Arrain-lonja berriaren eraikuntza Ondarroako portuko A.I.1 eremuan” lana amaitu dute. Ekitaldi honetako otsailean hasi ziren lanekin, eta azpiegitura amaitzea ekarri du.
- Instalazio nautikoetan eta kirol-instalazioetan hainbat jardura egin ditu EKPK:
 - Mantendu eta ordezkatu egin dituzte itsasontziak amarratzeko erabiltzen diren istingadiak eta finger-ak. Horrekin lotuta, hondatutako profilak ordezkatu dituzte, eslingak aldatu dituzte, eta portu ugarietako hondatutako istingadietako zoladura-tarteak ordezkatu edo habexkak indartu dituzte.
 - Itsasontziak uretaratzeko eta altxatzeko elementuak eta lehorrean egon behar duten tartean erabiltzen diren tresnak mantentzeko eta berritzeko lanak.
 - Lekeitioko portua berrantolatzeko lanak amaitu dituzte.
 - Bermeoko erregaiaren hornidura berritzeko lanak lizitatu eta esleitu dituzte.
- Ur-laminaren eta lurrazalaren garbiketa Ondarroako, Lekeitioko, Eako eta Elantxobeko portuetan: kontratu berria uztailean sinatu zuten, eta 24 hilabeteko iraupena du.
- Lurrazalaren eta ur-laminaren garbiketa, eta Mundakako, Bermeoko, Armintzako eta Plentziako portuetako ontzietatik datozen hondakinak biltzea: kontratua indarrean egon da urte osoan zehar, eta onartutako dago 2023ko ekitaldian beste bi urterako luzatzea.
- Lurrazalaren eta ur-laminaren garbiketa, eta Gipuzkoako portuetako ontzietatik datozen hondakinak biltzea: kontratu horren luzapena sinatu zen 2022ko otsailean, eta indarrean egongo da beste 24 hilabetez.
- Ondarroako, Lekeitioko, Mundakako eta Bermeoko portuen segurtasuna eta zaintza, Bizkaian: 2022an kontratuaren luzapena onartu zen, eta jatorrizko kontratuan aurreikusitakoa baino 24 hilabete gehiagoz egongo da indarrean.
- Donostiako portuko segurtasuna eta zaintza: zerbitzu hau emateko kontratu berria sinatu zuten 2022ko azaroan, eta 2024aren amaierara arte luzatuko da.
- Bermeoko Portua Babesteko Planarekin lotuta: nahitaezkoa da sarbide mugatuko eremuan neurriak ezartzeko.
- Eusko Jaurlaritzako Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak kudeatzen dituen 15 portuetan aplikatzekoak diren planen jarraipena eta kudeaketa.
- Eusko Jaurlaritzak zuzenean kudeatzen dituen portuetan itsasoaren kutsadura eragiten duten egoeren aurrean jokatzeko baliabideen inbentarioa mantendu eta eguneratu dute.
- Zuzenean kudeatzen diren portu guztietako Itsasoko Barne Plan guztiak berrikusi dira, bi helbururekin: eguneratzea eta sinplifikatzea.

Aireko garraioaren plangintza eta garapena

- EAEko hiru lurralde historikoetan dauden hiru aireportuetan (Loiu, Hondarribia eta Foronda), Garraio Plangintzarako Zuzendaritzak EAEko hiriburuetakoa aireportuak bultzatzeko sozietateei emandako babesak mantendu egin du. Horren guztiaren helburua da lankidetzarako testuinguru berriak identifikatzea, “aireportu bat, hiru terminal” lelopean hiru aireportuen artean jasangarritasun naturala sustatuta.

4. helburua

Euskadiren kokapen estrategikoa sustatzea Europan

Ardatz atlantikoa indartzea komunikazio-ardatz gisa

- Eusko Jaurlaritzak Europar Batasuneko Itsas Eskualde Periferikoen Konferentziaren baitako Arku Atlantikoaren Batzordean (AAB) parte hartu du, garraio arloan politika bateratuak sustatzeko. Ildo horretan, Garraio Plangintzaren Zuzendaritzak Arku Atlantikoaren Garraiorako Taldean parte hartu du.

5. helburua

Garraio-sistemen erabilera eraginkorra eta arduratsua sustatzea

- 2022an aurrera jarraitu dute Autobus Elektriko Adimenduna (BEI) Donostian eta Leioa-EHUn jartzeko lanek, eta Gasteizen BEI jartzeko lanak amaitu dituzte.
- Garraio Iraunkorraren 2030 Gidaplana onartu da. Gidaplanaren helburua da barneratze multimodala erreferentziatzeko esparru izatea eta garraioa lurralde-politikaren zatitzat hartzea oinarri dituen garraio-politika bat ezartzeko.
- Garraio Iraunkorraren 2030 Gidaplana abiapuntutzat harturik eta Eusko Jaurlaritzak jada idatzitako edo idazten ari den beste plan estrategikoa eta sektorial batzuekin osatuz, 2021an Planean aurreikusitako ekintzak egiten jarraitu da.
- Euskadiko Mugikortasun Jasangarriko Plana egiten hasi dira, EAEko garraio-sistemak lurraldeko behar ekonomikoetara, sozialetara eta ingurumen arloko beharretara egokituko direla bermatuko duten gidalerro batzuk ezartzeko helburuz. Horretarako, sistema horien eraginkortasuna eta jasangarritasuna hobetzea eta inpaktu negatiboak gutxitzea sustatzen da, garraioa lurraldeko eta gizarteko garapen ekonomikoaren eta kohesioaren bektorea dela ulertuta.
- Euskadiko Mugikortasun Jasangarriari buruzko Lege Proiektua onartu dute. Operadoreak koordinatzeko eta tarifak diseinatzeko elementu komun guztiak bateratzea du helburu eta, hala, zerbitzua eskaini ahal izatea bermatzea. Horrek guztiak horien lankidetzara ekonomikoko eta teknologikoko mekanismoak formulatuko ditu, eta ingurumenari dagokionez jasangarriagoak diren garraio-bideak eta klima-aldaketaren aurkako borrokarako lagungarriak diren energia garbiak erabiltzea bultzatuko ditu.
- 2022ko apirilaren 6an Eusko Legebiltzarrari bidali zioten aipatutako lege-proiektua, Legebiltzarrak dagokion moduan tramitatu dezan.

6. helburua

Garraio publikoaren sistema barneratua garatzea

Hiriko garraioan tren-eskaintza hobetzea

- Hiri-bilbean tranbiak proiektatu dira garraioaren sistema osoan txertatu behar duen beste hiriko garraio-bide baten moduan; hala, eskaintza eskarira egokituko da. Beraz, erakunde guztietako langile teknikoak osatutako mahaien esparruan egin behar dira mugikortasunaren inguruko analisiak. Testuinguru horretan, Gasteizko tranbia Salburuara hedatzeko lanak amaitu dituzte, baita Bolueta-Atxuri eta Bilbo arteko tartean tranbia jartzeko lanak ere. Gasteizko tranbia Zabalganara hedatzeko eta Bilboko tranbia Zorrotzaurera hedatzeko azterketak egiten jarraitzen dute.

Laburpen
Ezekutiboa

0

Esparru
Orokorra

1

Bilakaera
Orokorra

2

Errepide
Bidezko
Garraioa

3

Tren
Bidezko
Garraioa

4

Aire
Bidezko
Garraioa

5

Itxaso
Bidezko
Garraioa

6

Beste
Garraio-bide
Batzuk

7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

9

Funtsezko
Adierazleak

10

Eranskinak

11



EAEko garraio sektorearen funtsezko adierazleak



10.

10. EAEko garraio sektorearen funtsezko adierazleak

Laburpen
Exekutiboa 0

Esparru
Orokorra 1

Bilakaera
Orokorra 2

Errepide
Bidezko
Garraioa 3

Tren
Bidezko
Garraioa 4

Aire
Bidezko
Garraioa 5

Itsaso
Bidezko
Garraioa 6

Beste
Garraibide
Batzuk 7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak 8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria 9

**Funtsezko
Adierazleak 10**

Eranskinak 11

1. adierazlea	2010	2020	2021	2022 (a)	Aurrerapen maila	
	(EJSN-2009 eta EKS-10)	(EJSN-2009 eta EKS-10)	(EJSN-2009 eta EKS-10)	(EJSN-2009 eta EKS-10)	22-10	22-21
Garraioaren produktibitatea (BEGd/Enplegua)	66,2 mila euro lanean ari den pertsonako	74,4 mila euro lanean ari den pertsonako	82,5 mila euro lanean ari den pertsonako	95,3 mila euro lanean ari den pertsonako	+43,9%	+15,5%

2022ean, garraio-sektorearen produktibitatea 95,3 mila eurokoa izan zen okupatutako pertsona bakoitzeko; euskal ekonomiaren guztizko produktibitatea, berriz, baxuagoa izan zen: 85,1 mila eurokoa langile bakoitzeko.

2010arekin alderatuta, sektoreko produktibitatea % 43,9 igo da. 2021arekin alderatuta, indizea % 15,5 handitu da. Hala, euskal ekonomiak oro har izan duen hazkundea (+% 10,6) gainditu du.

2. adierazlea	2003	2020	2021	2022 (a)	Aurrerapen maila	
	(EJSN-1993, 1. berrik.)	(EJSN-2009 eta EKS-10)	(EJSN-2009 eta EKS-10)	(EJSN-2009 eta EKS-10)	22-03	22-21
Garraioaren sektorearen parte-hartzea EAEko BEGd-n (BEGd garraioa/BEGd ekonomia)	4,80%	4,74%	4,83%	5,08%	+0,28	+0,25

2022ean, EAEko BEGaren % 5,08 zegoion garraio-sektoreari.

Sektoreko BEGak Euskadiko ekonomia osoaren BEGaren gainean duen pisua ehuneko 0,25 puntu hazi da 2021etik, eta ehuneko 0,28 puntu 2003tik.

3. adierazlea		2005	2020	2021	2022	Aurrerapen maila	
						22-05	22-21
Salgaien garraioa, garraibidearen arabera	Errepidea	74,7%	74,7%	80,2%	79,5%	--	-0,7
	Trenbidea	1,1%	1,1%	1,1%	1,1%	--	--
	Airekoa	0,0%	0,0%	0,0%	0,0%	--	--
	Itsasokoa	24,1%	24,1%	18,7%	19,4%	--	+0,7

2022an, errepideko garraioak jarraitu zuen merkantziak garraiatzeko bitarteko nagusia izaten: karga osoaren % 79,5 garraiatu zen errepide bidez. Itsaso bidezko garraioa bigarren postuan kokatu zen, produktuen % 19,4 garraiatu baitzituzten modu horretan. Aldiz, % 1,1 zegoion tren bidezko trafikoari.

2021arekin alderatuta, itsaso bidez garraiatutako bolumena % 4,2 hazi zen, eta trenez garraiatutako karga % 0,8 jaitsi zen.

Euskadiko Garraioaren Panoramika

4. adierazlea		2003	2020	2021	2022	Aurrerapen maila	
		(Bidaiariak, milakotan)				22-03	22-21
Pertsonen mugikortasuna, garraiobidearen arabera	Errepidea	116.380	71.330	93.793	110.109	-5,4%	+17,4%
	Trenbidea	126.453	89.195	107.368	132.109	+4,5%	+23,0%
	Airekoa	3.228	1.808	2.865	5.736	+77,7%	+100,2%
	Itsasokoa	119	46	74	214	+79,8%	+189,2%

2022an, errepide bidezko joan-etorriak 110 milioi pertsonatik gora kokatu ziren (2021arekiko +% 17,4), tren bidezko bidaiak 132 milioi pertsona gaintitu zituzten (+% 23), aireko mugikortasunak 5,7 milioi pertsona gaintitu zituen (+% 100,2) eta itsaso bidezko garraioa 214 mila bidaiarira igo zen (+% 189,2). Gogoratu beharrekoa da, Covid-19aren pandemiaren eraginez, mugikortasuna mugatu egin zutela 2020an, baita 2021ean ere, neurri apalagoan.

Epe luzeko analisiak (2003-2022) erakusten duenez, garraiobide guztiak egin dute hobera, errepide bidezko garraioak izan ezik (-% 5,4). Treneko bidaiari kopurua % 4,5 hazi zen, aireko garraioaren bezero kopurua % 77,7 hazi zen, eta itsaso bidezko joan-etorriak % 79,8.

5. adierazlea		2006		2020		2021		2022		Aurrerapen maila			
		X	M	X	M	X	M	X	M	22-06		22-21	
Kanpoko merkataritza, garraiobidearen arabera	Errepidea	63,0%	38,1%	65,3%	51,5%	61,8%	46,8%	59,7%	40,4%	-3,3	2,3	-2,1	-6,4
	Trenbidea	0,0%	0,4%	0,1%	1,4%	0,2%	1,1%	0,2%	0,9%	0,2	0,5	0,0	-0,2
	Airekoa	1,9%	1,7%	3,3%	3,9%	3,3%	2,8%	3,3%	2,3%	1,4	0,6	0,0	-0,5
	Itsasokoa	29,2%	56,1%	31,3%	43,2%	33,9%	49,2%	37,0%	56,3%	7,8	0,2	3,1	7,1
Bestelakoak	0,0%	0,0%	0,0%	0,0%	0,8%	0,0%	0,0%	0,1%	0,0	0,1	-0,8	0,1	

2022an, esportazioen % 59,7 eta inportazioen % 40,4 garraiatu zuten errepidetik. Esportazioen % 37 eta inportazioen % 56,3 itsasoz garraiatu zuten.

2006az geroztik, atzerritik hona itsasoz garraiatutako karga ehuneko 7,8 puntu hazi da. Errepidez garraiatutako inportazioak, berriz, ehuneko 2,3 puntu hazi dira.

Urte arteko aldakuntzak erakusten duenez, esportazioetan zein inportazioetan hazi egin da itsaso bidezko garraioaren pisua (ehuneko +3,1 eta +7,1 puntu, hurrenez hurren). Bestalde, jaitsi egin da errepidez garraiatutako esportazioen eta inportazioen kuota (ehuneko -2,1 eta -6,4 puntu 2021arekiko, hurrenez hurren).

6. adierazlea	2002	2019	2020	2021	2022	Aurrerapen maila	
						22-02	22-21
Energia-kontsumoa garraio-sektorean	1.590 ktep	2.165 ktep	1.938 ktep	2.050 ktep	2.179 ktep	37,0%	6,3%

Euskadi 2030 Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoen arabera, garapen iraunkorreko eredu bat bilatu behar da.

2022an, garraio-sektorearen kontsumo energetikoa % 6,3 hazi zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Igoera hori bat etorri zen EAEko ekonomiak izandako hobekuntzarekin (BPGa % 6 hazi zen 2021arekiko). 2002-2022 aldian, sektoreko energiaren kontsumoa % 37 hazi zen, zehaztutako helburu estrategikoen aurkako bidean.

Laburpen Exekutiboa 0

Esparru Orokorra 1

Bilakaera Orokorra 2

Errepide Bidezko Garraioa 3

Tren Bidezko Garraioa 4

Aire Bidezko Garraioa 5

Itsaso Bidezko Garraioa 6

Beste Garraiobide Batzuk 7

Ondorio eta Joera Nagusiak 8

Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria 9

Funtsezko Adierazleak 10

Eranskinak 11

7. adierazlea	1990	2008	2019	2020	2021	Aurrerapen maila	
						21-90	21-20
Berotegi-efektuko gasen igorpenak garraio-sektorean	2.717 mila tona CO ₂ baliokide	5.713 mila tona CO ₂ baliokide	6.423 mila tona CO ₂ baliokide	5.752 mila tona CO ₂ baliokide	6.138 mila tona CO ₂ baliokide	119,3%	6,7%

2021ean, garraio-sektoreak sortutako berotegi-efektuko gasen isurpena % 6,7 hazi zen, EAEko jarduera ekonomiko osoaren joerari jarraituz (EAEko BPGa % 6,2 hazi zen 2020arekin alderatuta).

1990-2021 aldian, garraio-sektoretik eratorritako berotegi-efektuko gasak % 119,3 hazi ziren; hau da, Kiotoko Protokoloak garraioaren gainean finkatutako helburuaren aurkako bilakaera izan zen.

8. adierazlea		2004 ¹	2019	Aurrerapen maila	
				19-04	
Garraioaren kanpoko kostuak	Errepidea Trenbidea Airea Itsasoa	2.753 milioi € 72 milioi € n.d. n.d.	1.598,0 milioi € 67,3 milioi € 157,3 milioi € 836,0 milioi €	-42,0%	-6,5%
				n.d.	n.d.

2019ari buruz eskuragarri dauden azken datuen arabera, EAEn 2.659 milioi euro inguruak izan ziren garraioaren kanpo-kostuak. Kanpo-kostu horien % 60,1 errepide bidezko garraioari dagozkio, % 31,4 itsaso bidezkoari eta % 5,9 aireko garraioari. Bestetik, trenbidezko garraioak sortzen ditu kanpo-kostu gutxien (EAEko garraio-jardueraren kostuen gutzitzaoren % 2,5).

2004an % 42,0 murriztu ziren errepide bidezko garraioaren kanpo-kostuak, azpiegiturretan hartutako neurrien eta ibilgailuen aurrerapen teknologikoen ondorioz. Trenbide bidezko garraioaren kanpo-kostuak % 6,5 jaitsi ziren, merkantzien garraiotik eratorritako kostuak txikiagoak izan baitziren; pertsonen trafikoarekin lotutako kostuek, berriz, gora egin zuten, zerbitzuen eskaintza areagotu egin zelako: Gasteizko tranbia, Bilboko Metroaren 3. linea, eta 2. linea zabaltzea.

¹ 2004ko kostuak eguneratuta daude, 2004 eta 2019 artean prezioek izan zuten bilakaeran oinarrituta.

9. adierazlea	2006	2020	2021	2022	Aurrerapen maila	
					22-06	22-21
Batez besteko gastua pertsonako, batez besteko gastua familiako eta gastu osoa garraioan	Pertsona: 1.665 € Familia: 4.355 € Guztira: 3.520.592 €	Pertsona: 1.212 € Familia: 2.872 € Guztira: 2.622.318 €	Pertsona: 1.299 € Familia: 3.071 € Guztira: 2.793.299 €	Pertsona: 1.461 € Familia: 3.430 € Guztira: 3.145.048 €	Pertsona: -12,3% Familia: -21,2% Guztira: -10,7%	Pertsona: +12,5% Familia: +11,7% Guztira: +12,6%

2022an, pertsonako batez besteko gastua urtean 1.461 €-koa izan zen (2021arekiko +% 12,5); familia bakoitzeko gastua 3.430 €-koa izan zen (+% 11,7), eta garraio-sektorearen gutzitza zifra 3,1 milioi €-tik gorakoa izan zen (+% 12,6).

2006arekin alderatuta, murriztu egin ziren gastuaren hiru adierazleak. Hala, banakako gastua % 12,3 jaitsi zen, familia-unitate bakoitzarena % 21,2 jaitsi zen eta garraio-sektoreko gastu osoa % 10,7 murriztu zen.

Laburpen
Exekutiboa

0

Esparru
Orokorra

1

Bilakaera
Orokorra

2

Errepide
Bidezko
Garraioa

3

Tren
Bidezko
Garraioa

4

Aire
Bidezko
Garraioa

5

Itsaso
Bidezko
Garraioa

6

Beste
Garraibide
Batzuk

7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

9

Funtsezko
Adierazleak

10

Eranskinak

11

Euskadiko Garraioaren Panoramika

10. adierazlea	1998	2020	2021	2022	Aurrerapen maila	
					22-98	22-21
Motorizazio-indizea	366,6 turismo 1.000 biztanleko	459,6 turismo 1.000 biztanleko	461,0 turismo 1.000 biztanleko	462,9 turismo 1.000 biztanleko	+26,3%	+0,4%
2022ean % 0,4 igo zen EAEko motorizazio maila, 2021arekiko; hala, mila biztanleko 462,9 turismotan kokatu zen.						

Laburpen
Exekutiboa 0

Esparru
Orokorra 1

Bilakaera
Orokorra 2

Errepide
Bidezko
Garraioa 3

Tren
Bidezko
Garraioa 4

Aire
Bidezko
Garraioa 5

Itxaso
Bidezko
Garraioa 6

Beste
Garraiobide
Batzuk 7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak 8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria 9

**Funtsezko
Adierazleak 10**

Eranskinak 11



Eranskinak

11.



11. Eranskinak

11.1. Legediaren berrikuntzak 2022an: Europakoak, estatukoak eta EAEkoak

11.1.1. Europako legediaren berrikuntzak

a) Zuzentarauak

Errepideko garraioa

- Errepide bidez merkantziak edo bidaiariak garraiatzera bideratutako ibilgailu jakin batzuen gidarien hasierako prestakuntzari eta prestakuntza jarraituari buruzko 2003ko uztailaren 15eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/59/EB Zuzentarauko akatsen zuzenketa. Horrek aldatu egiten ditu Kontseiluaren 3820/85 zenbakidun Erregelamendua (EEE) eta 91/439/EEE Zuzentaraua, eta indargabetu egiten du Kontseiluaren 76/914/EEE Zuzentaraua (2003ko irailaren 10eko Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, L 226) (2022ko maiatzaren 5eko EBAO, L 131, 8/9. or.).
